

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

**Migrazioa gaur egungo erronka
glokala. Euskal diasporaren kasua
elkartasun eragile eskolan.**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Yanci Guillenea, Alaitz.

ZUZENDARIA: Arregi Orue, Joseba Iñaki.

2019

LABURPENA:

Egungo globalizazio testuinguruan, migrazioa erronka glokala dugu. Euskal Herriko errealitatearen parte da eta, aldi berean, mundu mailan dagoen erronka.

Anitza da Euskal Herriko ikastetxeetan dugun errealitatea, baina era berean, aniztasunaren aberasgarritasunaz gozatu ahal izateko eta egungo gizartean planteatzen diren erronkei erantzunkizunez aurre egin ahal izateko Hezkuntza eredu berri baten premia nabaria da.

Munduko Hiritartasunerako Hezkuntza/Global Education korronteak ikuspuntu global eta lokala landu eta uztartzeko aukera ematen digu, ikuspuntu glokala jorratzeko aukera.

Lan honen helburu nagusia Euskal Herriko eskoletan Euskal diasporari presentzia emateak egin dezakeen kontribuzioa ezagutzera ematea da. Euskal diaspora lantzea izan daiteke aniztasunari bidea eginez kulturartekotasun kompetentzia garatu eta, aldi berean, parekidetasunaren aldeko Munduko Hiritar erantzulea hezteko abiapuntu. Migrazio historia dut, migrazio historia dugu, baina ezezaguna dugu guztiz, besteen arazotzat dugu.

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA..... | 5 |
| 1.1. Munduko Hiritartasunerako Hezkuntza eta kulturarteko kompetentzia..... | 5 |
| 1.2. Migrazioa, erronka globala..... | 6 |
| 1.2.1. Migrazioa gaur egungo Euskal Herrian..... | 9 |
| 1.3. Jakintzatik sentimendura..... | 11 |
| 2. MARKO TEORIKOA. GAIAREN GARRANTZIA ETA ARLOAREN EGOERA..... | 11 |
| 2.1. Gaur egungo migrazioak ulertzeko marko kontzeptual berritzailea. Munduko Hiritartasunerako Hezkuntza eta kulturartekotasun kompetentzia oinarri..... | 11 |
| 2.2. Euskal diasporatik zer ikasi..... | 13 |
| 2.2.1. Ibilbide historikoa, euskaldunak munduan, mundua Euskal Herrian..... | 13 |
| 2.2.2. Aldeko legediak lagun AEBn..... | 15 |
| 2.2.3. Diaspora instituzionalizatua..... | 16 |
| 2.2.4. Aldeko elkartasun egituren existentzia..... | 16 |
| 2.2.5. <i>Remesa</i> eta hazkuntzarako jakintza eta kapitala, itzulerako etekinak..... | 18 |
| 2.2.6. Euskal diaspora zahartzen ote?..... | 18 |
| 2.3. Europa edo Euskal Herria eta inmigrazioa..... | 18 |
| 2.3.1. Inmigrazioa anitza, guztiok gara anitzak..... | 18 |
| 2.3.2. Inmigrazio berriarekiko jarrera, inmigrazioa arrisku bezala..... | 19 |
| 2.4. Kulturartekotasuna helburu, gure buruak deskolonizatzen..... | 20 |
| 2.4.1. Aniztasunaren erronka, kulturartekotasunaren bidean..... | 21 |
| 2.5. Aldaketa baten testigantza..... | 25 |
| 3. HELBURUAK..... | 25 |
| 4. METODOA..... | 26 |
| 5. MARKO TEORIKOAREKIN LOTUTA, IRURITAKO ESKOLAN MARTXAN JARRITAKO PROIEKTUA ETA EMAITZAK..... | 27 |
| 5.1. Justifikazioa, zergatik Iruritako eskolan?..... | 27 |
| 5.2. Proiektuaren helburuak eta esperotako emaitzak..... | 28 |
| 5.3. Proiektuan erabilitako metodologia..... | 29 |
| 5.4. Proiektua praktikara. Jardueren deskribapena..... | 31 |
| 5.4.1. Jarduera orokorrak..... | 31 |
| 5.4.2. Jarduera zehatzak..... | 34 |
| 5.4.3. Jarduera osagarriak..... | 35 |
| 5.5. Proiektuaren ebaluazioa..... | 36 |

| | | |
|--------|--|----|
| 5.5.1. | Ebaluazio bidea. | 36 |
| 5.5.2. | Proiektuaren balorazioa..... | 37 |
| 6. | ONDORIOAK. | 39 |
| 7. | MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK..... | 41 |
| 7.1. | Etorkizunera begira. | 42 |
| 8. | BIBLIOGRAFIA..... | 43 |
| 9. | ERANSKINAK..... | 50 |
| 9.1. | Egindako sakoneko elkarrizketa sasi-egituratua eta galdetegia..... | 50 |
| 9.1.1. | Irakasleei egindako elkarrizketaren eredua..... | 50 |
| 9.1.2. | Ikasleei egindako galdetegiaren eredua..... | 50 |
| 9.1.3. | Ikasleei egindako galdetegitik ateratako erantzun eta ondorioak..... | 53 |
| 9.2. | Testuinguruan murgilduz..... | 55 |
| 9.2.1. | Testuinguruan gehiago murgiltzeko informazioa..... | 55 |
| 9.3. | Jardueren azalpen sakonagoa..... | 60 |
| 9.3.1. | Jarduera orokorrak..... | 60 |
| 9.3.2. | Jarduera zehatzak..... | 62 |
| 9.4. | Jarduerak burutzeko erabilitako baliabideak..... | 68 |
| 1. | Baliabidea. Zaindariaren jolasaren azalpena eta planteatutako galderak..... | 68 |
| 2. | Baliabidea. Bidaiaren marrazkia egin eta gero planteatutako galderak..... | 69 |
| 3. | Baliabidea. Fatimaren historia eta argazkiak..... | 69 |
| 4. | Baliabidea. Fatimaren bidaiaren gutuna..... | 72 |
| 5. | Baliabidea. Fatimaren bidaiaren gutuna irakurri eta gero planteatutako galderak... | 73 |
| 6. | Baliabidea. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren inguruan landutako artikuluak..... | 73 |
| 7. | Baliabidea. Lekualdatzearen arrazoiak eta Europak hartutako jarrera laburki..... | 74 |
| 8. | Baliabidea. Panpin migratzailea identifikatzean planteatutako galderak..... | 74 |
| 9. | Baliabidea. Parekidetasun ezaz ohartzeko planteatutako egoerak..... | 74 |
| 10. | Baliabidea. Gure jarreraren inguruan hausnartzeko zenbait galdera..... | 75 |
| 11. | Baliabidea. Izeia eta Txantxangorriaren ipuina eta galderak..... | 76 |
| 12. | Baliabidea. Fatimak egindako ipuinaren hasiera..... | 81 |
| 13. | Baliabidea. Kamishibaiaren nondik norakoak azaltzeko PPT-a..... | 82 |
| 14. | Baliabidea. “Ni bezalako haurrak” liburuaren inguruan hausnartuz..... | 84 |
| 15. | Baliabidea. “Eguzki katua” kamishibaia..... | 86 |
| 16. | Baliabidea. Euskal etheen kokalekua ageri den mapa interaktiboa..... | 86 |

| | | |
|--------|---|-----|
| 17. | Baliabidea. Fatimaren jolasen inguruko gutuna. | 87 |
| 18. | Baliabidea. Fatimarekin batera bildutako jolasak. | 87 |
| 19. | Baliabidea. Mapamundien kutsu etnozentriztas hausnartzeko PPT-a. | 89 |
| 20. | Baliabidea. Fatimaren berriaren inguruko gutuna. | 91 |
| 21. | Baliabidea. Espainiak bete ez duen akordioa hobeki ulertzeko berria. | 92 |
| 22. | Baliabidea. Salaketa baten adibidea. | 92 |
| 23. | Baliabidea. Salaketa gutunaren formato posiblea. | 93 |
| 24. | Baliabidea. Fatimak bidalitako azkeneko gutuna. | 94 |
| 25. | Baliabidea. Ikasleei oparitutako txaparen marrazkia. | 95 |
| 9.5. | Ikasleen produkzioak. | 96 |
| 1. | Produkzioa. Egindako bidai baten marrazkien zenbait adibide. | 96 |
| 2. | Produkzioa. LHko 2. mailako ikasleek egindako kamishibaiak. | 97 |
| 3. | Produkzioa. Argentinako Arrecifeseko euskal etxeari bidalitako mezua. | 118 |
| 4. | Produkzioa. Fatimaren laguntzarekin batera sortutako jolas bilduma. | 119 |
| 5. | Produkzioa. LHko 5. eta 6. mailako ikasleek idatzitako salaketa gutuna. | 123 |
| 6. | Produkzioa. Pertsona migratzaileei idatzitako elkartasun gutuna. | 124 |
| 7. | Produkzioa. Janari bilketarekin batera bidalitako zenbait elkartasun txarteltxo. | 125 |
| 8. | Produkzioa. Ikasle batek egindako marrazki esanguratsua. | 126 |
| 9. | Produkzioa. Ikasle batek Fatimari idatzitako gutuna. | 126 |
| 9.6. | Argazkiak. | 127 |
| 1. | Argazkiak. Kamishibaien erakustaldiaren eguna. | 127 |
| 2. | Argazkiak. LHko 2. mailako ikasleek egindako lanaren zenbait argazki. | 128 |
| 3. | Argazkiak. Egindako jolas bildumaren jolasetan aritzeko bildu ginen eguna. | 130 |
| 4. | Argazkiak. Pertsona migratzaileen eguna. | 132 |
| 9.7. | Ebaluazioa. | 133 |
| 9.7.1. | Ebaluaziorako erabilitako galdetegia. | 133 |
| 9.7.2. | Saioz saioko balorazioa. | 134 |

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA.

1.1. Munduko Hiritartasunerako Hezkuntza eta kulturarteko kompetentzia.

Egungo globalizazio testuinguruan, 193 Estatu Kidek 2030rako garapen jasangarria lortze aldera Garapen Iraunkorrerako Helburuak¹ sinatu dituztela kontuan harturik, mundu osoko pertsona eta instituzioak ari dira modu batean edo bestean Munduko Hiritartasunerako Hezkuntzaren/Global Education (hemendik aurrera MHH/GE) balore eta esanahia eztabaidatzen (Collado, 2017, 37 orr. Nik itzulita). Izan ere, "Garapen Iraunkorrerako Helburuak eskuratzeko erronkak ingurumenarekin harmonian dagoen hezkuntza transnazional eta transkulturala planteatzeko aukera aurkezten digu" (Ibid, 37-38 orr.).

UNESCOk ere 2015ean MHH/GE proposatu zuen etorkizunerako marko teoriko berritzaile moduan (Ibid.). Munduak bizi dituen mehatxu handien aurrean MHH/GE da munduko dimentsio eta arazoez jabetzen den etorkizuneko hiritarra hezteko bidea. "Munduko Hiritartasunerako Hezkuntzaren erronka handienetarikoa humanitatea kooperazio eta antolaketa sozial demokratiko eredu berrietara bideratzea da, aniztasun kulturala jakintza ekologiararen barrenean integratzen dituzten eruedetara alegia" (Santos, 2014, Colladok aipatua, 2017, 37 orr. Nik itzulita).

Askotarikoak dira planteatzen zaizkigun galderak, hala nola: posible izanen du MHH/GEk munduko nazio eta herrien arteko zubi transnazionalak eraikitzea humanitatearen homogenizazioan erori gabe? Nola sortu komunitate bakoitzaren ezaugarri historiko eta kulturalak errespetatzen dituen eta, aldi berean, kontzientzia kritiko planetarioaren bidez ezarritako helburuak jorratzen dituen MHH/GE? Bistan denez, ez dago galdera hauei erantzuteko formula magikorik (Ibid.). Hortaz, Munduko hiritar kosmopolita eta demokratikoa hezteko proposamena duen MHH/GE korrontearen baitan nola hezi hausnartzeko une aproposa dugu.

Nire kasuan, bide honetan, kulturartekotasun kompetentzia garatzearen aldeko apostua egin dut, egungo mundu globalizatuan eragile izateko beharrezkoa den gaitasunetako bat baita. Hezkuntzak gizartean planteatzen diren erronkei erantzun beharko lieke eta kulturantza dugun errealitateak beharrezkoak ditugun kompetentzia berriei irekitzen die bidea. Hezkuntzatik eman daitekeen erantzun posiblea izan daiteke kulturantzasunaz kontziente izatea, baina noski ez hori bakarrik: kulturartekotasun kompetentziak garatzea nabarmenki indartzen du bizikidetzeta eta giza kohesioari modu arrakastatsuan aurre egiteko aukera

¹ Garapen Iraunkorreko Helburuen inguruko informazio gehiago ikusgai Unesco Etxearen webgunean: http://www.unescoetxea.org/base/lan-arloak.php?id_atala=16&id_azpiatala=13155&hizk=eu.

(Baños, 2008, 77 orr. Nik itzulita), baita nazioarteko testuinguruetan mota ezberdinetako lanak eta ekimenak garatzeko ere.

Onartu beharra dago hezkuntzak ezinezkoa duela egungo arazo globalei² berehalako konponbideak eskaintzea, baina epe ertain eta luzean irtenbidea aurkitzen laguntzen du (Collado, 2017, 37 or. Nik itzulita). Hortaz, hau guztia dela, eta hezkuntzak gizartean duen eragina eta eraldaketa tresna moduan duen indarrak baliatuz, Iruritako eskolako ikasleak subjektu eraldatzaile sentiarazteko apostua egin nuen, erronka global moduan migrazioa lantzea aukeratuz eta maila globalaren eta tokian tokiko errealitatearen artean uztarketa burutzeko Euskal diasporaren kasua erabiliz.

1.2. Migrazioa, erronka globala.

Migrazioa historian zehar eta mundu mailan gertatzen den fenomeoa da. Egun badira 65-70 milioi pertsona beren herrialdeetatik desplazatuak edo lekualdatuak (UNHCR, 2018, 2 orr. Nik itzulita). Giza eskubideen urraketak, aldaketa klimatikoa, bazterkeria mota guztiak, gerrak, espoliazio historikoak eragin duen pobrezia eta Iparraldeko herrialdeek Hegoaldeko herrialdeetan eta beste herrialde batzuetan egindako ustiaketa masiboak dira, besteak beste, desplazatzeko arrazoi nagusi. Inoiz ere ahaztu gabe emakumeek emakume izateagatik bizi dituzten migrazio kausa gehigarriak. Izan ere, guztiz inbisibilizatuta dagoen errealitatea bada ere, migrazioaren feminizazioa ematen ari da. Emakume eta migratzaile izateagatik pairatzen duten zapalkuntza bikoitzaren aurrean emakume hauek adierazten duten indarra eta ausardia ezkututzen da. Honen adibide da Tejedorrek (2016) "En tránsito" dokumentalean amatasuna distantzian bizi duten emakume latinoamerikarren eta hauen seme-alaben egoera latzaren aurrean duten ausardiaren inbisibilizazioa.

Errealitate konplexu, poliedriko eta polemiko honen aurrean, migratzaileen inbasioaren ideia zabaldua dago: Frantziako Fronte Nationalaren lideresa den Marine Le Penen hitzetan "No hay tanques, no hay soldados, pero es una ocupación de todas" (InfoLibre 2015, NET.). Baieztapen honek ezkutatu egiten du ematen diren desplazamenduen %86 ez dela Europara iristen ari (Itziar Ruiz de Gimenezi elkarrizketa Ciordia et aliak aipatua, 2017, 64 orr. Nik itzulita). Esate batera, Libanok, 4 milioi biztanleko herriak, milioi bat errefuxiatu hartu ditu; Europar Batasunak, ordea, 510 milioi biztanlerekin, ez da gauza izan 160 mila pertsonari harrera emateko (UNHCR, 2018, 2. orr. Nik itzulita).

Europako migrazio-asilo politika testuinguruan jartzeko, esan beharra dago Hegoaldearekiko menperakuntza eta egun indarrean dugun sistema ekonomiko eta politikoaren mesederako

² Globala: tendentzia globalak eta tokian tokikoak kontaktuan jarri eta bata besteari elkarreragiten dionean.

sortua izan dela. Europar Batasuneko migrazio politika hiru zutabe nagusitan labur dezakegu (Itziar Ruiz de Gimenezi elkarrizketa Ciordia et aliak aipatua, 2017):

- 1) Kanpo politika. Europar Batasuneko zein NATOko kide batzuek harreman zuzena izan dute Sirian eta beste herrialde batzuetan izandako gerretan, besteak beste armak salduz.
- 2) Asilo politika. Europar Batasunak ez du asilo politika bateraturik. Zorroztu egin dira herrialde askotan asiloa eskatzeko baldintzak eta errefuxiatu estatusa lortzeko oztopoak anitzak dira. Estatu Espainola, egun, Europa mailan asilo politiko gutxien ematen duen bigarren herrialdea da (Ibid, 65 orr.).

Mugen esternalizazioa ere aipatzekoa da. Europar Batasunak, beste herrialde batzuekin egindako akordioen bitartez, migrazioa kanpoan kontrolatzen du. Honen adibide da, 2016ko martxoan, Turkiarekin sinatutako akordioa³, zeinaren bitartez greziar irletara ailegatutako pertsona migratzaileak Turkiara bidaliko zirela adostu zen.

- 3) Giza eskubideak. Europako hiritarren zirkulazio askea bermatzen da: Shengen espazioa. Europarrak ez diren pertsonen inmigrazioa, berriz, ilegaltzat hartzen da, beti ere, merkatuaren beharren arabera mugak ireki edo itxiz. Beraz, "Giza Eskubideak ez dira unibertsalak, gizon pribilegiatu gutxi batzuen ikuspuntutik eta haien mesederako eginak dira" (Marcos, 2018, NET. Nik itzulita). Estatu-nazio bakoitzari dagokio bere hiritarrei eta besteei dituzten eskubideak babestea, nahiz eta estatuen jokabidea baldintzatzen dituzten nazioarteko itunak eta adierazpenak egon. Gai honek migrazioei buruzko eztabaida baldintzatzen du gaur egun, eta honen inguruan, ikerketa eta bibliografia amaigabea dago. Momentu honetan eztabaida handia dago, lekualdatzeko dugun eskubideak ez baitio ezartzen inongo estatuari mugimenduan dagoen pertsonari harrera egiteko betebeharra. Hau da, lekualdatzeko eskubideak ez du bermatzen asiloa eskeintzeko betebeharra. Are gehiago, ez da zalantzan jartzen estatu nazioek duten boterea nor sartu eta nor ez sartu erabakitzeko.

Beraz, "Europak badu esplotatzen duen eskubiderik gabeko biztanleriaren zati bat" (Itziar Ruiz de Gimenezi elkarrizketa Ciordia et aliak aipatua, 2017, 64 orr. Nik itzulita) eta eskubideen urraketa hau normalizat hartzea nahi du, gurekin bizi diren pertsona batzuek eskubide guztiak edukitzeko eskubidea ez dutela naturalizatzea. Horretarako, besteak beste beldur eta mesfidantzaren diskurtsoa zabaltzen da: Andaluziako presidentearen ekonomia aholkularia den Jose Carlos Diezen hitzetan: "Si pones una renta básica no es que pongas el muro de Trump, es que tendrás que poner varios francotiradores" (Europa Press, 2017,

³ Azalpen sakonagoa: Médicos Sin Fronteras en México (2017). *El acuerdo entre la UE y Turquía: una explicación*. [bideoa]. https://www.youtube.com/watch?v=_E1QsTmMZP4

NET). Adierazgarriak ere, Javier Maroto, Gasteizko PPko alkate ohiaren hitzak: "Los inmigrantes magrebíes vienen a vivir de las ayudas sociales" (González de Uriarte, 2014, NET). Ildo honetatik, aipatzekoa da VOX alderdi politikoa zabaltzen ari den diskurtsoa, zeinak besteak beste, hauteskunde programan babes eta defentsa moduan mugak indartzeko neurria aipatzen du (Vox, 2018).

Nabarmentzekoak ere, politika hauetatik onura gehien ateratzen dituzten hiru sektoreak:

- 1) Segurtasunaren negozioak: kamera, kontzertina eta mugen harresien bitartez, baita militarizazioarekin, identifikazio sistemekin, ikerkuntzarako negozioarekin eta deportazioak egiten dituzten hegaldi konpainien irabaziekin ere.
- 2) Giza trataren sareak. Europak diru gehiago gastatzen du FRONTEX (migrazioak kontrolatzeko nazioarteko polizia militarizatua) edo NATON, errefuxiatuentzako harrera programetan baino (Itziar Ruiz de Gimenezi elkarrizketa Ciordia et aliak aipatua, 2017, 64 orr. Nik itzulita).
- 3) Etxeko lanak, eraikuntza eta nekazaritza. Egoerari etekina ateraz, eskeinitako lana prekaritate handikoa da. Ezinbestekoa aipatzea zentzu honetan ere emakumeek jasotako diskriminazio bikoitza. Emakume migratzaile langileei egindako elkarrizketak eta "Encuesta de Población Activa (EPA)" delakoaren datu estatistikoetan oinarrituz, Zenia eta Serrano (2018) autoreek egindako ikerketan diotenez, etxeko lanetan eta zaintza lanetan aritzen diren emakume migratzaileen langabezia, azpilana eta lan balditzak larriki kaltetuak izan dira (EFEk aipatua, 2018, NET. Nik itzulita).

"12.000 mujeres esclavizadas en Euskadi". De esta contundente manera define Silvia Carrizo la situación de las mujeres inmigrantes que trabajan de internas en domicilios particulares, "las 24 horas al día, los 365 días del año" y que reciben a cambio "un sueldo miserable", que en muchas ocasiones no llega ni al Salario Mínimo Interprofesional. Esta es una realidad que existe en Euskadi (Gabilondok aipatua, 2018, NET).

Egoera honek antzekotasun handia dauka 1940 eta 1970 urte artean Hego Euskal Herritik Ipar Euskal Herrira eta Frantziara neska joandako emakumeekin. Lan baldintza gogorak jasan zituzten 12 eta 14 ordu aldera lanean, gehienak kontraturik gabe. Jon Abril Olaetxearen (2016) "Neskatoak" dokumentalean ederki bilduta dago Baztan-Bidasoako 15 emakumeren esperientzia. Baina badirudi, hau kontuan hartu beharrean, egin zigutena errepikatzen dugula, etortzen diren emakumeei lan prekarioak eskainiz.

Hori gutxi balitz, aipatzekoak dira nekazaritza eta eraikuntza sektorean pertsona migratzaileek jasaten dituzten lan prekarizatuak. Honen adibide da, Huelvako sailetan marrubi bilketan lan egiten duten emakume migratzaileen egoera. Pasa den urtean

Andaluziako Langile Sindikatuak “(SAT)” langile hauen esplotazio egoera salatu zuen. Ez bakarrik lan baldintzengatik, baita langile hauek sufritzen dituzten abusu eta esplotazio sexualarengatik ere (Kohan, 2018, NET. Nik itzulita).

1.2.1. Migrazioa gaur egungo Euskal Herrian.

Euskal Herrian migrazio politika hauen eragina begibistakoa da.

Askok ahaztu egin dute euskaldunak migratzaile eta errefuxiatuak izan garela, izan ere, Euskal diasporaren historian bi kategoria hauek izan ziren protagonista. Honen adibide, Eitb-rako Mikel Reparazek (2016) egindako erreportajearen ageri diren Estatu Batuetan bizi diren bi euskaldun datozkit burura, biak migrante ekonomikoak. Hauteskundeetan Donald Trumpen alde eginen dutela diote, haien kezka inmigrazio ilegala izanik. Migranteekiko neurri latzak hartuko dituen agintari bat bozkatzuz ematen du ahanzi egin dutela lehenagoko euskaldun batzuk ez zirela kontratuean eta modu legalean iritsi. Baina ez dira bakarrik.

Egungo Euskal Herriak iristen diren pertsona migratzaile eta errefuxiatuekiko enpatia gutxi erakutsi eta ateak ixten ditu. Guztiz ahaztuz edo errekonozitu gabe euskal diasporak Euskal Herrian bertan izandako eragina, izan ere, eragin edo ondorioen artean migranteek bidalitako diruari esker hazkunde ekonomiko handia ezagutu zuen Euskal Herriak.

Era berean, beldurra adierazten duten jarrerak eta bazterketa soziala areagotu dira. Aipatu beharra dago eskoletan ematen ari den segregazioa: “Desoreka nabarmenak daude maila sozioekonomiko apaleko ikasleen eskolatzean, batik bat migratzaileen seme-alaben eskolatzean. Sare publikoko ikastetxe jakin batzuetan pilatzen dira asko” (Ramirez de Okariz, 2018, NET). “Euskal Herriko datuek erakusten dute etorkinak eskola batzuetan kontzentratzen direla. (...) Etorkinak ikastetxe batean masifikatzen direnean, ez ote dago ezkutuko diskriminazio bat?” (Hik Hasi, 2013, NET). Joera diskriminatzailearen adibide dugu AFAPNA sindikatuko Juan Carlos Laboreoren hitzak: “Hay niños que llegan a la enseñanza pública desde la patera y se comen los lápices” (Noticias de Navarra, 2018, NET).

Euskal Herrian migrazioaren aferak duen erantzun premiaren eta Shengen itunaren porrotaren adierazle da Zierbanan (Bilboko portuan) eraiki den harresia eta baita Irunen ematen ari den egoera ere, bertan pilatzen ari baitira Frantziarako muga igaro nahi duten migratzaileak (Asensio, 2018, NET.). Gainera, adin gutxiko migratzaileen kopuruak gorakada handia izan du: “Instituzioek egindako aurreikuspenak gainditu dira azkenengo urtean: 2016ko urrian, 298 migratzaile adingabe zeuden Hego Euskal Herrian; eta 2017an, 615” (Sagarzazu, 2018, NET.).

Euskal Herrian bizikidetzak oztopatzen duten zurrumurru, estereotipo eta aurreiritziak ere nabarmenak dira. Hauen ondorioz, gure arteko aukera eta giza desorekak handiagotzen

dira, baita diskriminazio jarrerak ere. Honen adibide, berriki Gasteizen emakume etorkin batekiko eman den eraso, besteak beste, arrazista (Eitb.eus, 2019).

Beste ondorioetako bat da pertsona etorkinen kopuruarekiko biztanleriak duen sobrestimazioa: “En la sociedad vasca existe una percepción sobredimensionada del volumen de población extranjera que reside en la CAE. Es decir, se cree que hay un 20,3% de población extranjera, cuando la cifra real es de 8,9%” (Ikuspegi, 2018, 16 orr.).

Instituzioetan ere, arrazakeria nabarmena da. Honen adibide 2018ko azaroaren 8an aurrera eramán zen epaiketa non pertsona bati ijito izateagatik taberna batean sartzea galarazi zion atezaina inpune aterá zen (Comunicación Poder Judicial, 2018). Baita egunerokotasunean ematen diren identifikazio arrazistak eta ilegalak diren berehalalako itzulketak ere. Aipatzekoa da Euskal Herrian elkartasuna erakutsi dutenen kontra ematen den kriminalizazioa, esaterako, Bilboko portuan Arabia Saudirako armak kargatzeari uko egin zion suhiltzailearen kontra emandakoa (Larrañeta, 2018).

Era berean, ez dugu ahaztu behar Euskal Herriak armagintza sektorean duen eragina, bai ekoizpenean bai salerosketan, bai arma hauen erabilera probatzeko oraindik erabilgarri dagoen Bardeetako tiro-eremua, zeinak berriki plazaratu moduan: “jarduera militarari eutsiko dio beste 10 urtez gutxienez, Espainiako Gobernuako Ministerio Defentsaren eta Bardeako Erkidegoaren artean 2008an sinatutako alokatze-hitzarmena abendu honetan automatikoki luzatuko baita” (Eitb.eus, 2018, NET.). Honek ere gerra eta migrazioaren aferarekiko koerantzule egiten gaitu.

Gaur egungo Euskal Herriaren errealitatearen parte da migrazioa, oso bizirik dagoen gaia dugu, hortaz, amaigabeak dira egunerokotasunean honen inguruan gertatutakoak eta salatu beharrekoak. Hala ere, ez da eskolan errealitate honen berri ematen ari. Aitzitik, eskoletan hainbat jarrera ezkorren gorakada edo bisibilizazioa eman da, hala nola: arrazakeria, xenofobia, genero biolentzia, erlijiokekiko intolerantzia eta biolentzia (Martinez, 2016, 5 orr.). Urteak dira Hik Hasi (2013) aldizkarian ondorengo argitaratu zenetik: “Azken urteetan, aniztasuna ulertzeko modua zabaldu egin da. Gero eta anitzagoa da errealitatea Euskal Herriko ikastetxeetan eta aniztasun hori egoki kudeatzea da gaur egungo hezkuntza-sistemak duen erroñka nagusienetako bat” (Ibid, NET). Tamalez, antzeko gabilta, noraezean. Hori dela eta, ezinbestekoa da kulturartekotasunaren alde eta diskriminazio eta arrazakeriaren kontrako ahalegin eta ekarpenak areagotzea. Baita giza eskubideetan oinarritutako hiritartasun demokratikoak eraikitzeke bidean urratsak ematea ere.

1.3. Jakintzatik sentimendura.

Migrazio historia dut, migrazio historia dugu, baina aldi berean, ezezaguna dugu guztiz, besteen arazotzat dugu.

Nire amaxi Baionara joana neskame, bere anaia Ameriketara lan bila eta beste amaxiren aita Perura joana lanera. Txikitatik entzuna ditut komeria hauek, baina inoiz ez lotuak nire oraingo kezka eta nahiekin. Orain dela bizpahiru urte hasi nintzen pertsona migratzaileen egoeraren berri izaten eta erantzunkizuna hartzen, biziari egiten diegun errealitate gordinari irtenbide bat bilatzeko esperantza edo ilusioarekin. Bi urte daramatzat Greziara joaten, han Europar Batasunak blokeatuta eta esperoan dituen milaka pertsonen mesede egiteko intentzioarekin. Aurtengo udan Melillan egon naiz eta bizitza erdigunean jarri beharren gutxi batzuen interesak erdigunean dituzten lege migratzaileek duten eragina eta ezinegona ezagutzeko aukera izan dut, besteak beste. Askotarikoak dira entzundako bizi esperientzia eta esperantzak, baina inoiz ez lotuak nire familian bertan bizi izan dugun mugimendu migratorioekin edo joan etorriekin.

Irurritako eskolan praktiketan nintzela izan nintzen lehenbizikoz lotura honen garrantziaren jabe. Ikasleekin pertsona migratzaileen eskubideen urraketa lantzen ari ginela GRALeko zuzendariak, euskararen eguna zela eta, egun honen ospakizuna euskal diasporarekin lotzea proposatu zidan. Hau egitean, ikasleengandik jasotako erantzunak eta haiengan antzemandako jarrera aldaketak ikusarazi zidan euskal eskoletan euskal diaspora lantzeak izan dezakeen eragina.

Ikaskuntza honek tokian tokikoa dugun euskal diaspora Munduko Hiritartasunerako Hezkuntzarekin (MHH/GE) eta kulturarteko kompetentziarekin uztartzeko aukera eman dit. Lan akademiko honetan prozesu honen garapena eskainiko dut.

2. MARKO TEORIKOA. GAIAREN GARRANTZIA ETA ARLOAREN EGOERA.

2.1. Gaur egungo migrazioak ulertzeko marko kontzeptual berritzailea. Munduko Hiritartasunerako Hezkuntza eta kulturartekotasun kompetentzia oinarri.

Gaurko mundua ulertzen hasteko gai hurbilak eta esanguratsuak eskaini beharra zaizkie ikasleei (Pratt, 2011). Proposamen honi helduz Garrantzi handiko gizarte aferak *Socially relevant issues* erabiltzea proposatzen dut, migrazioa adibide hartuz. Lehen Hezkuntzan Migrazioa eta Giza Eskubideak lantzea konplexua izan daiteke, baina anitzak dira bideak. 2019an munduak dituen erronkez jabetzearen alde, Hezkuntza modelo berri baten beharra azpimarratzen du Desiderio De Paz Abriek (2007, 28 orr.) eta MHH/GE proposatzen digu,

indarra hiru norabideetan jarriz: ikaslearen heziketa integrala edo osoa, hiritartasunaren ikuspegi globala eta azkenik, justizia eta solidaritate edo elkartasunaren ikuspegi globala eta interdependentea edo elkarren mendekoa.

MHH/GEekin bat egiten dute 2014an Nafarroan onartutako Hezkuntza Oinarrizko Curriculumeko 4.artikuluaren ageri diren zenbait helburuk, hala nola:

- a) Bizikidetzaren balioak eta arauak ezagutu eta preziatzea, haien arabera jokatzeko ikasi, herritar gisa jarduteko prestatu eta giza eskubideak eta gizarte demokratiko batek berezko duen aniztasuna errespetatzea.
- b) Taldeko nahiz bakarkako lanerako aztura, ikastean ahalegina egitekoa eta erantzukizunez aritzeko, eta norberarengan konfiantza, zentzu kritikoa, ekimena, jakin-nahia, interesa eta sormena ikasketa prozesuan, eta ekintzailtza.
- c) Gatazkei aurrea hartu eta modu baketsuan konpontzeko trebetasunak bereganatzea, horrela familian eta etxe barnean eta berekin harremanak dituzten gizarte taldeekin autonomiaz moldatzeko.
- d) Kultura desberdinak eta pertsonen arteko desberdintasunak ezagutu, ulertu eta errespetatzea eta, halaber, emakume eta gizonen arteko eskubide eta aukeren berdintasuna, eta desgaitasunen bat duten pertsonak ez diskriminatzea.
- m) Nortasunaren arlo guztietan eta besteekiko harremanetan ahalmen afektiboak eta indarkeriaren, edonolako aurreiritzi eta diskriminazioen eta estereotipo sexisten aurkako jarrera garatzea.

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeek, Hezkuntza Departamentuak xedatzen duenaren arabera:

Ekintzak burutuko dituzte norberaren, familiaren eta gizartearen esparru guztietako gatazkak modu baketsuan konpontzeko eta prebenitzeko eta bizikidetzak hobetzeko ikaskuntza sustatzeko helburuarekin eta, orobat, askatasuna, justizia, berdintasuna, aniztasun politikoa, bakea, demokrazia, giza eskubideekiko eta zuzenbide Estatuarekiko errespetua, terrorismoaren biktimekiko errespetua eta begirunea, indarkeria terroristarekiko gaitzespena eta indarkeria terroristaren eta indarkeria mota ororen prebentzioa sostengatzen dituzten balioak sustatzeko (Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Curriculum, 2014, 3 orr.).

Modu berean, MHH/GE korranteak, ikuspuntu global eta lokala landu eta uztartzean, aukera ematen digu ikuspuntu globala lantzeko. Ikuspuntu aldaketa hau beharrezkoa da. Argi izan beharra dugu migrazioa eta giza eskubideen urraketa mundu osoaren arronka direla eta ez arazo lokala. Horretarako, munduko arazoak gure arazo bezala ulertzea proposatzen digu

mundu anglosajoiaren oso hedatua dagoen MHH/GE korranteak, hau da, munduko arazoaren aurrean erantzunkizunez jokatzeko. Modu globalean pentsatuz modu lokalean jokatzeko.

Ideia hauek ikerketa akuilu izanik, nire proposamena euskal diasporaren kasua erabiltzea da. Gertuko gai esanguratsua da, familia, herritalde zein Euskal Herriarekin lotua. Aldi berean, ezezaguna askorentzat, nahiz eta gure historiaren eta gaur egungo errealitatearen parte izan. Euskaldunok hiritartasun globalaren bidean badugu zer ikasi euskal diasporaren esperientziatik, behintzat gure historiaren parte den pasarte honek aukera ematen digu mundu mailan ematen ari diren beste migrazio batzuk ulertzeko eta, aldi berean, arbasoek integrazio bidean euren kultura eta nortasuna galdu gabe egindakoaz ikasteko.

Baina nola liteke Euskadiko eta Nafarroako Curriculumetan Euskal diasporaren inguruko ezer ez aipatzea? Euskaldunon historiaren pasarte honen ikusezintasuna guztiz bateraezina da Euskal Herrian euskal diasporarekin harremana izateari betidanik eman zaion garrantziarekin, honen adibide 1994. urtean Eusko Legebiltzarrak erbestean dauden kolektiboekin harremana erregulatzeko onartutako legea. Baina Euskal diasporarekin loturikoa aditu batzuen eremua izan da, historialariena nagusiki, eta horrela darrai.

2.2. Euskal diasporatik zer ikasi.

Mundua ulertzen hasteko eta elkarbizitza hobetzeko abiapuntu aproposa izan daiteke norbere historia ahalik eta hobekien eta osoen ezagutzea. Hurrengo puntuetan Euskal Herriko eskoletako Curriculumetan ikusezina den euskaldunon historiaren parte den euskal diasporaren inguruko zertzelada batzuk jaso ditut.

2.2.1. Ibilbide historikoa, euskaldunak munduan, mundua Euskal Herrian.

Euskal Herrian, migrazioen fenomenoak izugarritzko garrantzia izan du historiaren joanean. Gure historia arakatzen badugu argi ikusiko dugu denbora luze daramagula handik hona. Berriki egindako lanari esker badakigu Atapuerkako lehen nekazarien ondorengoak garaile euskaldunak eta gure oinarri genetikoan Ekialde Hurbileko migratzaileen eta bertakoen nahasketa dagoela (Petxarroman, 2015 NET.).

Euskal Herrian betidanik egon gara beste kultura batzuekin kontaktuan (zeltak, erromatarrak, musulmanak, juduak, agoteak, ijitoak...) eta bi korrante egon dira bereziki indarrean: elkarbizitza eta diskriminazioa.

Era berean, Euskal Herriak bizi izan dituen egoera sozio-politikoaren eraginez, euskaldunok toki askotara, ez bakarrik Ameriketara, emigratu dugu azken bost mendeetan. Adibidez, "1939-1945 urteetan Venezuelak 15.000 euskaldun hartu zituen errefuxiatu eta 1949an Argentinan 14.000 errefuxiatu euskaldun onartuak izan ziren" (Douglass, 2003, 122 orr. Nik

itzulita). Euskal emigrazioa arrazoi politiko, ekonomiko eta sozialek eragin zuten, hots, erakartze (*pull*) eta kaleratze (*push*) faktoreak izan ziren euskal emigrazioaren eragile:

Pull faktoreen artean aipatzekoa da Erdi Aroan euskaldunek ekonomia eta itsas merkararitzari esker, bestelako kulturak ezagutu zituztela. Emigrazio etengabea sortu zen Gaztelak Ameriketara zituen koloniek. Amerikako kontinentearen hegoaldean gizarte indigenen konkistak euskaldun asko erakarri zituen. Garai kolonialean, Vasconiako funtzionario, soldadu, merkataria eta misiolari asko izan ziren inperioaren eraikitzean protagonista (Luque Alcaide, 1998, Arregi eta Ugaldek aipatua, 2014, 32 orr. Nik itzulita).

Aurrerago azalduko ditudan Euskal etxeak sortu baino lehen, besteak beste, Sevillan eta Madrilan sortu ziren euskal sareak ere *Pull* faktoretzat har ditzakegu. Egile bezala, aipatzekoa da Alberto Angulo. Ameriketara ere saretze hau eman zen, euskaldunak elkartz joan ziren eta egitura hauek, besteak beste, migratzaile gazteak erakarri zituzten.

Beste *Pull* faktore, XIX. mendearan erdialdean emigrante euskaldunak Amerikako Iparralde, Estatu Batuak, aukeratu zuten helmugatzat, batez ere, Kalifornian urrea aurkitu ondoren. Honetan zorte txarra izan zutenak abeltzaintzan hasi ziren (Totoricaguena, 2003).

Bestetik, *Push* faktoreen artean, gudak, jazarkundeak, soldadutzari ihes egitea...aipatzekoak dira euskal diasporan. Azpimarratzekoak dira Gerra Karlistak. Lehen Gerra Karlista 1833an hasi zen eta euskaldun tradizionalista eta katoliko asko Karlosen alde borrokatu ziren. 1839an, gerra bukatu zenean, euskaldun askok, 8.000 gutxi gorabehera alde egin zuten Argentina, Uruguay eta Txilera (Ibid.).

Ameriketako independentzietan, Espainiar konkistaren garaiarekin amaitu eta gero, eta bi Gerra Karlistetan (1839 eta 1876) galtzeak Inperioa eta sistema foralaren abolizioa ekarri zuen eta honek krisi ekonomiko, politiko, sozial eta kultural handia euskal gizartearen sarean (Agirreazkuenaga, 2010, Arregi eta Ugaldek aipatua, 2014 32 orr. Nik itzulita). Testuinguru honetan, Espainiako armadaren errekrutatzeak milaka gazte Atlantikoaren beste aldera joatea eragin zuen. Amerikak aukeraz beteriko lurra suposatu zuen askorentzat, txirotasunetik eta jazarpen politikotik alde egiteko modua (Ibid.). Beraz, Bigarren eta Hirugarren Gerra Karlistek emigrazioa areagotu zuten. Askok alde egin zuten, besteak beste, hiru urteko zerbitzu militarra ez egitearren eta liberalen zapalkuntza ez jasateagatik. Gauzak horrela, 1877ko urtarrilaren 1ean Montevideon bizi ziren inmigrante euskaldun talde batek Laurac Bat instituzioa sortu zuen Euskaditik Uruguaiara ailegatutako euskaldunak babesteko. Euskal Herrian ezin izan zutena egin han egiteko aukera eman zien honek. 1877ko apirilaren 1ean Laurac Bat-en lehenbiziko alea editatu zuten, euskal diasporako lehenbiziko egunkaria izan zena (Gorriti, 2017, NET. Nik itzulita).

Honetaz gain, Julio Caro Baroja (1958) antropologoaren arabera, maiorazgoa izan zen emigrazioa bultzatu zuen eragile nagusia. Populazioaren dentsitatea, jaiotzen tasa altua, lur

eskasia eta lurraren oparotasun falta handia ere eragile garrantzitsuak izan ziren (Totoricaguenak aipatua, 2003, 120 orr.).

Espainiako Gerra Zibila bitartean (1936-1939) milaka euskaldun atzerrira alde egin zuten eta Estatu Batuetan, Ingalaterran, Argentinan, Txilen, Uruguaien, Mexikon eta Venezuelan erbesteratu ziren besteak beste. Asko erbestean Euskal Gobernurako lan egin zuten intelektual eta adituak izan ziren. Iritsi berriek harrera herrietan instituzio euskaldunak indartu zituzten. 50-60 urte bitartean erakarpen eta kanporatze faktoreen uztarketaren jatorriz euskaldun migratzaile boladak sortu ziren (Arregi eta Ugalde, 2014, 33 orr. Nik itzulita).

2.2.2. Aldeko legediak lagun AEBn.

20. hamarkadan inmigrazioko legeak (National Origins Quota System) jatorriaren arabera kopurua kobratzen hasi eta 1924an Espainiatik joandako pertsona kopurua mugatu zen: 131 lagun urtean (Douglass, 2003, 145 orr. Nik itzulita).

Bigarren Mundu Gerran zehar, lanpostu ugari sortu ziren, artzainen beharra nabaria zen gazte askok zerbitzu militarra egin behar zutelako, eta horregatik euskaldun gehiago sartzea onartu zen, Shepherd Laws (artzaintzako legeak). Lege hauei esker modu ilegalean sartutako euskaldunak (normalean itsasontzitik salto eginez New York, Galreston edo San Frantziskon) betiko erresidentzia eman zieten. 70. hamarkadan euskaldunak hiru urteko kontratua sinatzen zuten artzain lan egiteko. Hiru urte hauen buruan betiko erresidentzia ematen zitzaien eta gainera bestelako ogibidea izateko baimena (Ibid, 146 orr.).

Sunbildarrak Ameriketara (1898-1993) liburuan aipatzen denaren arabera:

Estatu Batuetara joan ziren gehienak artzain joan ziren, lehenbiziko kontratua bete arte bederen, beste lan hobea bilatu arte edo beregain lan egin arte. Anitz izan ziren Elizondoko Marin Gestoriaren bidez abiatu zirenak, gehienek kontratua aurretik sinatzen zutelarik hemen Western Range Associationekin (Estatu Batuetako Mendebaldeko Nekazarien elkarte). (...) Konpainiak bidaiaren gastuak aurretiaz ordaintzen zituen. Kontratuak irauten zuen bitartean WRA artzainari, lanaren truke, etxea eta mantenu egokia ematera behartua zegoen. Soldatari dagokionez, Estatu Batuetan jaiotako artzainen antzeko izan behar zuen (sekula 180 dolarrekoa baino txikiagoa). Kontratuaren baldintzak betetzen zirela bermatzeko Elkartearen ordezkari batek hilabeteetan behin artzainari bisita egiten zion (33 orr.).

2.2.3. Diaspora instituzionalizatua.

Azpirarratzekoa da, Euskal diaspora instituzionala izan zela, EAEko Gobernuak eta egitura osoa kanpoan mantendu baitzen. Gerra Zibilaren ondoren Jaurlaritzak kanpora joan behar izan zuen, hasiera batean Parisera eta nazien inbasioaren ondorioz Venezuelara.

Euskal Gobernuak, Aguirre lehendakaria agintari, erbestean 40 urte baino gehiago biziraun zuen, eremu internazionalan finkatu zen eta herrialde desberdinetan delegazio sare trinkoa mantentzeko gai izan zen (Sanz, 2010 Arregi eta Ugaldek aipatua, 2014, 33 orr. Nik itzulita). Delegazio hauek Francoren diktaduraren kontra eta demokraziaren alde egin zuten. Euskal kolektibitateen papera ezinbestekoa izan zen demokrazia eta eusko identitatea mantentzeko instituzioek egindako ahaleginean (Irujo eta Irigoyen, 2006 Arregi eta Ugaldek aipatua, 2014, 33 orr. Nik itzulita).

Euskal diasporarekin harremana izateari betidanik eman diogu garrantzia eta honen adibide argia dugu arestian aipatutako 1994an Eusko Jaurlaritzak erbesteko kolektibitate euskaldunekin harremanak erregulatzeko asmoz onartutako 8. Legea (Arregi eta Ugalde, 2014, 33 orr. Nik itzulita). Esatekoa da, aho batez alderdi guztiek onartu zutela.

Legean, alde batetik, euskal etxeak kanpoko euskaldunen eta EAE-ko erakundeen arteko harremanak bideratzeko bide nagusi bezala definitzen dira, eta ondorioz, azken urteetan indartuta ikusi dute euren zeregina. (...) Legeak, euskal etxeen erregistro ofizialaz gain, harremanetarako bi erakunde ere sortu zituen: Lau urtetik behin egiten den Euskal Gizataldeen Biltzarra, eta gutxienez urtean behin biltzen den Euskal Gizataldeen Aholku Batzordea. Marko juridiko berria garatzeko hainbat Dekretu onartu eta hainbat programa jarri dira abian ordutik hona, besteak beste: Euskal etxe eta federazioei zuzendutako diru-laguntzak, Gaztemundu programa, premia larrian daudenentzako laguntzak... (Oregi, 2007-2008, 22 orr.).

2.2.4. Aldeko elkartasun egituren existentzia.

Indarrean dago Euskal Herrira etortzen diren pertsona migratzaileak integratu nahi ez direlako aurreiritzi faltsua, haien artean bakarrik biltzen direla eta hori ez dela gure kulturaren parte bat egiteko bidea. Ahantzi egin ahal dugu tokian tokiko migrante euskaldunek Euskal Etxeak sortu zituztela haien tradizioak eta identitate etnikoa mantentzeko eta arbasoen musika, dantza, literatura, sukaldaritza, kirolak, hizkuntza eta erlijioa indartzeko?

“Gizakiak talde bateko partaide sentitzeko beharra dauka” (Greeley, 1974; Isaacs, 1975 eta Connor, 1978 Toticaguenak aipatua, 2003, 40 orr. Nik itzulita). Beraz, harrerako gizarteak ez badie parte sentiarazten hori da euskaldunok bere momentuan eta orainaldiko pertsona

migratzaile askok hartzen duten bidea, haien artean elkartasun eta harreman taldeak sortu. Gainera talka kulturalen eta kultura doluari aurre egiteko modua izan daiteke hau. . Euskal Etxeek zerbitzu ekonomikoak eta sozialak, berehalako harrera, laguntasuna eta partaidetza eskeini zizkieten euskal migratzaileei. Adin nagusikoek bolondresen lana goraiatu zuten haien familien akulturazioan laguntzeagatik eta askok aitortu zuten ezin izango zutela jasan babesleku hauek gabe (Totoricaguena, 2003, 185 orr. Nik itzulita).

2.2.4.1. Emakumeak diasporan, elkartasun eredu.

Herralde desberdinetan elkarrizketatutako askok egunerokotasuneko integrazioan emakume bolondresen ahalegina goretzi zuten (Ibid, 188 orr.). Izan ere, etxe hauetan eta euskal komunitateak, besteak beste, Idahon izan zuen garapenean emakumeen papera ezinbestekoa izan zen. Neskame aritzen ziren bertan lanean eta emakume zaharrek ordezeko amaren papera ere hartu zuten (Bieter eta Bieter, 2005).

Ez dugu ahanzi behar XIX. mende bukaeran oso emakume gutxi emigratu zutela haien senarrekin, oso emakume ezkongai gutxi joan ziren Ameriketara familiakideekin bizi eta lan egitera (Totoricaguena, 2003). Amerikara joan gabe Euskal Herrian gelditu ziren emakumeen papera ezinbestekoa izan da Euskal Herriko historian, senarra Ameriketara joatean haien gain gelditu baitzen familia osoaren zaintza. Eta ez hori bakarrik, Espainiako Gerra Zibilaren bitartean, emakume eusko-argentinar batzuek la Emakume Abertzale Batza, "Unión de Mujeres Patriotas" sortu zuten. Finantza eta laguntza materialak bidali zituzten Euskal Herrira eta Argentinan milaka errefuxiatu politikori egin zieten harrera (Ibid. 126 orr.). Emakume Abertzale Batzako emakumeek izugarrizko ahalegina egin zuten Laurak Bat Euskal Etxera eta Zazpirak Batera iristen ziren heinean, funtsezko aspektuak antolatzeke, hala nola, erbesteratu berriei etxea eta erosotasuna, lanen inguruko informazioa, oinarrizko babes emozional eta soziala...bermatuz (Ibid. 146 orr.).

Muchos exiliados entrevistados señalaron que los esfuerzos y la dedicación de las mujeres vascas de Argentina constituyeron su "gracia salvadora". Los emigrantes se sintieron "aceptados y bienvenidos" en el ambiente de las asociaciones políticas nacionalistas y "parte de una red internacional de vascos que auxiliaba a otros vascos" (Irujo de Olaizolari elkarrizketa, 1997 Totoricaguenak aipatua, 2003, 146 orr.).

2.2.5. Remesa eta hazkuntzarako jakintza eta kapitala, itzulerako etekinak.

Migrazio prozesuaren aspektu ez oso ezaguna da Mundu Berriarekin sortutako loturek euskal landa gizartean suposatu zuen kapitala, eta era berean, ekonomia euskaldunaren industrializazioa eta urbanizazioa kapitalizatzeko suposatu zuen mesedea. Nahikoa dugu Amerikako mendebaldean abereen zaintzan ibiltzen ziren gizon askoren adibidea. Gero Euskal Herrira itzultzean irabazitakoarekin familiaren baserriko hipoteka kitatu, negozio txiki bat erosi edo lantegietan lan egin ahal izateko zonalde urbanizatu batean apartamentu bat erosteko aukera zuten (Douglass, 2003, 49 orr. Nik itzulita). Bistan da, emigratu zutenen aurrezkiek XX. mendeko modernizazioaren parte finantziatu zutela. Uraren eroanbidea, zementuzko firmeak edo zoruak jartzea. Baserri euskaldun askoren silo eta makinaria emigranteek edo Ameriketatik bidalitako diruari esker finantziatu ziren (Ibid, 50 orr.).

2.2.6. Euskal diaspora zahartzen ote?

Badira euskal diasporaren zaharkuntza ematen ari dela pentsatzen dutenak. Badirudi, oraingoz behintzat, euskal emigrazioa bukatu egin dela, noski gauzak aldatu daitezke (Ibid, 93 orr.). Egia da ere, euskaldunok ez diogula inoiz migratzeari utzi. “Krisi ekonomikoaren ondorioz, hezkuntza eta etorkizuneko lana hobetze aldera migratzaile bihurtu diren euskaldunak badaude” (Arregi eta Ugalde, 2014, 29 orr. Nik itzulita).

2.3. Europa edo Euskal Herria eta inmigrazioa.

2.3.1. Inmigrazioa anitza, guztiok gara anitzak.

“70eko hamarkadaren erdialdeaz geroztik, inmigrante eredia erabat aldatu da. Hauek dira, orokorrean, inmigranteen ezaugarriak: gizonaezkoak zein emakumezkoak, adin guztietakoak, formazio-maila askotakoak, sare eta taldeen bidez etorritakoak, eta joan-etorriak oso maiz egiten dituztenak” (Albite, 2008, 51-52 orr.). “Immigranteen ezaugarri nagusia aniztasuna da (...) nork bere ohiturak, hizkuntza, identitatea, egoera eta beharrak ditu” (Ibid, 55 orr.).

Noski, euskaldunon artean ere aniztasuna nabarmena da. Esan bezala, euskaldunak handik hona ibiliak izan gara, inoiz ez isolatuak, baina, hala ere, euskaldun izatearen definizio tradizionalak Euskal Herrian jaiotzea, arbaso euskaldunak izatea eta euskaraz mintzatzea kontuan hartzen ditu. Posible izanen litzateke baldintza hauek bete ezean euskaldun sentitzea? Gaur egun, euren lurra utzi zituzten milaka euskaldunak eta haien ondorengoak euskaldun sentitzen dira. Uruguayar bosgarren belaunaldiari, australiar lehen belaunaldiari edo belgiarren bigarren belaunaldiari egindako elkarrizketetan komuneko ezaugarria

azpimarratzekoa da: denek mantentzen dute euskal identitatea “somos vascos que vivimos lejos de nuestra tierra, pero no por eso menos vascos” (Totoricaguena, 2003, 30 orr.).

Zeri erreparatzen diogu euskaldun dela kontsideratzeko? Lurraldetasunari ematen diogu garrantzia, eta zer gertatzen da Naziotasunarekin? Honek ohiko naziotasun eta lurraldetasunetik haratago dagoen errealitate bat planteatzen digu.

Bilboko Magisteritza Eskolan egindako mintegian argi gelditu zen askorentzat euskaldunak GU garela (Vasconian bizi garenak, Euskadin edo Euskal Herriko zazpi lurraldeetan). Hortaz, euskal-estatubatuarrak, euskal-ingelesak, euskal-kanadiarrak, euskal-australiarrak, guztiak haiek bezala elebidunak, haien definiziotik at daudela dirudi. Posiblea da ikuspuntu lokal eta erredukzionista hau gainditu eta euskaldunen definizio global eta integratzaileago batera pasatzea? (Arregi eta Ugalde, 2014, 31 orr. Nik itzulita).

Etorkin, inmigrante edota atzerritar kontzeptuak berak ere ertz asko ditu (...) Berez, atzerrian jaioei egiten die erreferentzia. (...) Eta atzerria bera aipatzen denean ere, zer adierazi nahi da? Euskal Herriaz kanpokoak? Espainiaz eta Frantziatz kanpokoak? Europaz kanpokoak? (...) Ildo berari jarraiki, jatorri atzerritarreko haurra berez ez da etorkina, baina ikastetxeetan bertakotzat jotzen ote da? Noiz hasten da etorkin izaten? Eta noiz uzten zaio etorkin izateari? (Hik Hasi, 2013, NET.)

Galdera da: noiz bihurtzen da pertsona bertokina? Argi dago, begirada zabaldu beharra dugula, aniztasuna dugu nagusi eta aniztasun hau ez da homogenizatu eta gure arteko botere harreman hierarkizatuak inposatu nahi dituen sistema heteropatriarkal eta kapitalistaren gustukoa. Guztiok aniztasun honetaz gozatu ahal izateko, justizia eta kohesioa lortu ahal izateko, aniztasun hau egoki kudeatu beharra daukagu, erantzunaren premia duen erronka baten aurrean gaude.

2.3.2. Inmigrazio berriarekiko jarrera, inmigrazioa arrisku bezala.

Inmigrazioak dakarren aniztasun kultural hau gure gizartetik kanpo datorren zerbait bezala antzematen da, ez dator bat gure identitatearen ezaugarriekin, “besteei” ezartzen diegun ezaugarria da, gure mugetan atea jotzen dutenei. Desberdintasunak gure identitatearentzako mehatxu bezala ikusita, aurreiritzi eta estereotipoen ataria diren gaizkiulertuak eta mesfidantzak sortzen gabiltza. Aniztasun kulturala elkarbizitzarako arrisku moduan antzematen da gure gizartean, gure ongizaterako (Morales, 2005, 10 orr. Nik itzulita) eta nortasun iraupenerako arrisku moduan (Huntington, 1993).

Sektore sozial, politiko eta komunikabideetako sektore gehienek haiei buruzko irudia definitzerakoan, ideia hau dute abiapuntu: «Immigrazioa arazo bat da». Garrantzitsua da ideia hori auzitan jartzea, euskal gizartearen eta inmigranteen kolektiboen arteko

bizikidetzari errespetuz eta demokratikoki aurre egiteko; eta, azken finean, denon aberastasunerako elementu izan dadin (Albite, 2008, 53 orr.).

Hala ere, aipatzekoa da Euskal gizarteak immigrazioarekiko erakusten dituen jarrerari dagokienez, askoz ere sakonago eta zehatzago aztertu beharra dagoela⁴.

2.4. Kulturartekotasuna helburu, gure buruak deskolonizatzen.

Kulturartekotasunaren prismaik "kulturalki anitzak diren taldeen arteko kontaktuak negoziatio eta kooperazio espazio moduan ulertu beharra ditugu eta ez konfrontazio edo inposizio moduan" (Aguado, 2003 Moralesek aipatua, 2005, 8 orr. Nik itzulita).

Gure gizartean ez zaio elkarrizketa bertikal eta kooperazio honi aukera ematen. Kulturen arteko botere harremana dago zeinetan nagusi den kulturak dominazio harremana ezartzen du asimilazioa bultzatuz.

Aspaldiko diskurtso kolonial-darwinistei helduz, Industria Iraultza bizi ez duten gizarteak zentzu guztietan atzeratuak daudelako ideia zabaltzen da, modu itzela gainontzeko herriekiko zapalkuntza legitimatzeko, baina, era berean, erabateko ezjakintza ezagutarazten duena. Izan ere, Dolores Julianok (2018) elkarrizketa batean adierazten duen antzera, teknologia hobea izateak ez du bermatzen baliabideen erabilera egokiagoa edo naturarekin hobeki harremantzen den gizarte sistema justuagoa. (...) Eta, zalantzarik gabe, ez du bermatzen parekideagoak, eskuzabalagoak eta enpatikoagoak garenik (Fernandezek aipatua, 2018, NET. Nik itzulita).

Idea hau oso lotuta dago Moralesek (2005, 9 orr. Nik itzulita) dioenarekin: "begirada iraganera eramaten badugu ikusgai gelditzen da gure gizartea aniztasunaren kontrako kultura identitarioa eraikitze bidean egon dela. Identitate honekin identifikatu ez direnak gutxinaka baztertuak, segregatuak eta erreprimituak izan dira". Hau banako zein kultura osoekin egin izan da estatu teknologikoa eta industrian boteretsua den eredu goraipatuz.

Argi dagoena zera da, aniztasun kulturala ez da berriki eman den zerbait, migrazioa ez da gaurko zerbait eta ez du bukaera eperik. Gizakia ez da inoiz guztiz sendetarista izan, beti migratzaile baizik. Kulturartekotasuna aberasgarritzat dugunok badugu zer egitekorik eta euskal diasporako esperientzian ikusitakoaren arabera, badugu nondik ikasi, baita egindako akatsetatik ere. Gizarte osoarentzako erronka da, beraz, baita eskolarentzako erronka ere.

⁴ Zenbait sektorek, batez ere euskal gizarteko sektore politikoek, eta bereziki espainiarrekoek, arrazismoaren, nazionalismoaren eta euskal identitatearen arteko lotura ezarri dute. Hau faltsua dela egiaztatzen dute datuek eta azterlanek (espainiarrek berek egindakoek ere bai). Alde batetik, euskal gizartearen errefusatzemaita txikiagoa da espainiarrena, frantziarrena eta europarrena baino, eta beste aldetik, euskal gizartearen barruan, alfabetatuta dauden euskal sektoreak dira enpatia-maila handien erakusten dutenak «hegoaldeko» herrialdeetako immigranteekiko (Albite, 2008, 71 orr.).

2.4.1. Aniztasunaren erronka, kulturartekotasunaren bidean.

Eskola gizartearen ispilu da, beraz, handik hasi daiteke aldaketa.

Ikasleen aniztasuna ikaragarrizko erronka da gaur egun Euskal Herriko ikastetxeetan. Ez bakarrik kultur aniztasunari dagokiona, baita gaitasun-aniztasuna, sexu-aukerena, hizkuntzena, erlijioarena...Aniztasunak hezkuntza-sistemaren oinarri asko kolokan jarri ditu. Ikastetxeak prestatuak daude gela bakoitzean duten errealitateari erantzuteko? (...) Aniztasunaren aurrean kokatzeko hainbat modu daude. Bizkarra ematea izan daiteke bat, eskolaren benetako funtzioan sinesten duen edonork onartu ezin duen modua, ordea. Beste bat zubiak eraiki nahi izatea izan liteke, "gu" eta "beraiek" "elkartzeko" zubiak eraikitzea, baina, nor da "gu"? Era nor "beraiek"? (...) Akaso ez al gara gu denok anitzak? (...) Akaso gu eta beraiek bereizi eta horien artean zubiak eraikitzeke lana hartu baino, ez ote da hobe denok gu izatea, bakoitza bere ezaugarriekin, ahalmenekin, nahiekin...? (Hik Hasi, 2013, NET.).

Eskolak eragin zuzena du haurren identitatean. Identitatearen eraikitze prozesu horretan identitateen arteko transferentziari ematen dio garrantzia Mario Ramirez Orozcok (2011), beti denen artekoa bada elkartrukatzeko hau. Ideia hau erabat desadostas dago kanpotik etorritakoak hemengoa xurgatu eta berea ahanzi behar izanaren ideiarekin.

Baina "aniztasuna aberasgarria da" gisako leloetan gelditzeak ere ez du asko laguntzen. Baliabideak, formazioa, pertsonala, behar dituzte ikastetxeek egoera horiek ondo kudeatzeko (...) Baita begirada inklusibo bat ere, hau da, ume bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartzea, eta bakoitzaren dohain eta gaitasunak ahalik eta hobekien garatu ahal izateko laguntzea (Hik Hasi, 2013, NET.).

Baina honen ordez, lehen aipatu moduan, ikasgeletan aniztasun kulturala arazo bezala hartzen da. Besteak beste, irakaskuntza eta ikaskuntza zailtasun bezala. Gure hezkuntza sistemak talde soziokultural desberdinen artean ematen den koexistentziak eragindako beharrei ez die behar bezala erantzuten eta erantzun desegoki honek minoria kulturekiko aukera desigualak mantentzea eragiten du (Morales, 2005, 11 orr. Nik itzulita). Hauek dira hezkuntza sisteman antzematen diren zenbait ahultasun (Ibid, 12 eta 25 orr. Nik itzulita):

- Irakaskuntzaren kontzepzio tradizionala. Eskola jakinduriaren iturri bakar bezala eta homogenizatzeko joera handiarekin.
- Eduki Curricular desegokiak. Perspektiba edo ikuspegi etnozentrismoa eta eurozentrismoa nagusi. Integrazioetik urruti dagoen eredu asimilazionista.

- Irakaslegoak aniztasun kulturalarekiko duen irudi desegokia, hala nola, irakas praktika aldatu behar ez duela, laguntza irakaslearen zeregina dela, gai batzuk sartzearekin nahikoa dela edota gainontzeko Curriculumetik aparte landu beharreko zerbait dela pentsatzea (honekin kutsu guztiz folklorikoa emanez eta gainontzeko kulturak desitxuratu eta estereotipatu).
- Ikasleak taldekatzean eta aukeratzean kontuan hartzen diren irizpide edo baldintza diskriminatzaileak.
- Eskola, familia, komunitate eta orokorrean ikasle anitzen inguru hurbilarekin ematen den lotura urria.
- Herrialdeen artean ematen diren gatazka armatu eta enfrentamenduei garrantzia eman eta elkar ulertze eta elkarbizitza baketsuak ez aipatzea.

Indarrean dagoen Hezkuntza Sistemak handinahikerian eta konfrontazioan hezten gaitu. Baina badago ere katastrofikoa edo gatazkatsua ez den historia, eta oso garrantzitsua da, honen inguruan ere hitz egitea. Chinua Achebe nigeriar idazleak “errelatoen oreka” deitzen dio honi (Adichiek aipatua, 2018, 24 orr. Nik itzulita). Eskolan ez da errelatoen arteko oreka hau lantzen, ez dugu historia bere osotasunean lantzen. Honekin lotuta, Chimamanda Adichie Ngozik ezagupena errelatu bakar batera murrizteak dituen arriskuez hitz egiten digu *El peligro de la historia única* liburuan (2018): “Errelatu edo historia bakarrak estereotipoak sortzen ditu, eta estereotipoen arazoa ez da faltsuak direla bakarrik, baizik eta ez direla osoak. Errelato edo istorio bat historia bakarra bihurtzen dute” (Ibid, 18-22 orr. Nik itzulita).

Gurera ekarriz, gainontzeko guztiak diren moduan, errealitate konplexu, poliedrikoa eta ertz askotakoa da gurea. Eskolan gutxi lantzen da euskaldunon historia eta lantzen denetan topikoak ageri dira: konkistatu egin gintuztela eta horregatik arrisku egoera edo egoera minorizatuan gaudela aipatzen da. Honekin ados nago, zapalduak izaten jarraitzen dugu, baina hau ez da euskaldunon historia osoa. Euskaldunak ere zapalduak ez ezik zapaltzaileak izan gara eta oraindik ere bagara. Konkistatuak izan izanaren ideia honek eta euskaldunon historiaren pasarte den euskal diasporari aipamenik ez egiteak ez dio mesede egiten pertsona migratzaileen errealitatearekiko ikuspegiari, berriro ere osoa ez den historia aurkeztu eta estereotipo eta aurreiritziez josiz. “Irakasleak, gizarteko beste pertsona guztiek bezala, barneraturik izan ditzaketen aurreiritziez hausnartzeko beharra dute, horiek ere eragina baitute ikasgelan” (Hik Hasi, 2013, NET.).

Orain arte, haurtzaroan errepresentazio historikoak sortzeko intentzioa duen lan pedagogikoa faltan da. Honek etorkizunean historiako subjektu eta ez objektu moduan parte hartu ahal izateko norbere errelatu propioak eratzea zailtzen du. (...) Haurrak ere historiaren subjektu dira eta ez objektu, hortaz, historiarekin esperimentatu beharra dute, haien norako edo etorkizunaren eratzean parte hartuz. (Chacón, 2009, 232-233 orr. Nik itzulita).

Horregatik da hain garrantzitsua ere emakumeon historiaren inbisibilizazio edo manipulazioarekin bukatzea eta ikasle guztiei subjektu aktibo sentiarazteko aukera ematea.

Julia Monge Sarabiak (2015), "La Educación, Memoria e Historia de las mujeres vascas: Lecturas feministas" liburua aurkeztean adierazi moduan: "Visibilizar a las mujeres como agentes activas en el proceso educativo supone apostar por un modelo de equidad" (Ibid, NET.). Hezkuntzan sustatzen ditugun edukiak ez dira tresna hutsak, erreferenteak dira.

2.4.1.1. Curriculumuma birplanteatu

MHH/GE inspirazioa duen munduak curriculumuma birplanteatu beharra dauka. "Kulturarteko Curriculum batek egungo gizarteak dituen erronkei erantzun beharra die, aniztasun kulturalak aurkezten dizkigun desfioei aurre egin" (Morales, 2005, 22 orr. Nik itzulita) eta ikasle guztiei zuzenduta egon. Teoria curricular soziokritikoa erreferente hartuz, Curriculum ulerkorragoa eta inklusiboagoa defendatu beharra dugu, praktika hezitzaile demokratiko eta berdinzaleak sustatuz (Connell, 1997 Moralesek aipatua, 2005, 20 orr. Nik itzulita).

Oinarrizkoa da jakituriaren transmisio eta eraikitzean aldaketa kualitatibo esanguratsuak egitea. Kulturarteko helburu, eduki eta metodologiak behar ditugu, planteamendu homogenizatzaile eta esentzialistetatik urruti eta aniztasuna eta errealitatearen pluralitatera orientatuak daudenak (Ibid, 20 eta 22 orr.). Kulturarteko helburuetako bat izango da "ikasleengan gizartearen ezagutzan perspektiba globalari erantzuten dioten balioak garatzea" (Nanni, 1994 Moralesek aipatua, 2005, 23 orr. Nik itzulita). MHH/GE bidean zerikusi handia du honek, hau da, ikaslea norberaren ekintzen erantzule, bai etorkizunerako bai mundu mailan bere ekintzek duten eraginaren kontziente izatea.

Ahalegin honetan lagungarria da euskal diaspora lantzea, guztion erantzunkizuna baita belaunaldi berriei gure kontestu geografiko eta historikoaren berri ematea eta gogoratzea euskaldunak munduan barna bizi garela. Migrazio eta internazionalizazio prozesuak euskal diasporan konstanteak izan dira, tradizio historiko luzea dute. Esan bezala, Vasconia migratzaileen harrera eta migratzaile jatorria izan da. Hala ere, euskaldunon esperientziaren dimentsio hau eta honek euskal ondare material eta ezmaterialean duen inplikazioa ezezagunak dira ikasleentzat, irakasleentzat eta, orokorrean, gure gizartean (Arregi eta Ugalde, 2014, 30 orr. Nik itzulita). Arregi eta Ugaldek (2014, 30-31 orr.) aipatutako esperientzia guztiz esanguratsua da: 2012-2013 ikasturtean Bilboko Magisteritza Eskolan "Gizarte Zientziak eta Hiritartasunerako Hezkuntza" ikasgaiko ikasleei emandako mintegian ikasleek euskal diaspora haientzako arlo berria zela aditzera eman zuten eta euskal historia eta munduan barna dauden euskaldunen errealitatearen inguruko ezagutza eskasa adierazi zuten.

Mundu globalean nazioartekora jo zuten euskaldunak desagertu egin dira gure oroimen kolektibo eta hezkuntza kontestuetatik. Historia lantzean ez da arbasoen historiari lekua uzten, gertukoak ez ditugun eta egungo egoerarekin inolako loturarik egin gabe, gutxi batzuen gertaera isolatuak besterik ez dira aipatzen. Nola liteke euskal ikastetxeetan euskal historiaren pasarte hau zeharka lantzea? Nola liteke ikasleek honen berri ez izatea? Horren berri izan gabe nola landu gaur egungo mundu globalizatuan hain garrantzitsua den nazioartekotasuna, identitate anitz eta konplexuak eta kulturarteko gaitasuna?

Informazio falta izan liteke euskal diaspora ez lantzearen arrazoi, baina azken urteotan asko ikertu da gaiaren inguruan. Euskal diasporaren inguruko ikerketa eta difusio lanaren adierazle da 2003an Euskal Gobernuak aurkeztutako Urazandi proiektua. Bilduma honetan ikusgai dugu Euskal Etxeen historia, Alberto Azuaren dokumentala, 1893 eta 1943 urte artean argitaratutako La Baskonia izeneko aldizkari eusko amerikanoa eta euskal diasporaren konformazioa, besteak beste, 19 liburu eta 134 aldizkari baino gehiagotan. 2007tik aurrera modu digitalean dugu Urazandi bai eta 2008tik aurrera eskuragarri dugu euskaletxeak.net espazio birtuala. Gainera, 1999an Douglass irakasleak euskal autoritateei migratzaile euskaldunen historiak bildu, berreskuratu eta publikatzeko gonbidapena egin zien (Ibid.). Beraz, eskuragarri ditugu euskaldun askoren bizi istorioak. Horien artean, migrazioarekin loturiko talka kulturala, diskriminazioa eta integrakuntzari buruzko informazio praktikoa asko aurkitzen dugu historialarien kodeetan harrapatuta.

Nabaria da informazio honen eskolarako transposizioa falta. Gure historia propioa, bere osotasunean, ezagutzeko beharra dugu gaur egungo errealitatea osotasunean eta modu kritikoan ulertu ahal izateko. Euskal Herriko migrazioan, gu gara “gu eta haiek” binomioarekin haustearen erantzule, gugandik abiatu beharra dauka aldaketak. Guztion erronka da hau, beraz, guztion artean aurre egin beharra diogu eta ez utzi erantzunkizuna besteengan.

Gure ikasgeletan eta inguruan presente dagoen aniztasun kulturalak, gure ikaskuntza, irakaskuntza eta harreman sozialak aberastu ahal eta behar ditu. Errespetatu eta zaindu edo mantendu beharreko eguneko ondarearen parte da (Morales, 2005, 18 orr. Nik itzulita).

Azken batean, guztion aniztasuna eta konplexutasuna aintzat hartzean datza. “«Bestea» bereganatzean eta «gu bezalakoak» bilakatzean oinarritzen den integrazioaren eredua baztertu, eta kultura anitzen arteko bizikidetzan eta elkar aintzat hartzean oinarritzen den «integrazio» eredua hartu behar dugu” (Albite, 2008, 56 orr.). Horretarako, elkarrekin partekaturiko esperientziak eta demokrazian oinarritutako proiektuak dira beharrezkoak. “Nolanahi ere, bizikidetzaren harmoniatsua eta arazorik gabekoa izango delako ideia baztertu egin behar da. Gure gizartean eta gure kulturaren ere badira arazoak, baina horiek ez dira oztopo akordioak lortzeko, helduago egiteko eta aurrera egiteko” (Ibid, 54 orr.). Ez ditugu zertan gatazkak baztertu, baizik eta modu positiboan eta sortzailean kudeatu. Horretarako,

ezinbestekoa da bizikidetzan, elkar ezagutzea eta partekaturiko proiektuak bultzatzea. Hala nola, Irurritako eskolan GU-bertokinak gorpuzteko asmoz burututako proiektua.

2.5. Aldaketa baten testigantza.

Idahon euskaldun kultura, estatuak ere bere aldetik jarri egin zuelako egin zuen aurrera. Hasieran euskaldunekiko zituzten aurreiritziak aldatuz joan ziren ongi pasatzen zekiten eta, aldi berean, langile peto fama hartuz joan zirenean. Euskaldunak estimatzen zituzten haien identitate etnikoarekiko harro zeudelako, baina, aldi berean, amerikanoak sentitzen zirelako. (...) 1909an “vascos negros, sucios, ambulantes, encerrados” argitaratu zuen Caldwell egunkariak. XX.mende bukaeran egunkari berak bestelako hauek zituen euskaldunekiko: “un vasco siempre será vasco, orgulloso, enérgico, seguro de sí mismo, aunque no olvide su condición de ciudadano americano. Y, gracias a ellos, América es mucho más rica” (Bieter eta Bieter, 2005, 179-180 orr. Nik itzulita). Honako esperientzia eredu bidean jarraitu beharra dugula ikusgai dago, aldaketa posiblea da.

3. HELBURUAK.

Lan honen helburu nagusia euskal diaspora lantzeak MHH/GE eta kulturartekotasun konpetentzian egin dezakeen kontribuzioa ezagutzera ematea da.

Hiritartasun Globala lortzea helburu duen hezkuntzak hiritar, kritiko, libre, justuak eta solidarioak hezi nahi ditu (De Paz Abril, 2007). Hortaz, zenbait balio landu nahi izan ditut: norberaren jarrerak besteengan duen eragina, empatia, errespetua, aniztasunaren aberasgarritasuna, elkartasuna, tolerantzia, koherentzia... Honen osagarri, kulturarteko konpetentzia garatu nahi izan dut, honela definitzen du Agvadok (2003):

“son las habilidades cognitivas, afectivas y prácticas necesarias para desenvolverse eficazmente en un medio intercultural”. Entre las habilidades cognitivas destacan el conocimiento de aspectos culturales propios y de otras personas; las habilidades afectivas responden a la curiosidad, apertura, voluntad de cuestionarse los propios valores o la empatía; finalmente las prácticas hacen referencia las destrezas comportamentales relacionadas con la interpretación desde diversas perspectivas y la capacidad de aprender y poner en práctica aspectos culturales (Bañosek aipatua, 2008, 80.orr).

Era berean, Meyer-ek (2000) kulturartekotasun konpetentzia jakinduria edo bagaje kultural propioa beste batzuekin batera barneratze gaitasuna eskatzen duela dio (Martínez-Lirolak

aipatua, 2018, NET. Nik itzulita). Zentzu honetan, Armstrong-ek (2006) proposatutako gaitasun sozialekin bat egiten du: “influentzia, komunikazioa, lidergoa, aldaketekiko irekiera, gatazken ebazpena, harremanen sorkuntza, elkarlana, kooperazioa, eta taldean lan egiteko gaitasuna” (Martínez-Lirolak aipatua, 2018, NET. Nik itzulita).

Hau guztia, kontuan izanik, ondoko **helburu espezifikoak** planteatzen ditut:

- Euskal diasporaren historia erabiliz historia erretrospektiboa lantzea.
- Euskal diaspora landuz MHH/GE korrontearen baitan esperientzia hezitzaileak gauzatzea.
- MHH/GE korronteak kulturarteko gaitasuna garatzeko duen kontribuzioaz jabearaztea.
- Gure historia ezagutzuz, gaur egungo mundua ezagutzea eta ulertzea.
- Pentsamendu kritikoa eta sortzailea garatzea, modu honetan jendarte lokal eta globalean era aktiboan parte hartuz eta errealitatea eraldatuz.
- Euskal diaspora landuz, kulturartekotasunari tokia eginez eta enpatia eraikiz gaur egungo elkarbizitza hobetzea.
- Nafarroako D ereduko zenbait eskolatan euskal diaspora lantzeari ematen zaion garrantzia eza salatzea.
- Jendarte parekidearen bidean aurrerapausuak ematea.

4. METODOA.

Ikerketaren galdera honakoa da: Laguntzen al dio euskal diasporaren historia ezagutzeak MHH/GE eta honekin loturiko kulturartekotasunerako gaitasuna garatzeari?

Galdera honi erantzun ahal izateko hainbat bide erabili ditut:

Hasteko, testuinguruan kokatu ahal izateko **ikerketa sozio historikoa** izan da bidea, honen emaitza da marko teorikoa. Horretarako, iturri anitzak erabili ditut: prentsa artikulua, artikulua akademikoak, liburuak, dokumentu historikoak...Gaia konplexua da anitzak baitira uztartzen dituen gaiak, hala nola, nazioarteko harremana, zuzenbidea, soziologia, historia, hezkuntza...Beraz, zaila izan da egindako bilaketaren laburpena egitea. Hala ere, hori da gure lana: konplexutasunean mugituz gaiari heltzeko hurbilketa koherentea eskaintzea.

Bestetik, **ikerketa kualitatiboaren** parte, euskal diaspora lantzeak egin dezakeen kontribuzioaren berri izateko oso baliagarria izan zait aurrerago azalduko dudana Iruritako eskolan egindako behaketa parte-hartzailea.

Era berean, euskal diasporak D ereduko eskoletan duen presentzia antzeman ahal izateko mesedegarria izan da Nafarroako bi ikastetxetan Lehen Hezkuntzako 3. zikloko bi irakasleri

egindako sakoneko elkarrizketa sasi-egituratua eta 38 ikasleri egindako galdetegia (ikus eranskinetan 50. orrialdean).

5. MARKO TEORIKOAREKIN LOTUTA, IRURITAKO ESKOLAN MARTXAN JARRITAKO PROIEKTUA ETA EMAITZAK.

5.1. Justifikazioa, zergatik Iruritako eskolan?

Aztertutakoaren arabera, Iruritako eskolan, ez da Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Curriculumaren helburuekin zein Giza Eskubideekin eta gizarte demokratikoarekin lotuta dagoen pertsona errefuxiatu eta migratzaileen auzia lantzeko behar den denbora eskaintzen. Guztiz ahaztuz Lehen Hezkuntzan edozein gaia lantzea posiblea dela, beti ere, testuinguruari eta ikasleei moldatuz. Gainera, Euskal Herriko zonalde honetan asko dira euskal diasporaren protagonista izandakoen familiakide. Honek aukera ematen du migrazioa hurbilagotik sentiarazteko. Baina, nahiz eta pertsona migratzaileen auzia gure egunerokotasunean egon, Iruritako ikasleek honekiko duten ezjakintasuna nabaria da.

Gehiago dira proiektu hau martxan jartzea beharrezkoa zela ikustarazi zidaten arrazoiak. Horien artean nagusia kultura aldetik aniztasuna ez dagoen eskoletan kulturartekotasuna lantzeko beharra. Eskolako 65 ikasleak, bat izan ezik, Iruritan sortuak dira, beraz, eskola mailan ez dago jatorriaren aldetik aniztasun handirik. Honek ez dio beste kultura edo beste jatorria duten pertsonenganako estereotipazioari inolako mesederik egiten. Honen adibide da, oso modu orokorrean hitz eginda, ikasleek ijitoenganako duten ezjakintasuna eta jarrera ezkorra. Aurreiritzi eta estereotipoak elkarbizitzeko oztopo dira guztiz, ezagutu aurretik ezagutzen zaitut premisaren pean botere harremanak sortzen dira. Iruritako eskolan ez dago beste kultura batzuetako (kultura berdinen barruan aniztasuna dagoela argi izanik) pertsonekin hartu emana gauzatzeko aukerarik, ez da kulturen arteko elkarrizketa ematen, ez dute elkar ezagutzen, beraz, zaila izango da urrun sentitzen duten horrekin enpatizatzea. Hala ere, aukera ona da norbere kultura analizatzen hasteko. Izan ere, kultura berdinen kideen arteko elkarrizketa eta autokritika beharrezkoa da aurrerapausuak emateko, beti ere, kultura guztiz dinamikoa dela eta kultura beraren baitan aniztasuna dagoela ulertuz.

Nabarmenak dira, era berean, ikasleen artean ematen diren jarrera sexistak. Hau arrazoi nahikoa izanik, kulturartekotasunarekin batera, pertsonen arteko parekidetasuna defenditzen duen hezkidetza espazio eta etapa guztietan lantzeko. Gainera, Iruritako eskolan hezkidetza plan bat burutzeko ahaleginetan ari dira, beraz, alde honetatik ere, une aproposa da planteatutako proiektua martxan jartzeko. Bereziki heziketa eremuetan esku hartze hezkidetzaileak egitean, lehenbiziko pausua dugu errealitatea analizatzea.

Jatorri aldetik ez, baina Iruritako eskolan anitzak dira ikasleak eta eskolatik kanpo bizi duten errealitatea ere anitza da. Guztion artean gizarte inklusibo bat eraiki nahi badugu ezinbestekoa da aniztasun hau era egokian kudeatzeko apostua eta ahalegina egitea. Lehenbizi mundu eta jendarte inklusibo batean sinetsi beharra dago, denontzako gizarte batekin amestu eta hau eraikitzekeo jardun. Indarrak desberdintasunak ezabatzeko moduan pentsatzen galdu beharrea guztion indarrak desberdintasunak dakartzaten aberasgarritasunaz baliatuz pertsona ezberdinek partehartu, elkarbizi eta haien artean ikasten ahal duten gizartea sortzeko erabili beharra ditugu.

65 ikasle besterik ez direla ikusita, proiektua proposatzean irakasleek izandako jarrera baikorra ikusita, eta gela ezberdinetako ikasleen arteko harremana egunero ematen dela ikusita, proiektua eskola mailan egitea planteatu dut. (Iruritako eskolako testuinguruaren inguruan informazio gehiago nahi izanez gero, ikus eranskinetan 55. orrialdean).

5.2. Proiektuaren helburuak eta esperotako emaitzak.

Hezkuntza gizartea eraldatzeko tresna edo bide moduan ulertuta Iruritako eskolan burututako esku-hartzearekin zenbait helburu izan ditugu:

- Euskal diaspora lantzeak hezkuntza komunitatean eragin dezakeen **kontribuzioa aztertzea**.
- Pertsona migratzaile eta errefuxiatuen inguruko **informazioa zabaltzea eta kontzientziazioa** handitzea, begirada zabaltzea.
- Euskal diasporari buruz dakigunaren **transposizio didaktikoa burutzea**. Historia erretrospektiboa lantzea, hau da, gaur egungo arazoa oinarri hartuz historian atzera egin eta euskal diaspora lantzea.
- Errealitate soziala ezagutu eta ulertze aldera aurrerapausuak ematea. **Hausnarketa** bideratzea eta pentsamendu kritikoa eta sortzailea garatzea.
- Pertsona migratzaileekin **enpatizatzekeo** nahia sortzea.
- Giza eskubideen berdintasunean oinarritutako **hiritar ahaldunduak hezte**a. Gizartearen parte direla eta eraldaketarako gaitasuna eta ardura haiengan ere dagoela ikustaraziz, gizartean era aktiboan parte hartzera animatzea.
- Tokian tokikoa eta Hezkuntza Globala uztartuz **Hezkuntza globalean** aurrerapausuak ematea.
- Euskal diaspora landuz eta kulturartekotasunari tokia eginez **elkarbizitza hobetze**a. Egoera historiko eta gaur egungoaren arteko aldeak bai eta herrialde, kultura, jatorri...desberdinetako pertsonen arteko **antzekotasun eta desberdintasunak identifikatzea**, modu honetan errespetua sustatuz eta aurreiritzi eta estereotipoak

deuseztatuz. Izan ere, “komunitate pluraletan elkarbizitzeko gai izango den hiritar globala hezteko diskriminazioaren oinarrian dauden aurreiritzi eta estereotipoen desegitea derrigorrezkoa da” (Ruiz, Doreste eta Mediero, 2016 11 orr. Nik itzulita).

- **Kulturarteko kompetentzia lantzea.** Aniztasuna aberasgarritzat duten eta elkarren arteko errespetua eta elkartasuna defenditzen duten ikasleak heztea.
- Pertsona eta gizarte eredu berria eta parekidea sustatzea, hau da, **hezkidetzan** hezteko saiakera egitea.

Laburbilduz, Munduko Hiritar Globala heztea jomuga, besteak beste, ondorengo gakoak izan ditugu kontuan (Oxfam 2006 oinarritzat hartuz Argibay, Celorio eta Celoriok berregina, 2009, 38 orr. Nik itzulita).

Taula 1. Hiritartasun Globalerako gakoak

| Gaitasunak | Jakintza eta ulermena | Balio eta jarrerak |
|---|--|---|
| -Pentsamendu kritikoa. -Argudioak era eraginkorrean emateko gaitasuna. -Justizia eta berdintasun ezari aurre egiteko gaitasuna. -Pertsona eta gauzekiko errespetua. -Kooperazioa eta gatazken ebazpena. | -Giza justizia eta parekidetasuna. -Aniztasuna. -Elkarrekiko menpekotasuna. -Garapen jasangarria. -Bakea eta gatazkak. | -Kontzientzia eta norberekiko errespetua. -Enpatia. -Gizarte justu batean sinestea eta pertsonak modu parekidean zaindu behar direlako ustea izatea. -Aniztasunarekiko errespetua eta mirespena. -Ingurumenarekiko erantzunkizunez jardutea. -Pertsonok eraldaketa sozialean era aktiboan parte hartu dezakegula sinistea. |

Proiektu hau bereziki Iruritako eskolako ikasleentzako pentsatuta dago, baina helburua **gainontzeko pertsoneri zabaltzea** da. Izan ere, “balioetan oinarritutako hezkuntza publikoak, hiritar arduratsuak sortzea helburu duenak, ezin du izan bakarrik irakasleen ardura. Helburua lortzeko familia, irakasle eta gainontzeko hezkuntza eragileen elkarlana beharrezkoa da (López, 2011 47 orr. Nik itzulita). Komunitatearekin lotura izatea ezinbestekoa da hezkuntza-eskaintza aldatzeko.

5.3. Proiektuan erabilitako metodologia.

- Metodologia guztiz parte hartzailea erabili dugu, ahal izan dugun heinean **partehartze orekatua** sustatuz. Ikaskuntza **aktiboa** izan da, guztiz dinamikoa ekintzaren bitartez ikaskuntza garatuz.

- Metodotzat Prattsek (2011) defendatzen duen **historia erregresiboa** erabili dugu, hau da, gaurkotasun handiko arazo batekin hasi eta historiara jo dugu arazo honen zergatiak ulertu ahal izateko. Kasu honetan, gaur egun eztabaida handikoa den gaiari heldu diogu: migrazioa.
- Metodo nagusi moduan **elkarrizketa** erabili dugu. Komunikazioa baitugu harremanen oinarria eta hauek indartzeko baliabide nagusia. Gatazkak behar bezala kudeatzeko ezinbestekoa dugu elkarrizketa eta, era berean, norbere burua aztertu eta behar bezalako autokritika egin ahal izateko beharrezkoa da barne elkarrizketa. Beraz, guztion iritzia entzuteko eta **galderak** elkartrukatzeko aukera izan dugu momentuoro.

Izan ere, Adriana Chaconek (2009) aipatu moduan, azpimarratzekoa da galderek gatazken ulermen eta ebazpenean duten eragina:

El arte de plantear preguntas provocadoras puede ser tan importante como el arte de dar respuestas claras (...) el arte de cultivar tales preguntas, de mantener las buenas preguntas vivas, es tan importante como cualquiera de los otros dos. Las buenas preguntas presentan dilemas, subvierten “verdades” obvias o canónicas, imponen incongruencias a nuestra atención (Bruner, 1997 Chaconek aipatua, 2009, 238 orr.).

- **Entzuketa aktiboa eta errespetua** izan dira ezinbesteko, beti ere hezkidetzaren paradigmari jarraituz neskatoei eta emakumeei presentzia emanaz eta ahaldunduz. Modu honetan, ikasle guztiek esperientzia eta haien ikuspuntua partekatzeko aukera izan dute uneoro.
- Ikasleak izan dira jardueren protagonista eta **jarduera esanguratsuak** planteatu ditugu ikasiz joan direna aurretik zekitenarekin lotuz eta egunerokotasunean ikasitakoari erabilgarritasuna eta balioa emanaz.
- **Modu kooperatiboan** jardun dugu. Nabarmena den lehiakortasunaren kontra, ikasleekin elkarlanean aritu gara jakintza eraikitzen.
- Jarduerak **ikasleen interesetara moldatuz** joan gara, haiei autonomia emanaz eta inor egin nahi ez zuen ezer egitera behartu gabe. Izan ere, “ikasleen beharrak kontuan hartzen ditugunean, norberan eta besteengan pentsatzen irakatsi eta harremantzen eta besteen lekuan jartzen trebatu, murgilduta gauden mundu globalarekin eta mundu globalean pentsatzeko eta jarduteko prestatzen ariko gara” (De Paz Abril, 2007 30 orr. Nik itzulita). Hori bai, ikasleek ekintzetan parte hartu nahi izanez gero, ardura batzuk izan dituzte.
- Ikasleek mundutar diren heinean, munduan ematen ari diren zenbait egoeren berri izateko aukera izan dute. Ikuspuntu glokaletik abiatuta, egoera batzuen aurrean

erantzunkizunez jardutearen aldeko apostua egin dugu. Izan ere, “MHH/GEk barne dauka aldaketarako ikastea, **transformaziorako ikastea**. Hau da, justizia eta solidaritatearen aldeko konpromezu eta jardutean orientatutako hezkuntza da” (De Paz Abril, 2007, 29 orr. Nik itzulita).

- **Hezitzaileen papera.** Hezitzaileok ikasleen hausnarketan eta egindako ekintzen **bidelagun** izan gara, inoiz ez gure iritzia egia bakarra bezala aurkeztuz eta haien hausnarketa propioak bultzatuz. Izan ere, Eva Martinezek (2016, 21 orr.) aipatu bezala: “no se trata de decir cómo hacer, sino de generar reflexión y análisis personal sobre nuestras creencias y procesos, y a partir de aquí compartir procesos de aprendizaje dirigidos no sólo al saber sino también al sentir”.
- Azkenik, eskolarekin sinergian joateko, **ikuspegi integratua eta disziplinarterkoa** izan du proiektu honek, jardueretan ikasgai desberdinetako gaitasun edo kompetentzia bat baino gehiago garatuz, hala nola: Geografia, Historia, idazketa eta irakurketa, Gorputz Heziketa... Jardueretan arkatza erdira eta irakurketa partekatua teknikak erabili ditugu, hauek baitira eskolan darabiltzaten metodologiaren parte.

5.4. Proiektua praktikara. Jardueren deskribapena.

2017ko azaroaren 10ean eman genion hasiera proiektu honi eta praktikaldiaren azken egunean eman genion, oraingoz behintzat, bukaera, urtarrilaren 26an hain zuzen ere (ikusgai eranskinetan proiektuaren data zehatzak, jardueren azalpen sakonagoa deituriko atalean).

Proiektu osoa Grezian dagoen Fatima izeneko haur migratzaile baten gutunen bitartez bideratu dugu (Fatimak bidalitako gutunak ikusgai eranskinetan, 4., 17., 20. eta 24. baliabideak). Iruritako ikasleen eta Fatimaren arteko zubia eraiki dugu modu honetan, hartu-emana sustatuz eta antzekotasunak nabarmenduz. Teorian landutakoa praktikara eraman ahal izatea eta pertsona migratzaileek bizi duten errealitatera hurbildu eta haiekin errazago enpatizatzea izan dira pertsonaia hau eta bere gutunak asmatu izanaren helburu.

5.4.1. Jarduera orokorrak.

Hiru jarduera orokor burutu ditugu Lehen Hezkuntzako 2. maila eta 6. maila bitarte. Txanda desberdinetan egin dugu, beti ere zikloaren arabera moldatuz.

Hasteko burua aurkeztu eta jardueretan errespetatu beharreko arau edo jarraibide batzuk komunean jarri genituen. Behin arau hauek adostuta, eta noski aldeztatik helburuak finkatuak, (ikus eranskinetan jarduera orokorren azalpen sakonagoa deituriko atalean, 60. orrialdean) jardueretan murgildu ginen:

1. Jarduera.

Hasteko, pixka bat berotzeko eta ernatzeko Zaindariaren jolasean aritu ginen Euskal Herria eta Frantziaren arteko muga simulatuz (ikus jolasaren azalpena eranskinetan, 1. baliabidea). Jolasa egin ondoren, borobilean eseri eta elkarrekin zenbait galdera planteatu genituen (ikus galderak eranskinetan, 1. baliabidea). Euskaldunek ezkutuan zeharkatu behar izan zituzten mugak izanda, ikasleek herrialdeen artean dauden mugen inguruan zituzten aurre ezagutzak identifikatzeko balio izan zigun.

2. Jarduera.

Egindako edo egitea gustatuko litzaikeen inguruko bidaia baten marrazkia egitea eskatu genuen bigarren jarduera honetan (ikus eranskinetan ikasleek egindako marrazkien zenbait adibide, 1. produkzioa). Marrazkia bukatutzat ematean, nahi izanez gero, gainontzekoei erakusteko proposatu genien. Bolondres guztiek haien marrazkien nondik norakoak azaldu eta gero, hurrengo galderak planteatu genituen (ikus galderak eranskinetan, 2. baliabidea).

Orduan azaldu genien haiek, Euskal Herrian sortu izateagatik, beste herrialde batzuetara joateko aukera edo ahalmen gehiago dituztela. Hau da, segun non jaio zaren edota segun nongo pasaporte duzun zailago edo errazago izango duzu beste herrialde batera joatea. Honen inguruko adibideak eman eta haien iritziak entzun eta gero, gaur egun jaioterria arrazoi desberdinengatik utzi behar izan duten pertsona asko dagoela jakinarazi genien, baina askori ez zaiela beste herrialde batera pasatzen uzten ari. Laburki, lekualdatzearen arrazoi ez mintzatu ginen (ikus eranskinetan, 7. baliabidea).

Bide batez, pertsona migratzailea zer den landu genuen nahiko modu sinplean azalduz: bere herrialdetik beste batera joatea erabaki duen pertsona da, baina ez oporretan baizik eta behartuta, hobeki eta bakean bizi ahal izateko besteak beste.

Greziar, pertsona migratzaile eta errefuxiatuak bizi diren kanpaleku batean egon nintzela kontatu nien orduan, eta han Fatima izeneko lagun bat egin nuela. Fatimaren historia kontatu nien (ikus eranskinetan, 3. baliabidea). Ondoren, dauden herrialdeetara iritsi ahal izateko gehienek jasan izaten dituzten bidaia luze eta gogorren inguruan solastu ginen, horretarako Fatimaren gutun bat irakurriz (ikus eranskinetan, 4. baliabidea). Gutuna irakurri eta gero, zenbait galdera erabiliz iritziak eta sententzioak elkarbanatu genituen (ikus galderak eranskinetan, 5. baliabidea).

Horren ondotik, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalen inguruan solastu ginen. Teorian, izaki orok (gogoan izan gabe zein den gure jaioterria, sexua, erlijioa...) ditugun eskubideak jasotzen direla azaldu genien, bertan ageri diren zenbait artikulua irakurri eta hauen inguruan solastu ginen (ikus landutako artikulua eranskinetan, 6. baliabidea).

Fatimaren historia ezagututa eta Giza Eskubideen berri izan eta gero, argi gelditu zen hauek ez direla unibertsalak, ez direla beti betetzen. Adibide moduan, haien herrialdetik alde egin

duen pertsonekin asiloa eta babesa eskatzeko eskubidea betetzen ez dela azpimarratu genuen. Ez zaie arriskuan dauden herrialdetik beste batera modu seguruan joaten uzten, ez zaizkie merezi dituzten eskubideak bermatzen.

Europak egoera honen aurrean duen jarrera azaldu genien laburki eta honen inguruko iritzia elkartrukatu genuen (ikus eranskinetan, 7. baliabidea).

3. Jarduera.

Hasteko, pertsona migratzailea⁵ gogorarazi genuen. Ondoren hamar bat panpin jarri genituen guztion begibistan, panpin guztien artean migratzaile bat zegoela esan eta identifikatzeko eskatu genien.

Ikasleek panpin migratzailea identifikatzean, zergatia eskatu genien zenbait galdera erabiliz (ikus galderak eranskinetan, 8. baliabidea). Argi gelditu zen panpinen artean edozein izan daitekeela migratzailea. Gure azal koloreak edo orokorrean ezaugarri fisikoek ez gaituztela migratzaile bihurtzen eta panpinekin bezala pertsonen artean ere gauza bera gertatzen dela, edonori gerta dakioken zerbait dela. Nor da etorkin? Noiz arte? Ideia hau ere luzatu genien, honen inguruan hausnartarazteko.

Orduan, nire birraitatik Perura joan behar izan zuela kontatu nien. Hemen, Euskal Herrian, bere familiak ez zuen dirurik seme-alaba guztiendako, beraz, hara joan zela lan egitera. Bera ere migratzailea izan zen. Une hori aprobetxatu genuen Euskal diasporaren berri emateko. Euskal Herritik at joan behar izan ziren milaka euskaldun izan zirela aipatu eta gaur egun munduan barna dauden Euskal Etxeen berri emanez (ikus eranskinetan, 16. baliabidea).

Haien familian migratu behar izan duen norbaiten esperientzia kontatzeko aukera izan zuten eta etxean galdetzeko proposatu. Horrela, migratu behar izanaren testigantzak partekatzeko aukera izan genuen, guztion artean joan etorri horien arrazoiak eta gaur egungo migrazioekin antzekotasunak ikusiz.

Aldi berean, emakumeei presentzia eman eta haiek egindako lana eta ahaleginak bisibilizatu genituen. Haien artean, Leah Manning aipatu genuen, bera izan baitzen beste askoren artean, 1936.urtean 3.840 haur euskalduni babesa ematea bideratu zuen emakumea (Naiz+, 2018). Era berean iragananean eta baita gaur egun ere emakumeek egindako lana eta ahalegina inbisibilizatzen dela mahai gainean jartzeko aprobetxatu genuen.

Parekidetasun eza honen eta aurreko jardueran azaldutako eskubide urraketen harira, hurrengoaz azaldu genien: oso pertsona anitzak bizi gara mundu honetan eta zoritxarrez guztiok ez ditugu eskubide berdinak. Nahiz eta oso desberdinak garela dirudien, munduko

⁵ Pertsona migratzailea: Lehen Hezkuntzako ikasleak direla kontuan hartuz, errefuxiatu eta migratzaile kontzeptuen konplexutasuna kontuan izanik eta euskal diasporaren kasuan kategoria biak nahasten direla kontuan izanik, ikasleekin migratzaile kontzeptua erabiltzea erabaki genuen. Baita gertutasuna areagotzeko, Iruritako eskola kokatzen den bailaran asko izan baitziren migratzaile euskal diasporan.

pertsona guztiok izan nahi dugu eskolara joateko, errespetatuak izateko, bakean bizitzeko, medikuarengana joan ahal izateko...eskubidea. Baina zoritxarrez, batzuek beste batzuek baino zailagoa dute eskubide horiek lortzea. Orduan, taldeka jarri ginen eta bakoitzari egoera bat eman genion. Egoera bakoitzean hau zen erantzun beharreko galdera: norentzako izango da errazagoa eskubide guztiak betetzea eta errespetatua izatea? (ikus egoerak eranskinetan, 9. baliabidea).

Guztion erantzunak komentatu genituen gero kasuz kasu. Hausnarketa galdera posible batzuen bitartez bideratuz eta bizitzan zehar, bai eskolan eta bai eskolatik kanpo, bizitako, entzundako edo ikusitako komentario eta jarrera diskriminatzaileak aipatuz (ikus eranskinetan erabilitako galderak, 9. baliabidea). Bukatzeko, parekidetasuna lortzeko elkar errespetatu eta zaindu behar garela argitu eta gero, gure jarreraren inguruan hausnartzeko zenbait galdera planteatu genituen (ikus galderak eranskinetan, 10. baliabidea).

5.4.2. Jarduera zehatzak.

Hiru jarduera orokor hauetaz aparte jarduera desberdinak burutu ditugu talde desberdinekin:

LHko 2. mailako ikasleei Fatima aurkeztu nienean esana nien asko maite duela ipuinak asmatzen jolastea (ikus eranskinetan, 3. baliabidea). Beraz, Fatimak asmatutako ipuina jarraituz, (ikus eranskinetan, 12. baliabidea) kamishibai bat egin genuen taldeka eta gainontzeko ikasleen aurrean irakurri zuten (ikus kamishibaien emaitza eranskinetan, 2. produkzioa eta egun hartako argazkiak, 1. argazkiak). Beste behin Euskararen Eguna aitzakia euskal diaspora sakonago landu genuen eta Argentinako Arrecifeseko euskal etxeari mezu bat bidali (ikus eranskinetan bidalitako mezua, 3. produkzioa). Praktikaldian berez egokitutako ikasgela izan zenez, haiekin egunez egun joan ginen gaia lantzen (ikus eranskinetan, 13, 14, 15 eta 16. baliabideak eta 2. argazkiak).

LHko 3. eta 4. mailako ikasleek Fatimaren beste gutun bat jaso zuten (ikus eranskinetan, 17. baliabidea). Bertan mundu osoko lagunak dituela azaltzen zien eta lagun bakoitzak zerbait berria erakusten diola, besteak beste jolas berriak. Munduko herrialdeetako jolasak liburuxka batean biltzea proposatu zien eta hala izan zen. Fatimaren laguntzarekin munduko jolasak bildu genituen (ikus eranskinetan, 18. baliabidea), jolas bilduma sortu, gainontzeko ikasle eta irakasleei erakutsi eta guztiok aritu ginen jolasean (ikus eranskinetan sortutako jolas bilduma, 4. produkzioa eta egun hartako argazkiak, 3. argazkia). Horrela, pertsona migratzaile eta errefuxiatuak Euskal Herrian bizitzeko aukera emateak dituen onurak eta kulturartekotasunaren aberastasunaz jabetzeko eta jolas berriak ezagutzeko

aukera izan genuen. Barneratuta ditugun jarrera etnozentrizen inguruan ere hausnartu genuen, gure ohitura eta mapamundiak aztertuz (ikus eranskinetan, 19. baliabidea).

LHko 5. eta 6. mailako ikasleek ere Fatimaren beste gutun bat jaso zuten (ikus eranskinetan, 20. baliabidea). Bertan bizi duten egoera salatzeko eta indarrak batzeko premia dagoela aipatzen zigun, besteak beste. Gaia sakonago landu genuen eta gure aldetik errealitate hau aldatzeko egin dezakegunaren inguruan hausnartu genuen. Ondoren, pertsona migratzaileek bizi duten egoeraren aurrean haien desadostasuna eta kezka adierazteko gutun bat idaztea eta ahalik eta gehien zabalzea erabaki zen (ikus eranskinetan, 21, 22 eta 23. baliabideak). Oraingoz hiru komunikabidetan eman dute egindakoaren berri: Ttipi-ttapan, Xorroxin irratian eta Ahotsan (ikus berria eranskinetan, 5. produkzioa). Bukatzeko, gure jarreraren inguruan hausnartu eta Pertsona Migratzaileen Eguna zela, denon artean elkartasun gutun bat idatzi genien (ikus eranskinetan, 6. produkzioa).

HHko eta LHko 1. mailako ikasleekin batera “Izeia eta Txantxangorria” ipuina landu genuen, zenbait galdera erabiliz guztion artean ipuinak erakutsi nahi digunaren eta gure ohiko jarreraren inguruan hausnartzuz (ikus eranskinetan 11. baliabidea). Fatimaren berri izan zuten eta janari bilketarekin batera bidaltzeko elkartasun txartelak apaindu genituen, bitartean hizkuntzen aniztasuna eta aberasgarritasunaz jabetuz.

Azaldutako jarduera hauen inguruan gehiago jakin nahi izanez gero, **ikus eranskinetan jardueren azalpen sakonagoa** deituriko atala. Bertan ageri dira jarduera bakoitzaren helburu zehatzak, iraupena, data zehatzak, erabilitako materialak, sorturiko produkzioak, ateratako argazkiak...

5.4.3. Jarduera osagarriak.

Aipatutako jardueraz gain, proiektuaren parte izan diren hainbat ekintza burutu ditugu:

- Azaroaren 27tik abenduaren 15era arte: Fatima eta bereziki Grezian guztiz blokeatuta gelditu diren pertsonen egoera ezagutzean, ikasleen kezketako bat jatekoa duten edo ez izan zela ikusita, Zaporeak proiektuarekin elkarlanean aritu gara eskolan burutu dugun janari bilketarekin. Zaporeak proiektua momentu honetan, besteak beste, Atenasen (Grezia) ari da lanean. Egunero 1.500 pertsonentzako sukaldatzen dute. Janariaren parte bat han erosten dute, baina hemendik bidaltzeak ere mesede handia egiten die.
- Abenduaren 15ean: janari bilketarekin batera bidaltzeko elkartasun txarteltxoak egin genituen “zuekin gaude” esaldia hizkuntza desberdinetan idatziz. HH eta LHko 1. mailakoekin gelan bertan egin genuen eta gainontzeko ikasleekin patioko orduan, nahi zuenak parte hartuz (ikus eranskinetan ikasleek egindako zenbait txarteltxo, 7. produkzioa).

- Abenduaren 18tik urtarrilaren 19 arte: Gabonetara begira, jostailu eta arropa bilketa bat egin genuen eta bildutakoa Bidelagun zerbitzuari eman genion.

- Abenduaren 18an, Pertsona Migratzaileen Eguna izanik, arratsaldeko saio batean patioan bildu ginen. Ikasleek azaldu zuten egun horretan bildu izanaren zergatia eta pankartaren leloekin (“Mugak zabaldu, open the borders” eta “ongi etorri, welcome”) adierazi nahi genuena. Nahi izan zuenak pankartarekin argazkia ateratzeko aukera izan zuen. Ateratako argazkien helburua ahalik eta gehien zabaltzea genuen, bai elkartasuna adierazteko eta bai eskolan gaia lantzea posible dela helarazteko (ikus eranskinetan, 4. argazkia).

- Urtarrilaren 26an: agurtzeko gelaz gela Fatimaren azkeneko gutuna irakurri genuen (ikus eranskinetan, 24. baliabidea) eta “eskubide guztiak guztiontzat” lelodun txapa bana oparitu genien ikasle bakoitzari (ikus eranskinetan, 25. baliabidea).

5.5. Proiektuaren ebaluazioa.

5.5.1. Ebaluazio bidea.

Proiektu honi bukaera emateko ezinbestekoa eta interesgarria ikusi dugu ikasleengan zenbaterainoko eragina izan duen eta ideia nagusiak bereganatu dituzten jakitea. Horretarako hainbat bide erabili ditugu:

Jarduerak burutu bitartean, kontzeptu- eta prozedura-edukiak zein neurritan bereganatu diren jakin nahian, azken emaitzaz gain, jarrerazko zenbait alderdi izan ditugu kontuan:

- Jarduerekiko ardura eta interesa.
- Jardueren antolakuntzan eta garapenean izan duen parte-hartzea eta motibazioa.
- Beste ikaskideekin lortutako elkarlan eta lankidetzajarrera.
- Taldean sortutako gatazkei emandako soluziobidea.
- Gaiarekiko sentsibilizazio maila.
- Gainontzeko iritzien aurrean bai eta desadostasunen aurrean adierazitako errespetu jarrera

MHH/GE hezteko bidean, Munduko Hiritar Globalak izan beharreko ezaugarriak izan ditugu gogoan, hala nola (Argibay, Celorio eta Celorio, 2009, 37 orr. Nik itzulita):

- Munduko hiritar den heinean munduan duen paperaz kontziente da.
- Aniztasuna balioetsi eta errespetatzen du.
- Bidegabekeriek sumintzen dute.
- Lokaletik globalerako bidean komunitatean parte hartu eta jarduten du.

- Mundu parekide eta jasangarriago baten alde jarduteko prest dago.
- Planteatutako ekintza hauetan erantzunkizunez jokatzeko du.

Baina ez da bakarrik ikasleen ebaluazio jarraia izan, proiektuaren ebaluazio jarraia ere izan da. Ikasleen jarreraren arabera eta irakasleen iradokizunei jarraituz proiektua moldatuz joan gara, haien interesetara hurbilduz.

Eskolako gainontzeko ikasle eta irakasleei egindakoa azaldu behar izan dietenean eta jardueretan eman dituzten azalpen puntualek ere landutakoa bereganatu den egiaztatzeko balio izan digu. Saio batetik bestera aurrekoan landutakoaren errepaso egiterakoan ulertutakoa azaltzen zuten eta zerbait erdizka ulertuz gero, berriz landu dugu.

LHko 5. eta 6. mailakoekin landutakoaren ulermen-maila egiaztatzea errazagoa izan zaigu sortutako gutunean ederki islatu egin zutelako.

Bestalde, proiektuari bukaera emateko galdetegi bat burutu dugu ikasgela bakoitzarekin ahoz eta guztion artean (ikus erabilitako galdetegia eranskinetan, ebaluazioa deituriko 1. atalean). Erantzunen bidez egiaztatu ahal izan dugu zenbait ideia nagusi bereganatu dituzten eta garrantzitsuena, haien sentsazioen berri izan dugu.

Azkenik, eskolako irakasle eta familien sentsazioak eta iradokizunak jaso nahi izan ditugu. Puntu bateraino egin ahal izan dugu familiek bilketetan izan duten erantzuna ikusiz eta irakasleek proiektuarekiko izan duten jarrera ikusiz, baina hala ere, ebaluazio batzar ireki bat egiteko gogoz gelditu gara.

5.5.2. Proiektuaren balorazioa.

Aipatutako ebaluazio bide anitzak erabilia, MHH/GE korronteak planteatzen duen hiritar globala den ikasle ekintzaile eta kritikoak hezteko bidean eta honekin batera errespetuzko jarrera garatze aldera aurrerapausoak eman ditugula esan genezake:

Pertsona migratzaile eta errefuxiatuen inguruko informazioa eta **kontzientziarioa handitu eta zabaltzea** genuen helburuetako bat, eta helburu hau lortuzat ematen dugu Irurritako eskolan ez ezik, familiengan, beste eskola batzuetan eta baita zenbait komunikabidetan mezua zabaltzeko gurasoen baimena behar izan dugu, eta honek nahiko atzeratu du gutuna nahi genuen bezainbeste zabaltzea.

Gizarte parekidea eraikitzea helburu, besteak beste, egunerokotasunean erreproduzitzen ditugun **jarrera eta aukera desorekatuen inguruko autokritika** egiteko balio izan die-lako sentsazioa daukagu, guztiei pentsarazi diegula esango genuke. Honen adibide, kamishibaietan aldaketa batzuk egin dituzte mutikoa edo neska den argi ez dagoen maitagarria eta larruazal kolore beltzaraneko printzesa bat marraztuz esaterako. Baina, hala ere, argi daukagu gutxinaka landu beharreko kontua dela hau.

Nolanahi ere, **aniztasuna aberasgarritzat duen eta parekidetasuna** defenditzen duen ikasleak hezteko pausuak eman ditugu. Hezkidetzarekiko hurbilpena suposatu duela pentsatzen dugu, hein batean norberaren identitatea aske garatzeko aukera zabaldu dugula.

Gainera, esan bezala, saioen bitartean landutakoaren errebaso bat egin dugu eta landutakoa **primeran ulertu** delako sentsazioa izan dugu. Azkeneko ebaluazio galdetegian jasotakoak gure sentsazioa ziurtatzeko balio izan digu, noski. Galdera guztiei zuzen erantzun zieten eta ikasitakoaren inguruan galdetzean honakoak izan ziren erantzunak: “mundua ez dagoela orekatua”, “herrialdeen artean harresiak daudela”, “gure jarrerarekin asko aldatu dezakegula”, “eskubide berdinak merezi ditugula, igual dela ze herrialdekoa zaren”.

Orokorrean hitz eginda, **gogotsu parte hartu** dute jardueretan. Interes handia jarri dute gehienek eta jarduerak gustukoak direla antzeman izan dugu, besteak beste, noiz jarraituko genuen galdetzen zutenean, jarduera bitartean pozik eta gogotsu ikustean eta zuzenean galdetu diegunean horrela esan baitigute. Migratzaileen egoera salatzen prentsa erabili nahi izan dute, **subjektu aktibo eta eraldatzaile** bihurtuz.

Talde lanean aritu behar izan dira, taldekideen iritzia entzun eta errespetatuz eta haien lanetan denek nahiak azaleratzeak dituen buruhaustek gaindituz. **Elkar entzuten eta guztion parte hartzea era parekidean sustatzen ahalegindu** dira. Gatazken kudeaketarako eta hartuemaneko harreman simetrikiko eta horizontalak izateko ezinbestekoa den komunikazio gaitasuna garatze aldera aurrerapausuak ikusi ahal izan ditugu. Modu kooperatiboan lan egiteak **elkarreraginean** ikastea suposatu du, gure artean zubiak eraikitzea azken batean.

Fatimak eta bere antzera beste haur askok bizi duten egoera latzarekin **enpatizatzeo nahia** adierazi dute haien **kezka azalaraziz eta, irtenbideak bilatu** nahian, milaka galdera eginez: zu Greziara joan bazara zergatik ez duzu ekarri? Kotxez ezin dira pasa? Eta hegazkinez? Eta hegazkina aeroportuan hartu beharrean beste leku batean hartzen badute?

Pertsonaia hau eta bere gutunak asmatu izanak bereziki haur migratzaileekin enpatizatzea erraztu egin du, bizi duten errealitatea 1. pertsonan ezagutu ahal izan baitute. Bide batez, haien arteko antzekotasunak antzeman ahal izan dituzte eta berarengandik asko ikasi ahal izan dute. Gainera, **elkarreragin** honek norberarena ez den kultura eta jatorri desberdinekiko jakinmina piztu eta areagotu egin du.

Jarrera honek **oso momentu hunkigarriak** biziarazi dizkigu. Izan ere, ikasle batek baino gehiagok aipatu du eskolan eta Iruritan badagoela Fatimarentzako lekua soberan eta beste ikasle batek bere aurrezkiak uzteko prest dagoela esan zuen behin. Euskal Herrian nahi dute Fatima eta bere egoeran daudenak eta bizi duten errealitatearen ezagutza honek pertsona migratzaileekiko duten aurreiritzia birplantearazi diela pentsatzen dugu. Honen adibideetako

bat da ikasle batek behin egindako marrazkia (ikus eranskinetan, 8. produkzioa) edo beste ikasle batek Fatimari idatzitako gutuna (ikus eranskinetan, 9. produkzioa).

Bereziki **kontent gaude ikasle baten kasuarekin**. Haren aita Marokon jaio zen. Orain arte ikasle honek nahiko isilpean zuen hau, baina jarduera hauek burutu ostean eta bere ikaskideek, besteak beste, arabierarekiko azaldu duten interesa ikustean aldaketa izugarria antzeman duela esan digu tutoreak. Aita beste herrialde batean jaio izana ez du aspektu negatibotzat ikusi behingoz. Arabiera ikasi nahi duela aipatu zuen aurrekoan eta Marokoko amatxi kontent dagoela horregatik. Behin, ikasle batzuk haien izenak alderantziz jartzen ari zirela konturatu ginen eta galdetzean Fatimak ulertzeko egiten ari zirela aipatu zuten. Hurrengo egunerako, Marokoko aita duen ikasle honek ikaskide guztien izenak ekarri zituen arabieraz idatziak, bere ikaskide guztiek miretsi zuten eta bere autoestimua gora egin zuen nabarmenki. Hau bezalako adibideak asko dira, hortaz, eranskinetan saioz saioa balorazioa dago ikusgai (ikus eranskinetan, ebaluazioa deituriko 2. atalean).

Bukatzeko, proiektuaren parte izan diren hainbat kontu aipatu nahiko genituzke, pertsona hauengandik jaso duguna proiektua baloratzeko erabilgarriak egin zaigu eta.

Jostailu, arropa eta janarien bilketek izan duten erantzuna izugarria. Ikasleak asko ahalegindu dira familiei mezua transmititzen eta jaso dugun erantzuna eskertzekoa izan da. Xorroxin irratan bilketaren berri eman izana ere eskertzekoa da, baita beste eskola batzuei mezua helarazi izana ere.

Jolastorduan elkartasun txarteltxoak egiteko bildu ginen egunean jaso genuen erantzuna ere paregabea izan zen. Nahi izan zuenak parte hartu ahal izan zuen. 65 ikasle dira osotara eta 64 txartel bildu genituen, beraz, parte hartzea handia izan zen.

Irakasleen partetik jaso dugun erantzuna, guztiz mesedegarria, aipatu nahiko genuke. Jarduerak proposatzeko eta aurrera eramateko aukera eman digute eta behar izan dugunean laguntzeko prest egon dira, bidelagun bihurtu dira. Gehiago hitz egiteko aukera izan dugun irakasleek lan handia egin dugula eta burututako proiektua oso interesgarria eta benetan mesedegarria eta beharrezkoa dela esan digute.

6. ONDORIOAK.

Iruritako eskolan nintzela konturatu nintzen euskal diasporaren gaia lantzeak benetan ikasleengan duen eraginaz. Beraz, arestian planteatutako galderari: laguntzen al dio euskal diasporaren historia ezagutzeak MHH/GE eta honekin loturiko kulturartekotasunerako gaitasuna garatzeari? Zera erantzungo nioke: Bai, modu anitzetan gainera, Globala eta lokala uztartze honek ikuspuntu Glokala jorratze bidean aurrerapausuak ematea eragin du.

Hasteko euskaldunak ere migratzaile izan garela eta oraindik ere bagarela jakiteak pertsona migratzaileekiko **irudia eta jarrera birplanteatzen** die ikasleei. Euskaldun migratzaileek bizi izandako esperientzien berri izateak gaur egun Euskal Herrira iristen ari diren pertsona migratzaileekin bestelako moduan jarduteko nahia azalarazi die. Ez ditzatela pasa nire arbasoek pasa behar izan zituzten egoera latzak.

Aldi berean, euskal diasporaren berri izateak pertsona migratzaileek dituzten jarrera batzuk ulertzea ahalbideratu die. Askotan esan ohi da ez dutela integratu nahi, haien artean daudela beti, ez dutela hemengoekin egon eta hemengoa ikasi nahi. Euskaldunok diasporan orokorrean izan dugun jarrera ezagutzeak, hala nola, Euskal Etxeen sorkuntza, pertsona migratzaileek duten jarrera honen arrazoiak birplanteatzea ahalbideratu die, haien errealitate eta beharretara gehiago hurbilduz.

Migrazioa hurbileko gaia kontsideratzeak, beste batzuen arazo ez ezik norberaren historiaren parte dela sentitzeak, mesede handia egin die pertsona migratzaileekin **enpatizatu nahian**. Gaur egungo egoera euskaldunon historiarekin lotzeak pertsona migratzaileen larruan jartzen lagundu die.

Euskaldunak munduan barna gaudela ezagutzeak mundu global edo hiritartasun globalaren ideia sustatu egin du ikasleengan. Migrazioa norberaren historiaren parte dela jakiteak edo beste modu batean esanda izakia betidanik lekualdatu dela jakiteak **guztion arteko lotura sentiarazi** die. Modu honetan, norberaren jarrerek mundu osoan duten eragina antzeman ahal izan dute, erantzunkizunez jarduteak duen garrantzia ezagutuz.

Euskal kultura, ohiturak, kirola, dantzak, hizkuntza...mantentzeko diasporan egin izan den eta egiten den ahaleginaren berri izatea hau dena baloratzeko modua izan da, beti ere **guztiona errespetatuz, baina identitate propioa mantentzeko** ahalegina egiteko apostua eginez. Euskaldunon historiaren inguruko eta egun Euskal Herritik kanpo bizi diren euskaldunen inguruko **mirespena eta jakinmina** piztu die.

Gainera, euskal diaspora lantzeak aukera eman digu, genero perspektibatik, emakumeak euskal diasporan ere ezinbestekoak izan garela azpimarratzeko eta ezagutarazteko. **Emakumeok historian zehar jasan izan dugun eta oraindik ere pairatzen dugun inbisibilizazio honi ahotsa emateak** ikasle askori euren burua subjektu aktibo eta eraldatzaile moduan irudikatzea ahalbideratu die. Izan ere, emakumeen presentzia eta protagonismoa kontuan hartzea oso lotuta dago boterearen garapenarekin eta jabeakuntza-prozesuarekin ere. Begoña Salasentzat (2003) protagonismoa identitatearen garapenarekin erabat lotuta dagoen balorea da, identitatearen garapenerako hain garrantzitsua den norbere buruaren baieztapenarekin, hain zuzen ere.

Horretaz gain, Euskal diasporaren protagonista izan diren batzuen testigantzen berri izateak **harrera duina posiblea dela erakusten digu**, Euskal Herria harrera herria bihurtzeko esperantza itzuliz.

Era berean **elkarbizitza hobetzeko** aurrerapasuak eman ditugu, izan ere, historia eta **kontakizun bakarretik haratago ezagutzeak** eskeintzen digun aukera dugu hau. Chimamanda Ngozi Adichieren (2018) esanetan: “Las historias se han utilizado para desposeer y calumniar, pero también pueden usarse para facultar y humanizar (...) cuando rechazamos el relato único, cuando comprendemos que nunca existe una única historia sobre ningún lugar, recuperamos una especie de paraíso” (28-29 orr.). Gainera Euskal diaspora lantzeak denbora historikoaren oinarriak, aldaketak eta ondorioak zein geografia lantzeko aukera paregabea eskaini du.

Irurritako ikasleek egin dituzten hausnarketa eta haien jarrera birplanteatu izana nahikoa izan da hezkuntzak duen eraldaketarako indarra eta, honekin batera, euskal eskoletan euskal diaspora lantzeak duen eragina argi uzteko. Enpatizatu, hurbildu, birplanteatu, galderak egin, elkar entzun, guztion arteko lotura sentitu, erantzunkizuna sentitu, mundutar aktibo eta eraldaitze sentitu, norberarekiko eta besteekiko mirespena eta jakinmina sentitu, emakumei ahotsa eman, harrera duina posible dela ikustea, kontakizun bakarretik haratago joatea...Nabarmenduz joan naizen honek guztiak egiten du posible kulturartekotasun kompetentzia garatzea eta, aldi berean, hiritar global erantzulea hezte.

Antzeman ahal izan dugunez, gurean abiapuntua izan daiteke euskal diaspora lantzea, tokian tokikoa eta esanguratsua zaigun afera hau Hezkuntza Globalarekin uztartuz, kulturarteko kompetentzian murgiltzeko.

7. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK.

Irurritako eskolan jorrotutako proiektua hobetze aldera, ikasleek egindako gutuna pertsona errefuxiatu eta migratzaileen eskuetara heltzea oso garrantzitsua ikusten dugu. Oso aberasgarria izan daiteke ez bakarrik elkartasuna adierazteko, baizik eta, bestelako hizkuntza, zaletasun, ohitura, familiak...dituzten hurrekin harremana egiteko ere. Aipatzekoa da, migrazioaren afera lantzerakoan migrazio honen kausak lantzeko gogoz gelditu garela, baina bai lanketa sakonagoa egin eta haratago joan ahal izateko eta bai pertsona errefuxiatu eta migratzailearen batekin harreman edo lotura hau lortzeko ere denbora gehiagoren premia sumatu dugu, beraz, hurrengo batean izan beharko da.

Aipatu moduan, eskola, familia eta komunitatearen arteko zubia indartzeko aukera izan dugu, familiekin eta hainbat komunikabide eta elkarterekin elkarlanean arituz. Baina, esan beharra daukagu, eskola, familien eta komunitate osoaren arteko zubia gehiago lantzeko

gogoz gelditu garela, parte hartzeko eta inplikatzeko aukera gehiago emateko gogoz. Izan ere, esaera afrikar batek dioen moduan: “haur bat hezteko herri osoa beharrezkoa da”.

Hala ere, nahiz eta lanketa gehiagoren premia nabaria izan (besteak beste, ijito komunitatearenganako estereotipo eta aurreiritzien lanketa) ikasleek adierazi eta garatu dituzten errespetuzko eta elkartasunezko jarrerekin oso pozik gaude, kulturarteko konpententzia garatze aldera aurrerapausuak eman ditugulakoan gaude.

7.1. Etorkizunera begira.

Zatikatua dugun Curriculumaren artean zubiak eraikitze bidea izan daiteke MHH/GE. Herri anglosajoietan hasiak dira, baina Euskal Herrian gutxi dira honetan dabilzanak.

Ikusi ahal izan dugun moduan, Euskal diaspora lantzeak MHH/GE eta kulturartekotasun konpetentziari egiten ahal dion mesedea nabaria da. Honen aldeko apostua egiteak Iruritako eskolan suposatu duen berrikuntza kognitiboa kontuan izanik, gainontzeko eskoletara zabaltzeko desioa pizten dit.

Gainera, Nafarroako bi ikastetxetan LHko 3. zikloko bi irakasle eta 38 ikasleri egindako sakoneko elkarrizketa sasi-egituratu eta galdetegitik ateratako ondorioek nahi hau areagotu egin didate, izan ere:

Alde batetik, bi **irakasleek** interesgarria eta garrantzitsua ikusten dute euskal eskoletan Euskal diaspora lantzea, biek ikusten dute gaur egungo mugimendu migratorioen eta Euskal diasporaren arteko lotura. Biek diote gai hau lantzeko momentu egokia dela, baten hitzetan: “oso egungo gaia da eta zeharka beste gai batzuk landu daitezke”. Gainera beharrezkoa ikusten dute: “egungo munduko egoera ulertzeko, gizartearen gorabeherak ezagutzeko eta kanpora bizitzera eta lan egitera joan behar izan direnekin eta hona etortzen diren kanpotarrekin enpatia sustatzeko”. Hala ere, biek onartzen dute orain arte ez diotela gai hau lantzeari berebiziko garrantzirik eman, zeharka agian bai, baina zehazki ezetz.

Bestetik, **ikasleen** erantzunei erreparatuz, esan genezake, orokorrean, agerian dagoela euskal diasporaren inguruko lanketa falta. Baina aldi berean, emandako erantzun guztiek aukera ematen digute jakinmina pizteko, hortik jarraitu eta gaien murgiltzeko (eranskinetan ikusgai galdetegitik ateratako erantzun eta ondorioak, 50. orrialdea).

Erantzun hauek direla medio, hurrengo erronka moduan, euskal diasporaren lanketaren bitartez kulturarteko konpetentzia eta MHH/GE-ren aldeko apostua eskola gehiagotan egiteko premia argi ikusten dut. Baina argi daukat, “erronka honen aurrean, hezkuntza formala ezin daiteke izan konpetentzia hauek garatzearen erantzule bakarra” (Baños, 2008, 77 orr. Nik itzulita). Hezkuntza komunitate osoaren babesa beharrezkoa da.

Berrikuntza handiko gaia, kulturartekotasunetik abiatuz Natur Zientziak eta Gizarte Zientziak uztartzeko proposamena.

MHH/GE inguruko eztabaida honetan ikuspegi berriak jorratzen ari dira, haien artean ikuspegi biomimetikoa aipatu nahiko nuke. Ikerketa hau burutzen ari nintzela migrante kolonbiar baten laguntzarekin aurkitutako gai berria izan da hau, Euskal Herria eta Amazonia lotzeko zubi moduan BIOMIMESIS erabiltzen ari da.

Ikuspegi biomimetikoa gure kontsumo ohitura eta ekoizpen jasangarriaren bitartez ingurumena zaindu eta bizi kalitatea hobetzeko erantzun berritzaileenetarikoa dugu (Collado, 2017, 40 orr. Nik itzulita). Janine M. Benyus idazleak "Biomimicry: Innovation Inspired by Nature" (2002) liburua plazaratu zuenetik biomimesia zientzia berri bat bezala hartzen da. Natura eredu, neurri eta aholkulari moduan behatu eta baloratu eta naturaren prozesuetan inspirazioa eta imitatzeko modua bilatuz sistema sozialetan aplikatzeko modua bilatzen du, eta modu honetan, arazo konplexuei (Garapen Iraunkorrerako Helburuei, esaterako) konponbide berritzaileak aurkitzeko modua (Ibid.).

UNESCOrekin harremanetan dagoen La RedPEA sarea honetan dabil. Lau ditu ikerketa gai: mundu mailako kezkak eta Nazio Batuen sistemaren papera; Garapen Jasangarrirako Hezkuntza; Bakea eta Giza Eskubideak; eta Kulturarteko ikaskuntza (Ibid, 47 orr.).

Goazen ikuspuntu globalak ematen digun jakintzatik indarrak batzen jarraitzera. Euskal Herriko eskoletan Euskal diasporaren bitartez MHH/GE eta honekin lotuta dagoen kulturartekotasun kompetentziari mesede egiteko bideak topatuta, Biomimesis ikuspegiak begirada gehiago zabaltzeko aukera ematen digu.

8. BIBLIOGRAFIA.

- Adichie, C. N. (2018). *El peligro de la historia única*. Espainia: Literatura Random House.
- Albite, P. (2008). Migrazioak, kultura aniztasuna eta estaturik gabeko nazioak. Euskal Herriaren erronkak. *Jakin*, (165), 31-73 orr. Berreskuratua: <https://www.jakin.eus/show/8e56a16ae9d6032137e6d93159d2f8dd8bfa0885>
- Alboan (2011). *Elkartasunean heitzeko baliabideak*. Berreskuratua: http://www.educacion.alboan.org/eu/materials/332/activities?category_id=1038
- Altzugarai, J. L., Arretxea, J. M., Arretxea, M. D., Elgarresta, M., Elizalde, A., Elizalde, I., Goldaraz, J., Jorajuria, J. M., Latasa, P., Santamaria, L. eta Zelaieta, F. (2006). *Sunbildarrak ameriketara (1898-1993): Sunbilla, pueblo de emigrantes*. Sunbilla: Diario de Noticias.

- Amnistía Internacional eta Giza Eskubideen aldeko eskola sarea (2010). *Mugimenduan dauden pertsonen Giza Eskubideei buruzko unitate didaktikoa*. Berreskuratua: <https://www.es.amnesty.org/unidades-didacticas/mugimenduan-dauden-pertsonen-giza-eskubideei/deskargatu/pdf/Unitate-Didactikoa-Mugimenduan-Dauden-Pertsonen-Giza-Eskubideei.pdf>
- Argibay, M., Celorio, G., & Celorio, J. J. (2009). *Educación para la Ciudadanía Global: debates y desafíos*. Vitoria-Gasteiz: HEGOA. Berreskuratuta: http://www.hegoa.ehu.es/articles/text/educacion_para_la_ciudadania_global_debates_y_desafios
- Arregi, J. I., eta Ugalde, A. I. (2014). Euskadi, un país de migraciones: Una propuesta de maridaje entre la interculturalidad y las TIC desde la didáctica de las ciencias sociales. In J.Pagés Blanch y A.Santiesteban Fernández (coord.), *Una mirada al pasado y un proyecto de futuro: investigación e innovación en Didáctica de las Ciencias Sociales* (29-36 orr.).
- Asensio, M. (2018, urriak 31). Kale gorriaren aurkako beroa. *Berria*. Berreskuratuta: https://www.berria.eus/paperekoa/1992/008/001/2018-10-31/kale_gorriaren_aurkako_beroa.htm
- Bantulá, J. eta Mora J. M. (2002). *Juegos multiculturales. 255 juegos tradicionales para un mundo global*. Bartzelona: Paidotribo argitaletxea. Berreskuratua: http://mansunidesvor.org/usuarios/material/arxiu/19_1_Juegosmulticulturales.pdf
- Bieter, J. P., & Bieter, M. L. (2005). *Un legado que perdura: la historia de los vascos en Idaho*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Cabrera, E. (2010). *Juegos tradicionales infantiles del Mediterráneo*. Alicante: Casa Mediterráneo. Berreskuratua: http://carei.es/fich/juegos_mediterraneo2.pdf
- Calavia, M. (2011). *4 esquinitas de nada* [Internet]. Berreskuratua: https://www.youtube.com/watch?v=DBjka_zQBdQ
- Chacón, A. (2009). Propuesta pedagógica y didáctica para la construcción de pensamiento histórico a partir del pensamiento narrativo en niños y niñas entre 5 y 7 años de edad. In *La investigación al servicio de una educación incluyente y de calidad en un mundo diverso y globalizado*. II. Nazioarteko Kongresuan (VII. mintegi nazionala) egindako sinposioa. Kolonbiako Unibertsitate Nazionala, Bogota. Berreskuratua: http://www.ub.edu/histodidactica/images/documentos/pdf/investigacion_educacion_pedagogia_formacion_docente.pdf
- Ciordia, A., Gacho, I., Giráldez, J. eta Rico, A. (2017, urriak 27). Itziar Ruiz Giménez: “En Europa hay una batalla sobre quien tiene derecho a tener derechos”. *Zabaldi*, 63-73 orr.

- Collado, J. (2017). Biomimesis: Un abordaje transdisciplinar a la educación para la ciudadanía mundial. RIDAS, *Revista Iberoamericana de Aprendizaje Servicio*, (3), 35-54 orr. Berreskuratuta: <http://repositorio.unae.edu.ec/bitstream/123456789/94/1/Texto.pdf>
- Comunicación Poder Judicial (2018, azaroak 8). El juez absuelve al portero de un bar de Pamplona acusado de no dejar entrar a un cliente por ser de etnia gitana. *Poder Judicial España*. Berreskuratuta: http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder-Judicial/Tribunales-Superiores-de-Justicia/TSJ-Navarra/Noticias-Judiciales-TSJ-Navarra/El-juez-absuelve-al-portero-de-un-bar-de-Pamplona-acusado-de-no-dejar-entrar-a-un-cliente-por-ser-de-etnia-gitana?fbclid=IwAR0pujIASIhV4tw5LMIPCEJVWbKq_uSocuX0TB3ZRUIPX6hQo0A_syQypng
- De Paz Abril, D. (2007). *Escuelas y educación para la ciudadanía global: una mirada transformadora*. Espainia: Intermón Oxfam argitaletxea. Berreskuratuta: <https://intered.org/pedagogiadeloscuidados/wp-content/uploads/2017/06/A0400107-1.pdf>
- De Pina Castiglione, D. (2017, azaroak 6). Cuentos viajeros: ocho historias narradas por niños refugiados. *El salto diario*. Berreskuratuta: <https://www.elsaltodiario.com/mapas/cuentos-viajeros-8-historias-narradas-por-ninos-refugiados>
- Douglass, W. A. (2003). *La Vasconia global: ensayos sobre las diásporas vascas*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Berreskuratuta: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/06_urazandi_coleccion/es_712/adjuntos/urazandi02.pdf
- EFE (2018, urriak 14). La crisis frustró proyectos vida de empleadas domésticas migrantes en España. *La Vanguardia*. Berreskuratuta: <https://www.lavanguardia.com/vida/20181014/452345288426/la-crisis-frustro-proyectos-vida-de-empleadas-domesticas-migrantes-en-espana.html>
- Eitb.eus (2018, azaroak 17). Bardeako eremuak ekintza militarri eutsiko dio beste 10 urtez, protestak gorabehera. Berreskuratuta: <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/osoa/5998697/bardeako-tiroeremuak-ekintza-militarri-eutsiko-dio-beste-10-urtez/>
- Eitb.eus (2019). Investigan una agresión verbal racista en un autobús urbano de Vitoria. Eitb.eus. Berreskuratuta: <https://www.eitb.eus/es/noticias/sociedad/detalle/6117353/agresion-verbal-racista-autobus-urbano-vitoria-9-enero-2019/>

- Europa Press (2017, urtarrilak 23). Podemos tacha de "racistas y violentas" las declaraciones del economista José Carlos Díez sobre migración y renta básica. *Europa press*. Berreskuratuta: <https://www.europapress.es/madrid/noticia-podemos-tacha-racistas-violentas-declaraciones-economista-jose-carlos-diez-migracion-renta-basica-20170123150401.html>
- Fernandez, J. (2018, apirilak 22). "La falta de credibilidad de las mujeres y el rechazo a las personas inmigrantes forman parte de un mismo proceso". *Pikara online magazine*. Berreskuratua: <https://www.pikaramagazine.com/2018/04/dolores-juliano-tomar-la-palabra/>
- Fuentes, J. eta Iglesias, B. (2006). *Eguzki katua*. Espainia: Kamishibai Siete Leguas.
- Gabilondo, R. (2018, martxoak 25). La vida 'esclava' de las internas en Gipuzkoa. *Noticias de Gipuzkoa*. Berreskuratuta: <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/2018/03/25/sociedad/la-vida-esclava-de-las-internas-en-gipuzkoa>
- Goitiz, G. (2016). *Atxuerrefuxiatuekin* [Internet]. Berreskuratuta: <https://www.youtube.com/watch?v=3kOtlTBws8U&t=11s>
- González de Uriarte, N. (2014, uztailak 16). Maroto: "Los inmigrantes magrebíes vienen a vivir de las ayudas sociales". *El diario norte Euskadi*. Berreskuratuta: https://www.eldiario.es/norte/euskadi/sociedad/oposicion-alcalde-Maroto-partidista-inmigracion_0_282072027.html
- Gorriti, I. (2017, abuztuak 7). 'Laurac Bat', el germen vasco de América. *Diario de Noticias Álava*. Berreskuratuta: <http://www.noticiasdealava.eus/2017/08/07/sociedad/laurac-bat-el-germen-vasco-de-america>
- Guida Al-lès (2006). *Juegos para la educación intercultural*. Berreskuratuta: <https://recursosdidactics.files.wordpress.com/2007/10/integracion-exclusion-rechazo-prejuicios.pdf>
- Hik Hasi (2013, abenduak 1). Aniztasunaren kudeaketa. Arrakastarako giltza zentroak berak dauka. *Hik hasi*. Berreskuratuta: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20131201/aniztasunaren-kudeaketa-arrakastarako-giltza-zentroak-berak-dauka>
- Hik Hasi (2006, maiatzak 1). Kamishibai: Japoniako ipuinak...euskaraz. *Hik hasi*. Berreskuratuta: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20060501/kamishibai-japoniako-ipuinakeuskaraz>
- Huntington, S. P. (2002/1993). *¿Choque de civilizaciones?* Madrid, España: Tecnos
- lavarone, L., Durso. R. (Fanpage.it). (2016). *Doll Test - Los efectos del racismo en los niños* [Internet]. Berreskuratuta: <https://www.youtube.com/watch?v=qGDvt4yKTIIM>

- Ikuspegi (2018). *Barómetro 2017. Percepciones y actitudes hacia la población de origen extranjero*. Berreskuratua: http://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2017/bar_2017casOK.pdf
- InfoLibre (2015, urriak 20). Marine Le Pen, al banquillo por declaraciones racistas. *InfoLibre*. Berreskuratuta: https://www.infolibre.es/noticias/mundo/2015/10/20/le_pen_afirma_que_juicio_sobre_sus_comentarios_xenofobos_una_quot_persecucion_quot_del_gobierno_39472_1022.html
- Kindersley, B. eta Kindersl, A. (1995). *Ni bezalako haurrak*. Madril: Bruño argitaletxea.
- Kohan, M. (2018, maiatzak 22). Sombras y silencio sobre la situación de las mujeres trabajadoras de la fresa en Huelva. *Público*. Berreskuratuta: <https://www.publico.es/sociedad/mujeres-fresa-sombras-silencio-situacion-mujeres-trabajadoras-fresa-huelva.html>
- Larrañeta, A. (2018, otsailak 22). Ignacio Robles, bombero expedientado: "No quise ser cómplice del envío de armas a Arabia Saudí y me planté". *20 minutos*. Berreskuratuta: <https://www.20minutos.es/noticia/3269138/0/bombero-expedientado-bilbao-armas-arabia-saudi-ignacio-robles/>
- Larraz, R. (2016). *Dinámicas de interculturalidad y convivencia*. Cuaderno Intercultural. Berreskuratuta: <http://www.cuadernointercultural.com/dinamicas-y-juegos/interculturalida/>
- López Melero, M. (2011). Barreras que impiden a la escuela inclusiva y algunas estrategias para construir una escuela sin exclusiones. *Innovación educativa*, (21), 37-54 orr. Berreskuratuta: https://minerva.usc.es/xmlui/bitstream/handle/10347/6223/pg_039056_in21_1.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Marcos, J. (2018, maiatzak 12). Estos derechos humanos no son los de todas. *Pikara online magazine*. Berreskuratuta: <https://www.pikaramagazine.com/2018/12/70-aniversario-derechos-humanos/>
- Martínez, E. (2016). Guía: educar contra el racismo y la discriminación. *Aula Intercultural*. Berreskuratuta: <http://aulaintercultural.org/2017/02/08/guia-profesorado-para-educar-contr-el-racismo/>
- Martínez-Lirola, M. (2018). La importancia de introducir la competencia intercultural en la educación superior: Propuesta de actividades prácticas. *Electrónica Educare*, 22(1). Berreskuratuta: <https://www.redalyc.org/jatsRepo/1941/194154980002/html/index.html>
- Matia, G. (2016). *El caso de Lorenzo* [Internet]. Berreskuratuta: <https://www.youtube.com/watch?v=5pUmAOTQqCg>
- Médicos Sin Fronteras en México (2017). *El acuerdo entre la UE y Turquía: una explicación* [Internet]. Berreskuratuta: <https://www.youtube.com/watch?v=E1QsTmMZP4>

- Monge, J. (2015, urriak 9). La Educación, Memoria e Historia de las mujeres vascas: Lecturas feministas. *Mugalari*. Berreskuratuta: <http://mugalari.info/opinion/la-educacion-memoria-e-historia-de-las-mujeres-vascas-lecturas-feministas/>
- Montoya, R. (2017, irailak 26). Se acabó el tiempo: Rajoy incumple la cuota y pide recibir menos refugiados. *El salto diario*. Berreskuratua: <https://www.elsaltodiario.com/el-lado-oculto-de-la-noticia/rajoy-suspende-tambien-ante-los-refugiados>
- Morales, R. G. (2005). Cambios curriculares en Ciencias Sociales para responder a la multiculturalidad. In C. García, E. Gómez, M^a.D. Jiménez, J.M^a. López, J.M. Martínez y C. Moreno (Eds.), *Enseñar Ciencias Sociales en una sociedad multicultural: Una mirada desde el Mediterráneo* (305-344). Almería: Universidad de Almería. Berreskuratuta: http://www.didactica-ciencias-sociales.org/simposios_fichiers/SimposioAlmeria_archivos/SimposioAlmeria%20Galindo.pdf
- Eusko Jaurlaritz (eguneratua). *Euskal etxeen zerrenda*. Munduko euskal etxeen ataria. Berreskuratua: https://www.euskaletxeak.net/index.php?option=com_content&task=view&id=140&Itemid=191
- Naiz+. (2018, abenduak 5). Leah Manning, la heroína que salvó a 3.840 niños vascos. *Naiz+*. Berreskuratuta: https://www.naiz.eus/eu/info_naizplus/20181205/leah-manning-la-heroína-que-salvo-a-3-840-ninosvascos?fbclid=IwAR3h1beWgh10C9RM5mAU0ebnB29W7iRJE0SNROmCFp085YgkHar-8zLZAJQ
- NAO (2014, irailak 5). Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Curriculum. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, NAO. Berreskuratuta: http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/DC9FD764-A71A-4920-851D24BB2C653B6F/0/F1410295_LehenHezkuntzako.pdf
- Noticias de Navarra (2018, urriak 11) Laboreo: “Hay niños que llegan a la enseñanza pública desde la patera y se comen los lápices”. *Noticias de Navarra*. Berreskuratuta: <https://www.noticiasdenavarra.com/2018/10/11/sociedad/navarra/laboreo-hay-ninos-que-llegan-a-la-ensenanza-publica-desde-la-patera-y-se-comen-los-lapices>
- Olaetxea, J.A. (Tripulante) (2016). *Neskatoak* [bideoa]. Espainia.
- Oregi, B. (2007-2008). *Euskal kulturaren transmisioa diasporan XXI. mende hasieran* (Gradu-ondokoa). HUHEZI, Mondragon Unibertsitatea. Berreskuratuta: <http://www.euskonews.com/0493zbn/artikuluak/kosmo49301.pdf>
- Ormazabal, J. (2010). *Izei txikia*. Donostia: Elkarlanean, S.L. argitaletxea.
- Petxarroman, I. (2015, irailak 9). Ekialde Hurbiletik gurera. *Berria*. Berreskuratuta: https://www.berria.eus/albisteak/114478/5000_urte_inguruko_herria.htm
- Prats, J. (2011). *Geografía e historia. Complementos de formación disciplinar*. GRAO.

- Ramirez de Okariz, A. (2018, azaroak 3). Nola hezi hesietatik haratago. *Berria*. Berreskuratuta: https://www.berria.eus/paperekoa/1959/002/001/2018-11-11/nola_hezi_hesietatik_haratago.htm
- Ramírez-Orozco, M. (2011). De la multiculturalidad a la identidad sutil: Una propuesta para la transferencia identitaria. *Revista CIDOB D'Afers Internacionals*, (93-94), 261-277 orr. Berreskuratuta: https://www.cidob.org/articulos/revista_cidob_d_afers_internacionals/93_94/de_la_multiculturalidad_a_la_identidad_sutil_una_propuesta_para_la_transferencia_identitaria
- Reparaz, M. (Etb). (2016). *La mayoría de la comunidad vasca en Nevada apoya a Donald Trump* [Internet]. Berreskuratuta: <https://www.eitb.eus/es/noticias/internacional/videos/detalle/4472342/video-la-comunidad-vasca-nevada-apoya-donald-trump/>
- Ruiz, C. R. G., Doreste, A. A., eta Mediero, B. A. (2016). *Deconstruir la alteridad desde la Didáctica de las Ciencias Sociales: educar para una ciudadanía global*. Madrid: Entimema. Berreskuratuta: <file:///C:/Users/user/Downloads/DialnetDeconstruirLaAlteridadDesdeLaDidacticaDeLasCiencia-653054.pdf>
- Sagarzazu, J. (2018, azaroak 2). Adingabeen etorrerak itota. *Berria*. Berreskuratuta: https://www.berria.eus/paperekoa/1905/002/001/2018-1102/adingabeen_etorrerak_itota.htm
- Tejedor, O. (Sonora Estudios). (2016) *En tránsito* [Dokumentala]. Espainia.
- Toticaguena, G. (2003). *Diáspora vasca comparada: etnicidad, cultura y política en las colectividades vascas*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Berreskuratuta: http://www.euskadi.eus/web01s1leheki/es/contenidos/informacion/06_urazandi_coleccion/es_712/adjuntos/urazandi01.pdf
- Txatxilipurdi elkarte (d.e.). *Munduko jolasak*. Berreskuratuta: <http://www.txatxilipurdi.com/munduko-jolasak/>
- UnescoEtxea (eguneratua). *Garapen Iraunkorrerako Helburuak*. (Unesco Etxearen webgunea). Berreskuratuta: http://www.unescoetxea.org/base/lanarloak.php?id_atala=16&id_azpiatala=13155&hizk=eu
- UNHCR (2018). *Global Trends Forced displacement in 2017*. Berreskuratuta: <https://www.unhcr.org/5b27be547.pdf>
- Vilà Baños, R. (2008). ¿Cómo educar en competencias interculturales? una alternativa a la educación formal. *Revista De Estudios De Juventud*, (80), 77-93 orr. Berreskuratuta: www.injuve.es/sites/default/files/revista-80-capitulo-5.pdf
- VOX (2018?). 100 medidas para la España viva. Berreskuratuta: https://www.voxespana.es/biblioteca/espana/2018m/gal_c2d72e181103013447.pdf

9. ERANSKINAK.

9.1. Egindako sakoneko elkarrizketa sasi-egituratua eta galdetegia.

9.1.1. Irakasleei egindako elkarrizketaren eredia.

1. “Negros, sucios, ambulantes, encerrados”. Nori buruz hitz egiten ari direla uste duzu (arabiarrek, latinoak...)? Entzun dituzu inoiz norbaitenganako antzeko kalifikazioak?
2. 1909an Estatu Batuetako Caldwell egunkariak argitaratutako hitzak dira hauek: “vascos negros, sucios, ambulantes, encerrados”. Nola sentitzen zara? Esperientzia honek zerbait pentsarazi dizu?
3. Historia eta Gizarte Zientziak landu dituzunean, landu ahal duzu noizbait euskal diaspora ikasleekin? Nola landu duzu? Zein izan da zure helburua? Zein izan da ikasleen jarrera gai honekiko?
4. Interesgarria edo garrantzitsua iruditzen zaizu euskal eskolan euskal diaspora lantzea? Zergatik?
5. Gaia hurbila da ikasleentzat?
6. Zertan lagundu dezake euskal diaspora lantzeak?
7. Landu ahal duzu noizbait gaur egungo mugimendu migratorioen egoera eta nondik norakoak? Nola? Zein helbururekin? Zein izan da ikasleen erantzuna?
8. Interesgarria iruditzen zaizu bi mugimendu hauen arteko paralelismoa lantzea?
9. Momentu egokia iruditzen zaizu gai hau eskolan lantzeko?

9.1.2. Ikasleei egindako galdetegiaren eredia.

1. Kaxianoren “Itsasontzi baten” abestia entzun eta galdera hauek erantzun:

Abestiaren hitza:

Itsasontzi baten

Euskal Herritik kanpora

naramate eta ez dakit nora. (bis)

Agur nere ama

laztan goxoari

*agur nere maite politari
ez egin negar
etorriko naiz
egunen baten
pozez kantari*

Itsasontzi baten...

*Agur senideak
agur lagunari
agur Euskal Herri osoari.
Ez egin negar
etorriko naiz
egunen baten
pozez kantari*

*Gora Euskal
Herri Gora
Euskal Herri
Gora Euskal Herriari.*

- Nor da itsasontzitik hitz egiten diguna?
- Nola sentitzen da?
- Nora doa? Zergatik?
- Euskal Herriko historian noiz kokatzen duzue abesti hau?

2. Bilintx-en “Ameriketara joan nintzan” abestia entzun eta galderak erantzun:

Abestiaren letra:

*Ameriketara joan nintzan
zentimorik gabe
handik etorri nintzan maitia
bost miloien jabe.
Txin, txin, txin, txin,*

diruaren hotsa,

harekek ematen dit maitia

bihotzian poza. (Bis)


- Zergatik dio Ameriketara joan zela?
- Zuk uste duzu bera bezala jende gehiago joan zela?
- Ezagutzen duzu Ameriketara joandako norbait?

3. Euskaldun izatearen definizio tradizionalak honela dio: euskalduna Euskal Herrian jaio, arbaso euskaldunak dituena eta euskaraz mintzatzen dena da. Uste duzu posible dela baldintza hauek betetzen ez dituen pertsona bat euskaldun sentitzea?

4. Euskal Herrian jaio ez den norbait, baina momentuan Euskal Herrian bizi dena euskaldun sentitu daiteke?

5. Euskaldun guztiak Euskal Herrian bizi dira?

6. Non bizi dira euskaldunak? Adierazi mapa honetan.



7. Nongoa da zure familia?

8. Inoiz entzun al duzu familiakoren bat kanpoan bizi dela edo kanpora joan behar izan zela?

9. Artzaien etxea. Badakizu zer den hau? Nork eta non erabiltzen zuen?



10. Idahoko (Amerika) ikastolan euskara lantzen da. Zergatik izango da hori?

11. Euskal Etxeak. Badakizu zer diren? Nortzuk izan ziren sortzaileak?

12. Argentinako hainbat kalek euskal izenak dituzte, honen adibide da Buenos Aires probintzian dagoen Jose Antonio de Aguirre kalea (Errepublika garaiko Euskaldiko lehendakaria). Zer dela eta hau?

13. Pilotaria Kaliforniako frontoian. Nolatan euskal pilota Kalifornian?



14. Ezagutzen duzu beste herrialde batetik etorri den norbait? Harremana duzu berarekin?

9.1.3. Ikasleei egindako galdetegitik ateratako erantzun eta ondorioak.

- Hasteko, migrazioaren kausetako batzuk aipatzeko gai izan dira, hala nola, gerratik ihesi egitea, lana aurkitzeko nahia, bizitza hobetu nahi izatea, behartutako migrazioak...Ameriketara migratu izanaren arrazoiaren artean lanaren inguruan hitz egin dute gehienek.

- Amerikara joandako norbait ezagutzen duten ere galdetu zaie eta nahiko berdintsu egon da kontua. Ez dakit ze puntu arte ulertu duten oporretan joan direnak aipatu baidituzte, baina baliteke ezetz erantzun duten haiengan jakinmina piztuarazi izana.
- Euskaldun izatearen definizio tradizionalak Euskal Herrian jaiotzea, arbaso euskaldunak izatea eta euskaraz mintzatzea kontutan hartzen ditu. Posible izanen litzateke baldintza hauek bete ezean euskaldun sentitzea?
Galdera honen aurrean inor ez da euskaldun izatearen definizio murriztatzailearen alde agertu eta askok defendatu dute sentitzen zarena izan ahal izateko askatasuna. Honela dio batek “Bai, zergatik ez? nire Afrikako laguna euskalduna sentitzen da”. Erantzun honetan ere, ikusgai gelditzen da hurbileko sentitzeak eragiten diguna. Berdin erantzungo zuen lekualdatu izan den norbait ezagutuko ez balu?
- EHan jaiotze ez den norbait euskaldun sentitu daitekeen galdetzean gehiegi korapilatu ez den batena azpimarratu nahiko nuke, berak honela dio: “nahi badu bai”. Modu honetan, norberan esku uzten du erabakia. Askotan hurrek helduei hainbeste kostatzen zaizkigun ideiak naturalizatzen dituzte, dikotomiatik haratago doaz, guztiz zeharkatzen gaituzten kategorizazio zurrunetatik at.
Galdera honen erantzunen artean ere, argi eta garbi telebistaren eragina plazaratu duen bat egon da: “bai, El conquistador del Cariben Madrileko batek euskalduna sentitzen zela esan zuen”. Interesgarria izan daiteke telebistak helarazten dituen mezuak elkarrekin behatzea.
- Galdetegiarekin jarraituz, ikasleen %95ek euskaldun guztiak ez direla Euskal Herrian bizi aipatu dute. Baina baieztapen hau egin eta gero, euskaldunak non bizi diren galdetzean ehunekoa ez da mantendu eta %65ek aipatu du euskaldunak mundu osoan bizi direla.
- Familiakideak nongoak diren galdetzean ikasle guztiek bat izan ezik aipatu dute hemengoak, Nafarroakoak, Euskal Herrikoak, Espainiakoak edo Europakoak direla. Nahiko adierazgarria da hau, beste eskola batzuekin alderatuz, eskoletan ematen ari den segregazioa azalarazten ahal digu?
Familiakideen jatorri anitza aipatu duen ikasle bakarra egon da, hau izan da bere erantzuna: “Nire ama Errioxatik, nire aita Txantreatik, nire anaia Etiopatik eta ni Txinatik nator”. Esanguratsua iruditu zait familiakide guztien jatorria era paretsuan aurkeztu izana, hau da eskola ondoko auzoa, Nafarroako zonaldea, Afrikako herrialde bat eta Asiako herrialde bat nahiz eta distantzia aldetik oso desberdinak izan parekatu izana. Esan genezake aniztasun honen aberastasunaren jabe dela, eta harro dagoela gainera.

Zalantzarik gabe, aukera paregabea hau aniztasunari bidea eman eta miresten hasteko.

- Aldiz, familiakideren bat kanpora joan behar izan zela entzun al izan duten galdetzean berdintsuago ibili da kontua %43k baietz erantzun dute eta %57k ezetz. Baietz esandakoei horren inguruan galdetzea eta hitz egitea izan daiteke migrazioaren afera lantzeari hasiera emateko bide. Batek ezetz uste duela erantzun du, jakinmina sortzeko aukera izan daiteke hau.
- Euskal diasporari aipamen egitean oso ohikoa izaten da euskal etxeak aipatzea. Ikasle hauen ehuneko %57k adierazi du ez dakiela zer den Euskal etxe bat. Nahiko datu adierazgarria, euskal diasporari behintzat aipamena egin zaion ala ez jakiteko.
- Artzaien etxearen inguruan ere %60k ez jakintasuna adierazi du, eta gainontzekoen erantzunen artean inork ez du aipatu Amerikara migratu zuten pertsonentzako honek izan zuen balioa.
- Idahoko eskolan euskara lantzearen zergatiari bakar batek erantzun du euskaldunak Ameriketara joan zirela arrazoi moduan eta Argentinako kale batzuek euskal izena izatearen zergatien artean bakar batek aipatu du euskaldunak hara migratu zutela arrazoi.
- Kalifornian pilotan aritzearen zergatien artean %60k ere ez jakintasuna adierazi du. Bi ikaslek lotu dute migrazioarekin honelako erantzunak emanez: “euskaldunak Amerikara joan zirelako eta pilota oso famatua egin zen”, “euskaldunak direlako eta nahi dutelako mantentzea euskara”. Hirugarren ikasle baten erantzuna honelakoa izan da: “eh, hemen beste leku batzuetako jolasak jolasten dira, zergatik hor ez?”. Aukera galanta deritzot kulturartekotasunak dakartzan aberastasunaz solasteko.
- Bukatzeko, galdetegia egindako ikasleen artean guztiok ezagutzen du beste herrialde batetik etorritako norbait. Baina haietatik 6 ikaslek adierazi dute ez dutela pertsona honekin harremanik. Erantzun hauen arabera migrazioa hurbileko afera sentiarazteko aukera dugu eta aldi berean dugun jarrera birplanteatzeko aukera izan daiteke, zergatik ez gara gure artean harremantzen?

9.2. Testuinguruan murgilduz.

9.2.1. Testuinguruan gehiago murgiltzeko informazioa.

Eskola Baztango Bailarako Irurita herrian kokatuta dago. Herri txikia izanik eta herriko eskola bakarra izanik nabaria da denen artean elkar ezagutzen dutela. Herrian gertatzen denak eskolan du eragina eta alderantziz ere eskolan gertatzen denak herrian du eragina. Honek

bere alde onak eta txarrak ditu noski. Baina argi dago, eskolan segun ze gai landu nahi den onurak dituela horrelako ingurune batek. Pasa den urtean, adibidez, aitatxi eta amatxi batzuk etorri ziren bere txikitako oroitzapenak kontatzera. Aurten ere, Lur azpian proiektua lantzean, herrian barna ibili ziren lurra hartzen terrarioa egiteko, zinaurriak harrapatzen nolakoak diren ikusteko...

Gainera, "Urdazubi- Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolak" lan taldearen parte da Iruritako eskola. Eskola hauek elkarlanean aritzen dira proiektuen bidezko irakaskuntzaren alde eginez. Koordinaketa honetan 12 eskolek hartzen dute parte: Urdazubi-Zugarramurdiko eskolak, Amaiurko eskolak, Azpilkuetako eskolak, Erratzuko eskolak, Gartzaingo eskolak, Lekarozko eskolak, Iruritako eskolak, Arraiozko eskolak, Zigako eskolak, Oronozko eskolak, Almandozko eskolak eta Arizkungo eskolak. 12 eskola ezberdinez osatutako lan taldea izanik, antolakuntzaren beharra nabaria da. Hori dela eta, astean zehar kontaktu eta bilera ezberdinak izaten dituzte:

- Astelehen goizetan: Baztan eta Zugarramurdi-Urdazubiko herri eskoletako 12 zuzendariak, Baztango eskola txikitako koordinatzailea eta administratzailea Iruritako Erreboteko eskolan elkartzen dira, besteak beste, koordinazio eta kudeaketa kontuez hitz egiteko.
- Astelehen arratsaldetan: herri guztietako irakasleak lantalde ezberdinetan elkartzen dira, eskola ezberdinetan (Arraioz, Lekaroz, Irurita, Gartzain, Iruritako eskola zaharra...). Bilera hauetan, irakasleek arlo eta maila ezberdinetan landuko diren edukiak, helburuak... zehazten dituzte eta baita proiektuak bideratu ere. Hauek dira orain arte sortutako lan taldeak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntzako 1.zikloa eta 2./3 zikloak, Gorputz Heziketa, Musika, Erljioa, Atzerriko Hizkuntza eta Aniztasuna.

Irakasleen arteko harremanari erreparatuz, nire ustez, ikastetxearen tamainak zentzu honetan hezkuntza kalitateari eragiten dio, eta kasu honetan eskola txikia izateak biziki hobetzen du hezkuntza kalitatea. Klaustroan gutxi biltzeak bakoitzaren zalantzak eta kezkek guztion artean konpontzen saiatzea ahalbideratzen du, ikasle bakoitzean behar den atentzio guztia jarriz. Modu honetan, gatazken kudeaketa guztion artean egiten da, irakasle bakar batek zama guztia gainean hartu beharrean. Aldi berean, klaustroak partaide gutxi izateak irakasleen arteko koordinazioa erraztu egiten du ikusi dudanaren arabera. Komunean dihardute lanean, baina irakasle bakoitzaren askatasuna ere errespetatuz.

Beste hainbat harremani dagokionez:

- Guraso Elkartearekin Eguberriak, Inauteriak, eskolaz kanpoko jarduerak...antolatzeke elkartzen dira. Gurasoekiko harremanari dagokionez,

hizkuntza aldetik ez dago inolako zailtasunik, gehienak baitira elebidunak. Beraz, euskaraz edo gazteleraz komunikatzen dira irakasle eta gurasoen artean.

- Hezkuntza administrazioarekin ikuskariaren bidez gauzatzen da harremana batik bat.
- Herriko alkatearekin herriko ospakizunetan laguntzeko (herriko bestak, Inauteriak...) elkartzen dira.
- Udalari dagokionez, zinegotzi eta alkatearekin harremana zaintzen da elkarlanean aritzeko (ateraldietarako udaltzainen laguntza behar bada, eskolako mantenimendurako...).
- Lekarozko institutuarekin: Iruritako ikasleak hara joaten direnez, urtero 6. mailakoak bertara joaten dira ikastetxea bisitatzera eta eskolako irakasle eta institutuko irakasleen artean ere koordinazio minimo bat izaten saiatzen dira.
- Beste erakunde batzuekin ere elkarlanean aritzen dira, hala nola: NIZE (D ereduko eskolen erakundea), CREENA eta ANFAS.

Hizkuntzan murgilduz gero, D ereduko eskola honetan euskara da irakasleen eta ikasleen artean aditzen den hizkuntza. Euskara erabiltzen dute beti, bai arlo akademikoan eta bai lagunartean aritzeko. Hau oso aspektu positiboa da normalean ama hizkuntza euskara izanik hizkuntza aldetik gaizki ulertuak ez direlako ematen. Gai ezberdinak lantzerako orduan ere onura handia dakar honek, izan ere, euskaraz hausnartzeko, ulertzeko, argudiatzeko, azaltzeko...ohitura nabarmena denez errazagoa da gaietan sakontzea. Gainera, D ereduko beste eskola askotan euskararen erabilera sustatzeko erabiltzen den denbora eta ahaleginak ez dira beharrezkoak eskola honetan. Alderantziz, gaztelera klaseetan askotan oroitarazi behar izaten zaie gazteleraz hitz egin beharra dutela. Ahozko hizkuntzan, beraz, ez dago orokorrean eragozpen handirik ikasle hauen artean, esan bezala, askoren ama hizkuntza baita euskara.

Orokorrean pertsona guztiei bezala haurrei ere errespetu osoz hitz egitea da eskola honen intentzioa. Tonua zure intentzioaren arabera moldatuz eta komunikazio ez berbalarekin lagunduz. Beti ere, aurrean duzun horri erabiltzen duzun lexikoa eta egiturak moldatuz eta isiluneak errespetatuz. Tamalez, neska eta mutiko batengana zuzentzen garenean ez dugu modu parekidean egiten. Jarrera honi irtenbide bat bilatu nahian hezkidetzaren gaineko hausnarketa burutu du klaustro osoak. Gainera, hezkidetzaren inguruko tailer batean parte hartu dute klaustroko irakasle gehienek, beraz, gogotsu daude hezkidetzaren plan bat burutzeko. Une aproposa da gure jarrerak behatu, hobetu eta hezkidetzan murgiltzeko.

Hain aberasgarria den aniztasunari erreparatuz, badira arrazoi desberdinengatik arreta gehiago eskatzen duten zenbait ikasle. Ikasle hauei behar bezalako arreta eman ahal izateko Iruritako eskolan zenbait espezialistaren laguntza dute, hala nola: zaintzailea,

fisioterapeuta, orientatzailea, Entzumena eta Hizkuntzako espezialista eta Pedagogia Terapeutikoko Espezialista.

Aniztasun honen baitan, kulturantzatasunaren ildotik, eskola hau ez da gizartearen isla zuzena, izan ere, eskolan dauden 65 ikasleetatik Euskal Herritik kanpo sortu den ikasle bakarra dago aurtan. Ikasle honek ere, behar bezalako arreta jasotzen du irakasle eta aipatu moduan hizkuntzan espezialista den irakaslearen laguntzarekin.

Espazioaren antolamenduari dagokionez, solairu bakarreko eraikina da Irurritako eskola, HHko eta LHko 7 gela, Ingelerako gela bat, liburutegi/informatika gela, jangela, psikomotrizitate gela, zuzendaritza bulegoa, irakasleen gela, komunak eta biltegia dituena. Horretaz gain, patio zabal bat dauka eta frontoia eskolari itsatsita dagoela baliatuz, hau erabiltzeko aukera dago, bai patioan orduan, bai Gorputz Heziketako klaseetan. Eskola modu honetan antolatuta egoteak asko errazten du ikasleen arteko harremana eta berdinen arteko ikaskuntza.

Patioari dagokionez, ez dago futbolari eskainitako espazio zehatzik eta honek asko laguntzen du mutikoek espazio guztia bere gain ez hartzeko orduan. Aldi berean ere, ez du neskek txokoetan elkartu behar izana bultzatzen. Patioan, hezikidetzaren aldeko norabidean, eskolako irakasle, guraso eta ikasleen artean lurrean marraztu eta margotutako jolas ezberdinak daude, beraz, honek futbolari lekua kentzen dio modu batean edo bestean jolasen aniztasuna bultzatuz eta ikasle guztien arteko harremana sustatuz. Hemen patioaren argazkia ikusgai.



Eskolak eragindako sentsazio orokorra klaseak oso dinamikoak eta eramangarriak egiten dituztela izan da. Ikasgelen arteko harremana zaindu egiten da eta eskola guztiak parte hartzen du proiektuen bidezko metodologian.

Praktikaldian egokitutako tutorea irakasle hasi berria da eta irakaskuntza berritzeko eta hobetzeko motibazioa eta ikasteko grina antzematen zaio, kritikoa eta berritzailea da. Dimentsio fisikoari dagokionez, ikasgela honetan 10 ikasle dira osotara, eta bosteko bi taldetan daude banatuta. Hirugarren mahai talde bat dago hamarrak elkartzeko modukoa eta beste txoko bat dago arreta berezia behar duen ikasle batek beharrezkoa duenean erabiltzeko. Gainera, txoko ezberdinak dituzte, hala nola: errutinen txokoa arbelaren eskuinaldean kokatua, apalategien txokoa, liburutegia, jostailuen txokoa eta ordenagailuaren txokoa.

Txokoen kontua oso lotuta dago harreman dimentsioarekin. Lan edo ekintza gehienak taldeka edo bikoteka egiten dituzte, baina garapen kognitibo pertsonalerako egokia izan daiteke taldeak aldakorrak izatea, beraz, taldekatzeak aldatuz doaz: batzuetan bakarkako lana, beste batzuetan talde osoan, bestetan talde txikian, bestetan binaka...Taldeak irakasleak erabakitakoak, errotatorioak edo ausazkoak izaten dira egoeraren eta landu nahi denaren arabera. Orekaren kudeaketa bideratzea zaila izaten da batzuetan.

Irakaslearen presentzia eta interbertzioa ere ikasturtean zehar moldatuz eta aldatuz doa. Ikasleek denborarekin errutinak bereganatuz doaz eta ez dute behar irakaslearen etengabeko kontrola. Klasera iristen direnean inork ezer esan gabe liburuak maleta bidaiarian sartu eta borobilean esertzen dira. Lehenbizi irakasleak, borobilean eserita daudelarik, azalpena ematen du denon parte hartzea sustatuz eta oso modu dinamiko eta praktikoan. Gero, ariketa idatzia egiten dute normalean testuliburua erabiliz eta bukatzeko denon artean zuzentzen dute ariketa. Beraz, ikasleak nahiko ohituta daude bai irakasleak gidatutako jardueretan bai haien artean burutu beharreko ariketak egiterako orduan.

Tutoreak fitxak eta testuliburuak erabiltzen ditu askotan, baina ez ikasteko iturri bakar moduan, baizik eta ikasi dutenaren osagarri moduan, beti egiten ari diren horri zentzua emanaz eta praktikara eramanez. Noski, aurretik testuliburuko ariketak egokiak diren ala ez behatu ondoren, besteak beste material ez sexista dela antzemanaz. Testuliburua erabiltzeaz aparte oso bestelako ariketak planteatzen ditu, hala nola, ikasleak urduri daudenean yoga ariketak egitea, lurraren geruzak lantzean terrario bat egitea, argazkien bitartez egoera desberdinen inguruan hausnartzea...Berebiziko garrantzia ematen dio alderdi emozionala lantzeari eta lasaitzeko prozesuari.

Beraz, denbora dimentsioan murgilduz, tutoreak denbora planifikatua darabil batzuetan ikasleen interesetatik abiatuz hainbat jarduera proposatzen dituenean. Baina errutinak

lantzeari ere behar den denbora eskaintzen dio, ikasleei klasean kokatzeko astia emanaz. Gainera, denbora librearen garrantzia argi dauka irakasle honek. Berarentzat ere, komenigarria da haurrek egunero denbora libre tarte bat izatea, haiek nahi duten bezala erabili dezaten (jolasteko, hitz egiteko...). Denbora libre hau egokia da autonomia garatzeko, elkar ezagutzeko (zaletasunak, interesak...), garapena sustatzeko... Hezkuntza eta jolasa bateratu beharra dago eta noski, irakasleak honetan parte hartzea garrantzitsua da.

Ikasgela honetan nesken presentzia mutikoena baino handiagoa da. Baina, hala ere, mutikoek protagonismoa bereganatzeko joera dute. Tutoreak hezkidetzan hezteko ahalegin handiak egiten ditu, bai bere jarrerak behatu eta aldatuz eta bai ikasleengan kritikotasuna eta jarrera aldaketa bultzatuz. Hala ere, nire uste apalean, bere intentzioa oso ona izan arren, formakuntza gehiago behar duela antzematen da, baina horretan dabil irakasleagoak behar duen etengabeko formakuntza beharrezkoa ikusten baitu.

Hobetzeko gauzen artean, bere egunerokotasunean kulturartekotasuna lantzearen garrantzia antzematea eta planteatutako jardueretan ikuspuntu hau lantzea falta zaiola esango nuke. Nire ustez, ongi legoke ere, bere metodologian teknologia berriak zertxobait gehiago txertatzea, baina egia da eskola hau ez dagoela zentzu horretan behar bezala hornituta. Nahiz eta 2011n eraikin berria egitearekin batera gela guztiak hornitzean hobekuntza nabaria izan zen eskolan, baliabide teknologikoen beharra dago. Gaian gehiegi sakondu gabe, eskola osoan bi arbela digital daude orain, bat psikomotrizitate gelan eta bestea 6. mailako gelan.

Hala ere, esandakoak esanda, hutsune txiki hauen gainetik, azpimarratzekoa da tutorearen jarrera dinamikoa, kritikoa eta ikasteko grina.

9.3. Jardueren azalpen sakonagoa.

9.3.1. Jarduera orokorrak.

Hiru jarduera orokor burutu ditugu LH 2-LH 6 bitarte. Txanda desberdinetan egin dugu, beti ere zikloaren arabera moldatuz:

- Lehenbiziko bi jarduerak bi txandatan gauzatu ditugu:
 - o Azaroaren 22an (3. eta 4. saioetan) LHko 2. eta 3. mailako ikasleekin.
 - o Azaroaren 24an (3. eta 4. saioetan) LHko 4, 5 eta 6. mailako ikasleekin.
- Hirugarren jarduera orokorra 3 txandatan burutu dugu:
 - o Azaroaren 28an (3. eta 4. saioetan) LHko 3. eta 4. mailako ikasleekin.

- Abenduaren 1ean (2., 3. eta 4. saioetan) LHko 5. eta 6. mailako ikasleekin.
- Abenduaren 5 eta 11n (3. eta 4. saioetan) LHko 2. mailako ikasleekin.

Guztion artean adostutako arau edo jarraibideak:

- Helburua ez da hezitzaileak bakarrik hitz egitea, guztiok parte hartu ahalko dugu.
- Hitz egiteko eskua altxatuko dugu eta txandak errespetatuko ditugu.
- Elkar errespetatuko dugu. Gainontzekoak entzungo ditugu eta ez dugu haien iritzia gutxietsiko.
- Guztiok eman ahal izango dugu gure iritzia. Iritzi guztiak baliogarriak dira.

Jarduera orokor hauen helburu zehatzak honako hauek dira:

- Besteenganako errespetua sustatu eta besteei lagundu behar zaiela barneratzea.
- Pertsona lekualdatu, migratzaile eta errefuxiatuen errealitatera hurbiltzea
- Pertsona errefuxiatuek bizi duten diskriminazio egoera justifikatzeko arrazoirik ez dagoela jabetzea.
- Zure etxetik bizitza hobea lortzeko ateratzeak dakartzan zailtasunaz ohartarazi.
- Euskal diasporaren berri emanez euskaldunon historia haratago ezagutzeko aukera ematea.
- Euskal diasporaren kasua erabiliz errefuxiatu eta migranteen gaineko enpatia sustatzea.
- Guztiok pertsona migratzaile, lekualdatu edo errefuxiatu izan gaitzkeelako ideia zabaltzea eta estereotipo eta aurreiritziekin bukatzea.
- Gizarte parekide baten aldeko aurrerapausuak ematea.
- Gizaki orok Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean jasota dauden eskubideak ditugula ikasi, eta batzuetan ez direla errespetatzen jakin.
- Hezkuntza denon eskubidea dela barneratzea.

9.3.2. Jarduera zehatzak.

9.3.2.1. Lehen Hezkuntzako 2. maila.

LHko 2.mailako ikasleekin azaroaren 10ean eman genion hasiera eta praktikaldian egokitutako ikasgela izan zenez, haiekin egunez egun joan ginen gaia lantzen.

LH 2. Mailako ikasleekin landutako jarduerak helburu zehatz hauek dituzte:

- Bestearen lekuan jartzen ikastea, enpatia lantzea.
- Sormena lantzea.
- Taldean lan egiten ikastea.
- Laguntza ematearen eta elkartasunaren garrantziaz jabetzea.
- Bakoitzaren jarreraren inguruan hausnartzea.
- Inor bestea baino garrantzitsuagoa ez dela eta denok ezinbestekoak garela ohartzea.
- Herrialde desberdinetako haur batzuen bizimodura hurbiltzea eta hainbat herrialde geografikoki kokatzea.
- Denok migratzaile izan garela memoria berreskuratzea, modu honetan diasporan dauden euskaldunekin zubia eratzea eta egungo migranteekiko ulerkuntza eta onsepena sustatzea.

Fatimaren ipuina jarraitzen

Jarduera honi hasiera emateko, goxo-goxo eta eroso egoteko alfonbra bat jarri eta borobilean eseri ginen denak. Txantxangorria eta izeia ipuina irakurri genuen (ikus eranskinetan, 11. baliabidea).

Ipuina irakurri ondoren zenbait galdera erabiliz (ikus eranskinetan, 11. baliabidea) guztion artean ipuinak erakutsi nahi digunaren eta gure ohiko jarreraren inguruan hausnartu genuen.

Horrekin lotuta Fatimaren inguruan hitz egin genuen. Bere istorioa kontatu nien egunean (ikus eranskinetan, 3. baliabidea) besteak beste, ipuinak asmatzea gustatzen zitzaiola esan nien, berak hasiera eman eta gainontzekoek jarraitu eta hurrengoan alderantziz. Azkeneko gutunean ipuin berri baten hasiera eman digula aipatu eta jarraitzen lagundu nahi ziguten proposatu genien.

Baiezkoa jasotzean Fatimaren ipuinaren hasiera irakurri genuen (ikus eranskinetan, 12. baliabidea). Hiru talde egin genituen eta sarrera hau jarraituz korapiloa eta bukaera asmatu behar genuela oroitarazi eta gero, lanean jarri ginen.

Hiru taldeek ipuina bukatutzat ematerakoan, gainontzeko ikasleei gure ipuina kontatzeko kamishibai teknika erabiliko genuela proposatu genuen. Zer da? Nondik dator? Powerpoint baten bidez ikasi genuen, bitartean Japonia eta teknika hau hedatu den herrialdeak munduko bolan kokatuz (ikus eranskinetan, 13. baliabidea).

Egoera aprobeztatuz “Ni bezalako haurrak” liburua behatu genuen. Bertan aipatuz joan ginen herrialde bakoitzeko haurrak ezagutu genituen, beti ere haur zehatz horien bizimodua eta ez herrialde horretako haur guztien bizimodua dela oroitaraziz (ikus eranskinetan, 14. baliabidea).

Ondoren, Kamishibai bat irakurri genuen adibide moduan kontuan hartzeko. “Eguzki katua” deitzen da kamishibai hau eta Vietnameko istorio bat kontatzen du (ikus eranskinetan, 15. baliabidea). Istorioaren azkeneko esaldia komentatu genuen: “Zu zeu ohartu zara gauza guztiak, baita txikiak ere, garrantzitsuak eta beharrezkoak direla. Ezer ez da mundu honetan beste ezer baino indartsuagoa, ezta inor ere beste inor baino garrantzitsuagoa”.

Hizkuntzen aniztasuna eta aberasgarritasuna landu genuen orduan, Fatimak arabieraz hitz egiten duela aipatuz. Euskara eta arabea dakien lagun baten berri eman nien eta kamishibaiak euskaraz egin eta gero lagun horrek arabierara itzuliko dizkiola izan zen adostu genuen azkeneko ideia.

Beraz, Fatimaren ipuinaren hasiera eta haien jarraipena oinarri hartuta Kamishibaia egiteari ekin genion, gerora Fatimari “bidaltzeko” eta eskolaren aurrean kontatzeko.

Bai ipuinak eta bai hauen kamishibaiak egiteko momentuan txokoka egin genuen lan, beraz, talde bakoitzarekin egoteko aukera izan genuen. Honek, zenbait gai eta jarrera zeharka landu ahal izateko aukera eman zigun, besteak beste:

- Ustezko larruazal koloreko margoa.
- Orokorrean pairatzen ditugun eta ipuinetan agertzen diren estereotipoak zalantzan jartzea.
- Talde lanean aritzean besteen iritzia entzun behar izatea eta denok ados egon arte marrazten jarraitu ez ahal izatea.

Behintzat pentsarazi egin genien eta zenbait buruhauste izan zituzten, hala ere, estereotipoak haustea ez da egun bateko gauza (ikus kamishibaien emaitza eranskinetan, 2. produkzioa).

Behin kamishibaia bukatuta eta entsaiatu ondoren eskolako ikasle guztiak gonbidatu genituen urtarrilaren 23an gure kamishibaien erakustaldira (ikus eranskinetan, 1. argazkia).

Euskal diaspora.

Beste behin, LHko 2. mailako ikasleekin, jarduera orokorren 3. jarduera lantzen ari ginenean migratzaileak edozein izan gaitzekelako ideiaaren inguruan solasean ari ginela euskaldunok ere migratzaileak garelako ideia atera zen.

Ideiarekin lotuta eta euskararen eguna berriki izana zela aprobetxatuz, euskararen eguna Euskal Herritik kanpo dauden euskaldunek ere ospatzen dutela aipatu genuen. Munduan barna sortu diren euskal etxeen inguruan solastu ginen euskal etxeen kokalekuaren mapa interaktiboa erakutsi eta komentatuz (ikus eranskinetan, 16. baliabidea).

Orduan, Argentinan Arrecifeseko euskal etxearen inguruan solastu ginen pixka bat eta zalantza asko sortu zitzaizkigun. Beraz, hori aprobetxatuz mezu bat bidaltzea erabaki genuen, eta halaxe egin genuen (ikus bidalitako mezua eranskinetan, 3. produkzioa).

9.3.2.2. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila.

LH 3. eta 4. mailakoekin landutako jardueren helburu zehatzak hauek dira:

- Herrialde desberdinetako jolasen arteko antzekotasun eta desberdintasunak identifikatzea.
- Kulturartekotasunean bizitzeak dituen onurez jabetzea.
- Gure jarreraren inguruan hausnartzea.
- Jolasaren bidez kulturen arteko hurbilpena, errespetua eta harreman dinamikoak bultzatzea.

Munduko jolasak, guztion jolasak.

Hasteko Fatimaren gutun berri bat irakurri genuen (ikus eranskinetan, 17. baliabidea). Eskutitza euskaraz eta arabieraz idatzita zegoen, beraz, hizkuntzen aniztasunaz jabetzeko aukera eman zigun.

Ondoren, Eguberriak hurbil zirenez, Fatimak gutunean aipatutakoaren harira, jolas bilduma egin eta Fatimari opari moduan bidaltzea proposatu genuen. Munduko jolasak gure jolas bihurtuz, guztion jolasak.

Fatimak eta biok bildutako jolasak erakutsi (ikus eranskinetan, 18. baliabidea) eta taldetan jarri ginen. Talde bakoitzak jolas bat hartu eta jolas horren horma-irudia prestatu genuen, puntu batzuk betez, hala nola:

- Jolasaren izena
- Nongoa da (Peters mapamundiaren irudian herrialdea kokatu).
- Nola jolasten da eta marrazkia

Herrialdea mapamundian kokatu beharreko momentua aprobetxatu genuen munduko mapen kutsu etnozentriztas jabetzeko eta hausnartzeko. Horretarako, munduko bola eta mapamundi desberdinak ageri diren PWA erabili genuen (ikus eranskinetan, 19. baliabidea). Fatimari jolas bildumaren kopia bidali baino lehenago, sortutako zalantza batzuk planteatu genituen, besteak beste: han Sirian Euskal Herrian bezala Eguberriak ospatuko dituzte? Urtea egun berean hasten dugu Euskal Herrian eta Sirian? Modu honetan, askotan dugun jarreraren inguruan hausnartu genuen: gurea izaten dugu kontuan eta besteena ez zaigu gehiegi axola. Beste kultura batzuen ohiturak eta jolasak ezagutzeko aukerak aprobetxatzera animatu genituen orduan.

Jolas bilduma bukatzean, (ikus emaitza eranskinetan, 4. produkzioa) klasez klase eskolako gainontzeko ikasleei erakutsi genien, jolasak biltzen Siriakoa den gure laguna Fatimak lagundu zigula esanez eta modu honetan kulturartekotasunean bizitzeak duen aberasgarritasunaz jabetuz.

Ondoren, frontoian bildu ginen ikasle eta irakasle guztiak eta taldeka antolatu ginen. Jolas bakoitza hasi aurretik zein herrialde eta kontinentetatik datorren, jokoaren arauak eta nola jolasten den azaldu zuten ikasleek. Txokoz txoko pasa ginen guztiak jolas guztietan arituz (ikus eranskinetan, 3. argazkia). Girotzeko munduko herrialde desberdinen musika jarri genuen eta jolas batzuetan aritzeko kareta egin genituen.

Hainbat saio erabili genituen:

- Urtarrilaren 16an (3. eta 4. saioak).
- Urtarrilaren 18an (1. saioa).
- Urtarrilaren 23an (6. saioa).

9.3.2.3. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila..

LHko 5. eta 6. mailako ikasleekin burututako jardueren helburu zehatzak hauek izan dira:

- Gure jarreraren inguruan hausnartzea.
- Gure jarreraren ondorioez jabetzea.
- Europar Batasunak hartutako konpromezua ez dela bete jabetzea.
- Hiritartasun aktiboa garatzea.
 - o Gizartearen parte aktibo direla ohartaraztea.

- Gizarte parekide bat eraikitze bidean norberaren erantzunkizunaren jabe izatea.
- Eraldaketarako herra mintza eta bideak ezagutaraztea.

Gutuna idazten

Hasteko Fatimaren beste gutun bat irakurri genuen (ikus eranskinetan, 20. baliabidea).

Fatimak gutunean berriaren inguruan hitz egiten duen momentuan Espainako agintariek errefuxiatu kopuru bat hartuko zutelaren konpromezua ez dutela bete azaldu genuen. Akordioa hobeki ulertu eta horren inguruan hausnartzeko berri bat irakurri genuen eta hainbat galdera planteatu genituen (ikus eranskinetan, 21. baliabidea).

Ondoren, Euskal Herrian jarrera honen aurka egiten ari diren ekimenen berri eman genien, besteak beste, salaketa baten adibidea emanez (ikus eranskinetan, 22. baliabidea).

Fatima ere horretan ari dela aipatu genuen orduan, giza eskubideak guztiz urratzen dituen egoera hau salatzen, eta Fatimaren gutunaren bukaera irakurri genuen (ikus eranskinetan, 20. baliabidea).

Ondoren gure aldetik errealitate hau salatzeko eta aldatzeko egin dezakegunaren inguruan hausnartu genuen. Egoera, gure kezka eta gure nahiak azaltzeko gutun bat idaztea proposatu genien orduan. Gutunaren formato posiblea ikusi (ikus eranskinetan, 23. baliabidea) eta guztion artean gure gutuna sortu genuen (ikus emaitza eranskinetan, 5. produkzioa).

Gutuna nori zabaltu nahiko genuen adostu genuen guztion artean:

- Gure familien, lagunen... artean banatu.
- Beste eskola eta institutuei bidali.
- Eskolako aldizkarian txertatu (bagoi ttiki)
- Sare sozial eta interneten bidez zabaltu.
- Egunkarietako zuzendariei bidali gure desadostasuna adierazi nahian eta bide batez haiek ere publikatu dezaten: Ttipi-ttapa, Xaloea, Berria, Xorroxin, Diario Vasco, Diario de Navarra, Diario de Noticias.
- Udalari bidali gure kezken berri izan dezaten eta irtenbide bat bilatzen lagundu gaitzaten.

Bukatzeko, pertsona migratzaileen eguna zela eta elkartasun gutun bat idaztea bururatu zitzaigun eta denon artean gutun bat idatzi genien (ikus migratzaileei idatzitako gutuna eranskinetan, 6. produkzioa).

Gure jarrerren inguruan hausnartzen.

Bigarren egun batean zaintza zutela aprobetxatuz, zenbait bideo eta ariketa burutzeko aprobetxatu genuen. Lehenbizi bi panpin erakutsi (bat beltza eta bestea txuria) eta zenbait galdera planteatu genituen:

- Zein da polita/itsusia? Zergatik?
- Zein da gaiztoa/ona? Zergatik?

Behin haien erantzunak entzun eta gero, ariketa berdina egin zuten beste haur batzuen bideoa ikusi genuen, “Doll Test - Los efectos del racismo en los niños” deiturikoa (Iavarone eta Durso, 2016).

Bideoarekin lotuta, aurreiritziei buruz eta bakoitzak gainean izaten dugun zamaren inguruan solastu ginen. Pasa den egun batean jarduera orokorretan landu genituen egoerekin lotu genuen hau eta “El caso de Lorenzo” bideoa ikusi genuen (Matia, 2016).: Ondoren, “4 esquinitas de nada” bideoa ikusi genuen (Calavia, 2011).

Gure jarrerren inguruan hausnartu eta gure jarrera aldaketa batek asko lagunduko duela izan zen denon artean ateratako ondorioa.

Horretarako hainbat saio erabili genituen:

- Abenduaren 15ean (3. eta 4.saioak).
- Urtarrilaren 18an (6.saioa).

9.3.2.4. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza 1. maila.

HHko 1. eta 2. maila gela berdinean daude eta HHko 3. mailako ikasleak eta LHko 1. mailako ikasleak beste batean. Proiektu txiki honen parte izan daitezzen zenbait jardueretan parte hartu dute.

Horretarako bi saiotan elkartu ginen:

- Abenduaren 11n (6. saioan).
- Abenduaren 14an (4.saioan).

HH eta LH 1. mailako ikasleekin burututako jardueren helburu zehatzak:

- Hainbat balio indartzea: elkartasuna, enpatia, laguntasuna, errespetua.
- Pertsona migratzaile, lekualdatu eta errefuxiatuen errealitatera zertxobait hurbiltzea.

Txantxangorria eta Izeia.

Hasteko, LH 2. mailakoen antzera, borobilean eseri eta “Izeia eta Txantxangorriaren” ipuina irakurri genuen. Bukatzean, hainbat galdera planteatu genituen (ikus eranskinetan, 11. baliabidea). Ondoren, Fatima eta bere istorioa aurkeztu genuen zertxobait moldatuz (ikus eranskinetan, 3. baliabidea).

Oraingoz Fatima han gelditu beharko dela azaldu genien ez diotela beste herrialde batera pasatzen uzten. Fatima bezala beste pertsona aunitz daudela, eta ez dietela Euskal Herrira etortzen uzten, hemen guztiontzako lekurik ez dagoela esanez. Zenbait galdera luzatu genizkien ondoren, hala nola:

- Eskola honetan haur gehiagorendako lekua dagoela pentsatzen duzue?
- Momentu honetan pertsona hauek gure laguntza behar dute ezta?
- Badakizue norentzako izango den janari bilketan biltzen ari garen guztia?

Elkartasun txarteltxoak

Bigarren saio batean herrialdeen artean harresiak edo mugak daudela eta segun nongoa zaren herrialde batetik bestera pasatzeko erraztasun gehiago edo gutxiago dituzula azaldu genien hainbat galderen bitartez: Justua da? Ados gaude edo nahiago dugu bakoitzak erabaki ahal izatea?

Janari bilketarekin batera txarteltxo batzuk bidaltzea proposatu genien, haiei gure elkartasuna adierazteko. Txarteltxoak apaindu zituzten eta nahi izan zuenak “zuekin gaude” esaldia hizkuntza desberdinetan idatzita ageri zen papertxoaren itsatsi ahal izan zuen. Momentu honetan hizkuntzen aniztasuna eta aberasgarritasunaz solastu ginen.

Txarteltxoak bukatzean, hirukoteka LHko gainontzeko ikasleei erakutsi zizkieten eta patioan haien txartxela egitera animatu zituzten.

9.4. Jarduerak burutzeko erabilitako baliabideak.

1. Baliabidea. Zaindariaren jolasaren azalpena eta planteatutako galderak.

Zelaia bitan banatuko dugu erdian lerro bat eginez. Ikasle guztiak bat izan ezik zelaiko muturretako batean jarriko dira. Beste ikasle hau zelaiaren erdian jarriko da marraztutako lerroaren gainean. Zelaiaren alde bat Frantzia izango da eta beste aldeak Euskal Herria. Erdiko lerroa bi herrialdeen arteko muga izango da. Muga hau euskaldun askok zeharkatu behar izan dute ezkutuka, beraz, mugak eta mugen ondorioak hurbilago sentiarazteko baliagarria izan daiteke.

Jolasaren helburua zelaiko mutur batean daudenak beste muturrera joatea da, noski erdian dagoen pertsonak (zaindariak) ukitu gabe. Zaindariak gainontzekoek alde batetik bestera

pasatzea oztopatu behar du. Zelaiaren alde batetik bestera pasatzean zaindaria pertsona bat ukitzen badu, pertsona hau mugan geldituko da, herrialde batera ez bestera pasatu ezin gabe, geldi geldirik. Hau errepikatu egingo da pertsona guztiak harrapatu arte, hau da, pertsona guztiak mugan blokeatuta gelditu arte.

Jolastu ondoren planteatutako galderak:

- Nola sentitu da zaindaria?
- Nola sentitu zarete harrapatuak izan zaretenean eta ez aurrera ez atzera gelditu zaretenean? Dibertigarria zen jolasa momentu horretan zuentzako?
- Nola sentitu da azken pertsona, lerroa zeharkatzen saiatu behar izan duenean, jakinda lortzeko ia aukerarik ez zuela?
- Zer irudituko litzaizueke munduko herrialde batetik bestera mugitzea debekatuko balitz?
- Zuek arazorik izaten duzue Frantziara pasatzeko? Zer irudituko litzaizueke noizbait Iruritan sortu izateagatik Frantziara pasatzea debekatzea? Eta bitartean Iruñan jaiotzen direnak arazorik gabe Frantziara pasatu ahal izatea?

2. Baliabidea. Bidaiaren marrazkia egin eta gero planteatutako galderak.

- Bidaiatzea gustuko duzue?
- Zergatik?
- Zein dira bidaiatzeko izaten ditugun arrazoiak?
- Zer da bidaiaren zehar egiten duguna?
- Orain arte egin ditugun bidaietan bagenekien noiz bueltatuko ginen etxera? Eta etxera itzultzeko gogoia genuen?
- Beraz, zuentzako bidaiatzea plazer bat da? Nahi duzuelako egiten duzuen zerbait?

3. Baliabidea. Fatimaren historia eta argazkiak.

Niri ahal dudanetan gustatu egiten zait laguntzea. Ingurukoek laguntza eskatzen didatenean laguntzen saiatzen naiz, eta noski nik ere laguntza behar dudanetan eskatu egiten dut. Nik uste denok behar dugula laguntza ezta?

Ba munduko txoko guztietan beti badago norbait laguntza behar duena eta baita laguntza emateko prest dagoena ere. Ni uda honetan Grezian egon naiz, badakizue non dagoen Grezia? (mapan kokatu genuen). Han errefuxiatu edo migratzaileen kanpamendu batean egon nintzen bertan bizi diren pertsonen lagundu nahian. Han ezagutu nuen Fatima eta oso lagunak egin ginen. Fatimak 8 urte ditu eta Greziako Vial errefuxiatu kanpamenduan bizi da. Baina bera ez zen Grezian jaio, bera Sirian jaio zen. Badakizue non dagoen Siria? (mapan

kokatu genuen). Damasco hirian bizi zen Fatima. Damasco oso polita da eta oso pozik bizi zen.



Egunero eskolara joaten zen. Arratsaldetan etxeko lanak egiten zituen ahizparekin eta gauetan ohatzera sartu baino lehenago asko gustatzen zitzaion aitatxo, amatxo eta ahizparekin ipuinak asmatzen ibiltzea. Asko maite zuen jolas hau. Berak ipuin baten hasiera asmatu, aitatxok korapiloa asmatu, amatxok jarraitu eta ahizpak bukera ematen zion. Hurrengo egunean ahizpak hasten zuen ipuina, hurrengoan amatxok, hurrengoan aitatxok eta hurrengoan berriz Fatimaren txanda. Ia-ia gauero ibiltzen ziren horrela. Nik ere berarekin jolastu nuen, zelako ipuin politak atera ziren!

Zoritxarrez Damascon gauzak okertzen joan ziren, gerra hasi zen. Fatima eta bere familiarendako arriskutsua zen han gelditzea.



Beraz, dena utzi eta alde egin behar izan zuten. Bidaia luze eta gogorra egin eta gero Greziara iristea lortu zuten, baina Fatimak ez du kanpamendu horretan bizi nahi.



Berak zuek bezala eskolara joan nahi du eta etxe batean bizi nahi du bere familiarekin batera. Eta orduan galdetuko duzue zer ari den Fatima Grezian ezta? Ba bera eta bere familiak, eta baita bere egoeran daude beste milaka pertsona ere, blokeatuta gelditu dira han. Ez diete Espainara, Alemaniara, Italiara, Euskal Herrira...beste herrialde batera uzten pasatzen. Eta hementxe bizi dira:



Ondoren planteatutako zenbait galdera:

- Bizitzeko leku aproposa da hau pertsona batentzat?
- Gustatuko litzazueke han bizitzea?
- Zuen ustez egoera latza hau bizi duten pertsona hauek gure eskubide berberak merezi dituzte? Merezi dute eskolara joan ahal izateko eskubidea adibidez?

4. Baliabidea. Fatimaren bidaiaren gutuna.

Kaixo, Alaitz:

Zer moduz zaude? Zer moduz Irurritako eskolan? Lagun berriak egin dituzu?

Gaurkoan ere amesgaiztoak izan ditut. Badakizu, askotan oroitzen naiz bizi izandako bidaiaz, hotzikarak sortzen zaizkit. Gogoan dut eguna.

Egun batetik bestera Damasco utzi behar izan genuen. Aita korrika etorri zen etxera, tiro-hotsak entzuten ziren urrutian. Maletan janari eta arropa pixka bat sartu genuen, ezin izan genuen ia ezer eraman. Momentu honetan nik ez nekien luzaroan behintzat ez ginela etxera bueltatuko. Oso triste zeuden aita eta ama. Ni izututa nengoen, ez nekien zer gertatzen zen. Ia bizilagun guztiek alde egin genuen. Eskolara ezin ginen joan, erre egin baitzuten, gure etxearekin gauza bera gertatuko zen beldur ginen, beraz, segurtasun bila atera ginen Siriatik.

Bidaia oso neketsua izan zen. Turkiara iritsi ginen. Turkian errefuxiatu kanpamendu batean bizi ginen. Aita eta ama ordu pila bat egoten ziren gogor lanean eta oso nekatuta eta triste itzultzen ziren beti. Urtebete Turkian bizi eta gero, Greziara pasatu ahal izateko dirua lortu zuten gurasoek, diru guztia gastatu genuen bidaia hartan. Nire bizitzako egunik okerrenea izan zen Turkiatik Greziara pasatzeko txalupa txiki horretan sartu ginen eguna. Dena ilun-ilun zegoen eta pertsona asko sartu ginen txalupa txiki hartan, ez ginen ia- ia sartzen. Bidaian zehar negar handiak egin genituen. Olatuak oso altuak ziren eta ikaratuta geunden, uretara erortzeko beldur handia nuen. Txalupa hondoratzen hasi zen eta ura txalupan sartzen hasi zen. Denok hasi ginen oihuka negar batean. Zorionez, itsasontzi handiago bat iritsi zen eta hondarretara eraman gintuen. Geroztik, kanpamendu honetan bizi naiz. Nire egoera berbera bizi duten lagun asko ditut hemen, eta nire kasuan zorionekoa naiz aita, ama, ahizpa eta ni bizirik atera

garelako. Lagun berri hauen familiakide asko hil egin dira bidaiari zehar. Siriako lagunak asko somatzen ditut faltan, baina hemen bizitzeak duen alde ona herrialde desberdinetako lagunak egiten ari naizela da: Nigeriakoak, Afganistanekoak, Irakekoak...eta baita zure kasuan bezala Euskal Herrikoak ere. Asko gustatuko litzaidake Iruritako eskolako haurrak ezagutzea, seguru nago oso lagun onak egiten ginela eta elkarrengandik aunitz ikasiko genuela.

Baina oraingoz, hemen jarraitu beharko dut. Ez digute Euskal Herrira joaten utzi nahi. Hemen nahi gaituzte, geldirik. Hala ere, nik ez dut hemen betiko bizi nahi, eskolara joan nahi dut eta etxe batean bizi nahi dut Sirian bezala. Beraz, bidaiari oraindik ez da bukatu.

Ongi segi, Alaitz eta emaezu muxu bana zure Iruritako lagun berriei.

Fatima.

5. Baliabidea. Fatimaren bidaiaren gutuna irakurri eta gero planteatutako galderak.

- Nola bidaiatzen du Fatimak Turkiatik Greziara?
- Bidaiatzeko modu segurua iruditzen zaizue hau?
- Zergatik uste duzue herrialde batetik bestera pasatzeko haien bizitza arriskuan jartzen duten pertsonak daudela?
- Pertsonok pakean bizi ahal izateko herrialdez mugitzeko eskubidea dugula uste al duzue?

6. Baliabidea. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren inguruan landutako artikuluak.

3. artikulua: Norbanako guztiek dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.

13. artikulua: Pertsona orok du edozein herrialdeetatik, bai beretik ere, irteteko eta bere herrialdera itzultzeko eskubidea.

25. artikulua: Pertsona orok du osasunerako, ongizaterako, elikadurarako, etxebizitza izateko eta mediku sorospenerako eskubidea.

7. Baliabidea. Lekualdatzearen arrazoiak eta Europak hartutako jarrera laburki.

Munduan badira pertsona asko haien etxeak uztera behartuak izaten direnak bizitza seguru eta baketsu bat lortzeko. Baina ez beste leku bat bisitatzeko irrikitan daudelako, baizik eta bizi diren lekuan arriskuan daudelako:

- sinesten duten erlijoarengatik
- gerrarengandik
- bizirauteko baliabideen beharra dutelako
- behartutako ezkontza baten mehatxua dutelako
- Giza Eskubideen urraketa pairatzeagatik
- aldaketa klimatikoarengatik
- bazterkeria mota guztiengatik
- espoliozio historikoak eragin duen pobreziaarengatik
- ...

Europako herrialdeek pertsona migrante gehiegi direla diotela eta horregatik ezin direla pertsona guztien beharrak eta eskubideak bete. Gainera, Europako herrialde hauek, noski Euskal Herria barne, eta baita beste batzuk ere, hala nola, Estatu Batuak, gerrarekin bukatzen saiatu beharrean arma gehiago saltzen dituztela azaldu genien.

8. Baliabidea. Panpin migratzailea identifikatzean planteatutako galderak.

- Nola dakizu hori dela migratzailea den panpina?
- Zein desberdintasun ikusten diozu gainerakoekin konparatuta?
- Nola dakizu bera dela bere jaioterritik ateratzera behartua izan den panpina?
- Aspektu fisikoak migratzaile bihurtzen zaitu?

9. Baliabidea. Parekidetasun ezaz ohartzeko planteatutako egoerak.

- Norentzako izango da errazagoa eskubide guztiak betetzea eta errespetatua izatea?
 - a) Iruritan sortu den haur batentzako.
 - b) Gerra dagoen herrialde batetik ihesi joan den pertsona batentzako, pertsona migratzaile batentzako.
- Norentzako izango da errazagoa eskubide guztiak betetzea eta errespetatua izatea?
 - a) Larru azal kolorea txuria duen pertsona batentzako.
 - b) Larru azal kolorea beltzarana duen pertsona batentzako.

- Norentzako izango da errazagoa eskubide guztiak betetzea eta errespetatua izatea?
 - a) Homosexuala den pertsona batentzako.
 - b) Heterosexuala den pertsona batentzako.

- Norentzako izango da errazagoa eskubide guztiak betetzea eta errespetatua izatea?
 - a) Mutiko batentzako.
 - b) Neska batentzako.

- Norentzako izango da errazagoa eskubide guztiak betetzea eta errespetatua izatea?
 - a) Zuetako batentzako.
 - b) Ijito batentzako.

- Norentzako izango da errazagoa eskubide guztiak betetzea eta errespetatua izatea?
 - a) Ikasteko zailtasunik ez duen pertsona batentzako.
 - b) Ikasteko zailtasun handiak eta erritmo motela duen pertsona batentzako.

Egoeren inguruko hausnarketa bideratzeko galdera posible batzuk:

- Errespetuz tratatzen ditugu pertsona hauek edo irri egiten dugu noizbehinka?
- Zuen ustez, beltza den pertsona bat txuria den pertsona bat baino pobreagoa izango da beti?
- Zuen ustez, mutiko bat neska bat baino indartsuagoa eta ausartagoa izango da beti? Baina, adibidez, nesken kasuan betidanik hori sinestarazten badiegu zaila izango da ausarta edo indartsu sentitzea ez?
- Ikasteko zailtasunak dituen pertsona bati betidanik esaten badiogu bera ez dela besteak bezain argia, zer pentsatuko du berak?
- Pertsona beltzaran bati pertsona txuri bat baino garrantzi gutxiago duela sinestarazten badiogu beti, zaila izango da berak kontrakoa pentsatzea eta errespetatua sentitzea ez?

10. Baliabidea. Gure jarrerren inguruan hausnartzeko zenbait galdera.

- Pertsona guztiok eskubide berdinak merezi badiugu zergatik zapaltzen dugu batak bestea?
- Gu oztopo hauek kentzen saiatuko gara edo gehiago jarriko ditugu?
- Ez dago gure esku momentu honetan mugak irekitzea ezta? Baina gure esku dago elkar errespetatzea. Beraz, saiatuko gara gainontzeko pertsonak zaintzen, laguntzen, errespetatzen? edo haietaz gaizki esaka ibiliko gara?
- Saiatuko gara gure jarrerak zaintzen eta guztiak errespetatzen?

11. Baliabidea. Izeia eta Txantxangorriaren ipuina eta galderak.

Joxan Ormazabalen Izei txikia (2010) ipuina da, baina nik moldatua.

IZEIA ETA TXANTXANGORRIA

Behin batean, Euskal Herriko baso batean, Iratin hain zuzen ere, txori txiki bat bizi zen. Txori honek Txantxangorri izena zuen. Udazkena zen eta eguraldia hoztu zen. Horregatik, Txantxangorriak hegoaldera joatea erabaki zuen, Afrika aldera. Urtero egiten zuen bidaia hori negua iritsi baino lehen. Baina egun batean, bere ama janari bila joan zenean, txoria kabitik erori zen eta hego bat hautsi zuen.

Beraz, urte hartan gure txantxangorria ezin zen hegoaldera joan. Zergatik? hego bat hautsita zuelako, eta horrela ezin zuelako hegan egin.

Txori gaixoa, orduan, zuhaitz batengana joan zen babes bila:

- Aizu, lizar! Egin dezaket kabia zure hostoen artean? Zaurituta nago eta hotz handia egiten du.
- Utzi bakean eta zoaz nahi duzun lekura! San Juan gauerako gorde behar ditut adarrak, gau horretan etxeko atariak apaintzeko- erantzun zion lizarrak umore txarrez.

Txoria, gero, gaztainondoari hurbildu zitzaion eta galdetu zion:

- Aizu, hego bat hautsita dut eta ezin dut hegan egin. Izugarri hotz handia egiten du. Pasa dezaket negua zure hosto artean?
- Hemen hontza bizi da eta nik ez dut beste txoririk nahi. Galdeiozu pagoari, edo haritzari, edo urkiari...

Txoria gero eta tristeago zegoen. Haritzarekin hitz egitera joan zen eta...

- Haritz, pasatzen ahal dut gaua zure adarretan? Ezin dut hegan egin.
- Nire adarretan? Ez, ezta pentsatu ere! Goizean zure kantuekin esnatuko bainazu eta niri berandu arte lo egitea gustatzen zait. Gainera, hemen galditzen bazara, nire ezkurak janen dituzu.

Orduan, txoria pagoarekin hitz egitera joan zen eta...

- Pago, egiten ahal dut kabia zure adarretan?
- Ez, ez. Hor konpon! Adarrak hautsiko dizkidazu eta. Zoaz hemendik lehenbailehen!

Txoria negarrez hasi zen. Eguzkia lo egitera joan zen eta ilargia atera zen. Basoaren beste aldean izeia bizi zen. Txoria bere azpian gelditu zen atsedean hartzera eta horrela esan zion:

- Izei, mesede bat eskatu behar dizut. Ezin naiz Afrikara joan hego bat hautsita baitut. Beste zuhaitz guztiek ezetz esan didate, baina, zuk baimena emanen didazu zure adarretan negua pasatzeko?
- Oso gustura gainera- erantzun zion errukituta. Jar zaitetz beheko adarretan, hor bero-bero egonen baitzara. Gainera, ez zara bakarrik egonen, lagun gehiago ere izanen dira zurekin eta. Txoko hori txori askoren etxea izaten da neguan.

Udazkenarekin batera haize gogorrak iritsi ziren:

- Oso indartsua naiz eta hosto guztiak kenduko dizkizuet- esan zien haizeak zuhaitz guztiei.
- Ez, ez bota gure hostoak, mesedez!- erantzun zioten zuhaitzek.
- Zertarako nahi dituzue hostoak? Txorien kabiak berotzeko?
- Guk ez dugu kabirik-erantzun zioten zuhaitzek.
- Kabirik ez baldin baduzue, ez duzue historik behar- erantzun zien haizeak. Eta, oso haserre, hosto guztiak bota zituen.

Baina, izeiarengana joan zenean...

- Ez, mesedez! Ez bota izeiaren hostoak, bere adarretan egin dut kabia eta- esan zion txantxangorriak.
- Ongi da. Izeiari ez dizkiot hostoak kenduko - esan zion haizeak.

Eta haizea Iparraldeko Basoetara joan zen, izeia bakean utziz. Horregatik, udazkenean, zuhaitzak historik gabe galditzen direnean, izeiak hostoz beteta jarraitzen du. Halaxe erabaki zuen haizeak. Eta zergatik? Izeiak Txantxangorriari lagundu ziolako.

1. Behin batean, Euskal Herriko baso batean, Iratin hain zuzen ere, txori txiki bat bizi zen. Txori honek Txantxangorri izena zuen. Udazkena zen eta eguraldia hoztu zen. Horregatik, Txantxangorriak hegoaldera joatea erabaki zuen, Afrika aldera. Urtero egiten zuen bidaia hori negua iritsi baino lehen. Baina egun batean, bere ama janari bila joan zenean, txoria kabitik erori zen eta hego bat hautsi zuen.

Beraz, urte hartan gure txantxangorria ezin zen hegoaldera joan. Zergatik? hego bat hautsita zuelako, eta horrela ezin zuelako hegana egin.



4


2. Txori gaixoa, orduan, zuhaitz batengana joan zen babes bila:

- Aizu, lizar! Egin dezaket kabia zure hostoen artean? Zaurituta nago eta hotz handia egiten du.
- Utzi bakean eta zoaz nahi duzun lekural- erantzun zion lizarrak umore txarrez.




6

3. Txoria, gero, gaztainondoari hurbildu zitzaion eta galdetu zion:
- Aizu, hego bat hautsita dut eta ezin dut hegan egin. Izugarri hotz handia egiten du. Pasa dezaket negua zure hosto artean?
 - Hemen hontza bizi da eta nik ez dut beste txoririk nahi. Galdeiozu pagoari, edo haritzari, edo urkiari...



8


4. Baina Txantxangorria alferrik ibili zen zuhaitzetik zuhaitzera babes bila. Denek erantzun berdina ematen zioten. Ezetz eta ezetz. Txoria negarrez hasi zen.



10


5. Basoaren beste aldean izeia bizi zen. Txoria bere azpian gelditu zen atseden hartzera eta horrela esan zion:

- Izei, mesede bat eskatu behar dizut. Hego bat hautsi zait, horrela ezin dut hegan ongi egin eta ezin naiz Afrikara joan. Beste zuhaitz guztiek ezetz esan didate, baina, zuk baimena emanen didazu zure adarretan negua pasatzeko?
- Bai, oso gustura gainera- erantzun zion Izeiak errukituta.- Jar zaitetz beheko adarretan, hor bero-bero egonen baitzara. Gainera, ez zara bakarrik egonen, lagun gehiago ere izanen dira zurekin eta. Txoko hori txori askoren etxea izaten da neguan.




12

6. Hantxe, izeiaren hosto artean, igaro zituen txantxangorri zaurituak ordurik gehienak. Zuhaitz hartan bizi ziren beste txoriek asko maite zuten, eta haiek ekartzen zioten janaria.



14



Hausnarketa bideratzeko galdera posibleak:

- Zein da protagonistaren arazoa? Zer behar du?
- Zein da laguntza eskatzen duenean zuhaitzek duten jarrera?
- Norbaitek laguntzen dio?
- Zer erakusten die neguak lagundu ez dioten zuhaitzei hostoak haserre biazan botatzen dizkienean?
- Norbaitek laguntza eskatzen dizunean nola erantzuten duzue? Laguntzen saiatzen zarete?
- Zuk zertarako behar izaten duzu laguntza? Laguntza behar izan duzunetan lagundua sentitu zara?

12. Baliabidea. Fatimak egindako ipuinaren hasiera.

Esatekoa da, ipuin hau “Cuentos viajeros” liburuko ipuin batean dagoela oinarrituta (De Pina Castiglione aipatua, 2017). Bertan Siria eta Kurdistango haur errefuxiatu batzuek Grezian sortutako 8 narrazio biltzen dira.

AMIRA PRINTZESAREN DESIOA

Bazen behin, Amira izeneko printzesa bat. Behin bere urtebetetzerako maitagarri batek desio bat eskatzeko aukera eman zion. Berak desioa pentsatu bitartean urtebetetzea ospatzen ari ziren lagunak hitz eta pitz ibili ziren:

- Nik soineko polit bat eskatuko nuke!- oihukatu zuen igelak.
- Nik printzipe polit eta ausarta nitaz maitemintzea- esan zuen txoritxo batek lotsaz gorritzen ari zen bitartean.
- Ez, ez, askoz hobe, urrezko eta zilarrezko bitxiak eskatuko nituzke!- esan zuen igelak gehiago pentsatu ondoren.
- Ba ez bata eta ez bestea, nik argi daukat zer nahi dudan!- esan zuen pozik Amira printzesak- munduan barna bidaiatu nahi dut, ahal dudan guztia ikasi eta ezagutu nahi dut!

13. Baliabidea. Kamishibaiaren nondik norakoak azaltzeko PPT-a.



ZER DA?

IPUINAK KONTATZEKO TEKNIKA BAT DA.

NON SORTU ZEN?

Kamishibai Japonian sortu zen XII.mendean. Garai horretan, biztanle gehienak analfabetoak ziren. Monjeek marrazkiak eta testuak konbinatzen zituzten istorioen bitartez haien irakaspenak zabaltzeko.

ZER ESAN NAHI DU?

KAMI HITZAK PAPERA ESAN NAHI DU.

KAMISHIBAI HITZAK PAPEREZKO ANTZERKIGINTZA ESAN NAHI DU.

Japonieraz Kamishibai 紙芝居

HEDAPENA

Azken hamar urteotan hedatu da bereziki.

Kamishibai-aren artea oso hedatuta dago:

- Asiako hainbat herritan; esate baterako Vietnamen eta Laosen.
- Ameriketara, bereziki Amerikako Estatu Batuetara hedatu da.
- Europan Frantzia, Alemanian, Suitzara, Herbeheretara eta orain, Euskal Herria.

14. Baliabidea. “Ni bezalako haurrak” liburuaren inguruan hausnartuz.

Galdera batzuen bitartez bideratu genuen hausnarketa, hala nola:

- Badakizue non dagoen Vietnam?
- Ezagutzen duzue Vietnameko norbait?

Agian Vietnameko norbait ageri da liburu honetan. Guztion artean liburuan agertzen dena irakurri ondoren:

- Baina denak dira Vietnameko haur hau bezalakoak?
- Denok merezi dugu errespetuz tratatzea? Bakea eta zoriontasuna?

Pertsonak gara denak eta amankomunean pentsatzen duguna baino gauza gehiago ditugu, besteak beste denok bizi nahi dugu zoriontsu ez?

15. Baliabidea. “Eguzki katua” kamishibaia.

“Eguzki katua” kamishibaia (Fuentes eta Iglesias, 2006).



16. Baliabidea. Euskal etxeen kokalekua ageri den mapa interaktiboa.

Euskal Herritik kanpo bizi diren euskaldunen berri izatean munduan barna dauden Euskal Etxeen inguruan hitz egin genuen. Horretarako <https://www.euskaletxeak.net/> webgunea erabili genuen. Bertan, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren erregistro ofizialean jasoak izan diren Euskal Etxeak agertzen dira mapa interaktibo batean (Eusko Jaurlaritza, eguneratua).

The image is a screenshot of the website "euskaletxeak.net". The header includes the website name, "munduko euskal etxeen ataria", and language options: "euskera", "español", "english", "français". There is a search bar with "bilatu..." and "bilatu" buttons. Below the header are several navigation buttons: "Euskal Etxeen sarea", "Non zer berri", "Oroimen historikoa", and "Comunidad virtual". On the right side, there are input fields for "Erebitzailea", "Pasahitza", and "Gogoratu:", along with a "Sartu" button and a link "Erregistratu hemen". The main content area has a breadcrumb trail: "Hasiera > Euskal Etxeen sarea > Euskal Etxeak". The title is "Euskal etxeak". Below the title, it says "Webgune honetako 'euskaletxeak' Eusko Jaurlaritzaren erregistro ofizialean jasotakoak dira." and "Euskal etxeen datuak eguneratuta, XLS formatoan". There is a section titled "Euskal etxeen zerrenda" with dropdown menus for "Herrialdea" (set to "Bat aukeratu"), "Hiria", and "Euskal etxe" (set to "Bat aukeratu"). Below these are "Bat aukeratu" and "Aukeratu" buttons. The main feature is an interactive map titled "Mapa" and "Satélite" showing the world with green house icons indicating the locations of Basque homes. The map is powered by Google. At the bottom, it says "Aurkituak 193 emaitzak".

17. Baliabidea. Fatimaren jolasen inguruko gutuna.

2017ko abenduaren 13a, asteazkena.

Kaixo, Alaitz:

Zer moduz zaude?

Ni nahiko aspertuta nabil. Faltan somatzen ditut Sirian nituen lagunak. Hala ere, oso kontent jarri nintzen Iruritako eskolako haurrei nire inguruan hitz egin zeniera irakurtzean eta are gehiago Iruritako eskolan niretzako lekua egiteko prest daudela jakitean. Ikaragarri gustatuko litzaidake Iruritako lagunak ezagutzea. Gainera, arrazoa dute zure lagunek, Iruritan biziko banintz gauza aunitz ikasiko genuke gure artean: ohiturak, hizkuntza, jolasak...Damascen bizi nintzenean oso zoriontsu nintzen, baina egia da ez nituela hainbeste jolas ezagutzen, beti Damascoco lagunekin ibiltzen nintzen eta jolas berdinak ezagutzen genituen guztiok. Oroitzen zara ze irriak egin genituen Sirian aunitz jolasten den irrien jolasa erakutsi nizunean?

Hemen konturatu naiz ezagutzen dudan pertsona bakoitzak zerbait berria irakasten ahal didala. Mundu osoko lagunak ditut orain, eta lagun bakoitzak jolas berriak erakusten dizkit. Polita izango zen munduko herrialdeetako jolasak liburuxka berean biltzea baietz? Eta norbait berria ezagutzen dugun bakoitzean jolas berri bat gehiago biltzea.

Ongi segi eta emaezu besarkada bana Iruritako eskolako ikasle eta irakasleei.

Fatima.

18. Baliabidea. Fatimarekin batera bildutako jolasak.

- **Sinba eta antilopea (ZAIRE):**

Taldeko lagun bat Simba izango da (lehoia) eta bestea antilopea izango da. Gainontzeko lagunak kopuru berdineko lerro paraleloetan kokatuko dira lerro berdinean dauden lagunak bata besteari eskutik helduz.

Dinamizatzaileak seinalea egiten duenean, lehoia antilopearen atzetik abiatuko da, honek ihes egiten duen bitartean. Beti ere beste lagunaren artean/inguruan ibili beharko dute.

Dinamizatzailleak “aldatu!” esaten duenean, eskutik helduta dauden lagunek 90 graduko buelta egingo dute berriro lerroak sortuz eta lerro berriko kideei eskutik helduko diote. Berriz “aldatu” esaten duenean, berriro hasierako lerroetara bueltatuko dira. Honela, lehoia eta antilopea desorientatu egingo dira.

Lehoiak antilopea harrapatzea lortzen duenean rola aldatuko dituzte. Denbora tarte bat egiten dutenean, beste 2 lagun aukeratuko dira lehoia eta antilopea izateko.

0. Ardi galdua (Guatemala):

Lagun batzuk lurlean zangoak gurutzaturik eseri behar dira borobil bat eginez. Borobilaren kanpo aldean, eserita dauden lagunak baino bat gehiago egon behar dira zutik. Dinamizatzailleak seinalea egiten duenean, zutik dauden lagunak borobilaren inguruan biraka hasi behar dira korrika. Dinamizatzailleak hurrengo seinalea egiten duenean, biraka dabiltzan lagunak eserita dauden lagunaren artean eseriko dira. Tokirik gabe gelditzen den laguna izango da ardi galdua eta dinamizatzaille bihurtuko da.

- **Ez irrik egin (Siria):**

Jolasean arituko diren lagunak borobil bat osatu behar dute zutik.

Bat jolasaren gidaria izango da. Honek keinu edo mugimendu bat egin behar du eta jarraian, beste kideek banan-banan errepikatu behar dute.

Kideek ezin dezakete irrik egin keinua beraiek imitatu behar duten momentuan. Beste lagunak bitartean irria eragin behar diote.

Kide batek irri egiten duenean, berak egin beharko du hurrengo keinua.

- **Kboddi (Pakistan):**

Bi talde egin behar dira eta zelaia bitan zatitu behar da erdian marra bat eginez.

Talde bakoitzeko kide bat zelaiaren erdiko marrara hurbilduko da eta bere helburua kontrako taldeko kideari belauna ukitzea izango da, honek bere belaunak ukitu aurretik, noski.

Belaunetako bat ukitzen dioten laguna beste taldera pasako da.

- **Tuneleko lasterketa (Australia):**

Lagun kopuru bakoitia behar da jolasteko.

2 borobil osatu behar dira, bata bestearen barnean. Borobil bateko lagunak beste borobilekoei begira egon behar dira eta elkarri eskuetarik helduz, zubiak osatuz.

Bikoterik ez duen laguna, zubietatik pasatuz, borobilari birak ematen hasiko da. Nahi duenean, bikote bateko kide bati gerritik helduko dio. Hori egiten duenean, gerritik heldu duen laguna eskuinerantz lasterka irtengo da eta bere bikotea berriz ezkerretara. Biek

borobilari bira eman eta toki berberera itzuli behar dute. Lehenbizikoa iristen denak eskutik helduko dio han dagoen kideari eta azkena iristen dena izango da hurrengo txandan borobilean biraka ibiliko dena.

- **Orkestra zuzendaria (Euskal Herria):**

Jokalari guztiak bat izan ezik borobilean jarriko dira lurrean.

Borobiletik kanpo geratu den jokalaria urrutiratu egin beharko da besteek diotena ez entzuteko. Bitartean besteek zuzendari bat aukeratuko dute. Laguna borobilaren erdian jarriko da orduan eta zuzendaria, musikaren erritmoari jarraituz, dantza pausu ezberdinak edo instrumentu ezberdinak jotzen ariko balitz bezala egingo du, noizbehinka aldatuz. Gainontzekoek zuzendariak egiten duena errepikatu beharko dute, baina disimulatuz.


Jolasaren helburua borobiletik aparte geratu den jokalaria zuzendaria nor den asmatzea da.


Asmatzen bada zuzendaria izango da borobiletik kanpo geldituko dena hurrengo aldian.

Oharra: talde handia bada, borobiletik kanpo pertsona bakarra behar 2 gera daitezke.

19. Baliabidea. Mapamundien kutsu etnozentriztaz hausnartzeko PPT-a.

MUNDUKO MAPA
BAKARRA DAGO?





20. Baliabidea. Fatimaren berriaren inguruko gutuna.

2017ko abenduaren 17a, igandea.

Kaixo, Alaitz:

Zer moduz zaude?

Oso kontent jarri nintzen Iruritako eskolako haurrei nire inguruan hitz egin zeniera irakurtzean eta are gehiago Iruritako eskolan niretzako lekua egiteko prest daudela jakitean. Ikaragarri gustatuko litzaidake Iruritako lagunak ezagutzea. Gainera, arrazoia dute zure lagunek, Iruritan biziko banintz gauza aunitz ikasiko genuke gure artean: ohiturak, hizkuntza, jolasak...

Hemen oso giro tristea nabari da egun hauetan. Esperantza guztiak joan zaizkigu berriro ere. Irakurriko zenuen berria ezta?

Zergatik esan zuten gutako batzuk behintzat Espainira joan ahalko ginela hori ez badute bete behar?

Gurekin jolasten ari direla ematen du, ez dira konturatzen haiek bezala gu ere pertsonak garela eta sentimenduak ditugula.

Oso triste jartzen naiz zuk diozun horrekin gainera. Pertsona asko ez dira bizi dugun egoera honetaz eta Espainiak egoera honen aurrean izaten ari den egoeraz jabetzen ari.

Amorrua handia ematen digu horrek eta egoera hau salatzen saiatzen gara hemendik. Gure nahia pertsona guztiek bizi dugun egoera hau eta honen aurrean estatu espainolak, besteak beste, izaten ari den erantzun penagarria ezagutaraztea da. Eta noski, behin egoera tamalgarri hau ezagututa irtenbide bat ateratzeko indarrak batzea.

Dena den oihartzun handiagoa izateko laguntza behar dugu. Lagunduko didazu gure salaketa hau zabaltzen?

Ongi segi eta emaezu besarkada bana Iruritako eskolako ikasleei.

Fatima.

21. Baliabidea. Espainiak bete ez duen akordioa hobeki ulertzeko berria.

Espainiak bete ez duen akordioa hobeki ulertzeko irakurritako berria (Montoya, 2017) eta planteatutako zenbait galdera:



Badaezpada euskaraz irakurri nien:

"Denbora bukatu da: Rajoyek ez du kuota bete eta pertsona errefuxiatu gutxiago hartzea eskatzen du"

2017ko irailaren 26a, ailegatu da eguna, eta Europar Batasunak orain dela 2 urte hartutako konpromezuan adostutakoaren %17a baino ez ditu onartu. Espainiak %1,4a bakarrik onartu du eta kuota jeistea eskatzen du. Hungria, Polonia eta Txekiar Errepublikak ez du bat ere ez hartu. Europar Batasuna ez da giza eskubide eta asiloaren inguruko legeak errespetatzen ari (Montoya, 2017. NET. Nik itzulia).

Berriaren inguruan planteatutako zenbait galdera:

- Ados zaudete Espainiak izandako jarrerarekin? Bidezkoa da pertsona migratzaile, lekualdatu eta errefuxiatuek bizi duten egoera?
- Gurekin egon beharko luketen eta falta ditugun pertsona migratzaile eta errefuxiatuen %89 hori gurekin nahi ditugu?

22. Baliabidea. Salaketa baten adibidea.

Iruñea Ciudad Acogida (ICA) taldearen idazkia:

2017ko irailaren 26 honetan "denok egon beharko genuke".

Gaudenak gaude, baina gehiago izan beharko ginateke. Gutxienez, 16.000 gehiago. Gaur, irailaren 26a, salatu nahi dugu Europako herrialdeek 170.000 pertsona errefuxiaturi harrera egiteko emandako bi urteko epea bukatu dela eta Espainiako gobernuak, arlo honetan eskumenak dituen bakarrak, ez duela deus ere egin. 17.337 pertsonako kupotik, 1.984 besterik ez dira iritsi. Hau da, ezta % 12 ere.

Honen aurrean isilik gelditzea konplize izatea da, koldarkeria baino ez da.

Europar Batasunak heriotz bideak hartzera behartzen ditu migratzaileak. Askatasuna eta eskubideak murriztu eta arrazakeria zabaltzen du. Migratu nahi duen jendea kontrol militarrek saihestera eta bide arriskutsuak igarotzera behartzen du. Horregatik, gaur, irailaren 26an, Espainiako gobernuaren eta Europako estatu gehienen arduragabekeria salatu nahi dugu.

Gaur faltan somatzen ditugu gauza asko: lehenik eta behin, iritsi ez diren pertsonak, ez zaielako utzi edota saiakeran hil direlako. Faltan somatzen dugu gobernatzen dutenen zentzutasun eta elkartasun eza. Halaber faltan somatzen ditugu justizia soziala eta bakea. Faltan somatzen dugu gatazkak dauden herrialdeetan bertan soluzio errealak bilatzeko ahalegin urria edo eza, gatazka hauek baitira askotan pertsonak migratzera bultzatzen dutenak. Laburbilduz, faltan somatzen ditugu giza eskubideak.

23. Baliabidea. Salaketa gutunaren formato posiblea.

Data.

1. Hasierako agurra
2. Nor gara?
3. Zertarako idazten dugu?
4. Egoera azaldu.
5. Eskaera.
6. Bukaerako agurra.
7. Sinadura.

.....DATA.....

1).....:

2).....

.....

3) Gure desadostasuna adierazteko eta irtenbide bat bilatzeko idazten dugu.....
.....

4)Izan ere,
.....
.....

5) Egoera honen aurrean.....eskatzen dugu
.....
.....

6) Gure eskakizuna kontuan hartuko duzulakoan.....

7).....

24. Baliabidea. Fatimak bidalitako azkeneko gutuna.

2018 urtarrilaren 26a, ostirala.

Iruritako lagunak,

Alaitzek kontatu dit unibertsitatera bueltatu beharra duela, irakasle izateko ikasten jarraitzera. Zuekin gelditzea gustatuko litzaioke, baina oraingoz joan beharra dauka. Pozik dago zuek ezagutu izanagatik.

Niri ere asko gustatu zait gutunen berri izan arren zuen berri izatea.

Mila esker nire ipuinaren hasierari jarraipena emateagatik eta hain kamishibai politik egiteagatik.

Jolas bilduma ere asko gustatu zait, jolas gehiago biltzera animatzen zaituztet!

Mila esker ere, bidalitako janariarengatik eta janariarekin batera bidalitako txartelengatik, asko gustatu zaizkigu eta indarrez bete gaituzue!

Mila esker hainbeste jostailu eta arropa biltzeagatik.

Mila esker egindako salaketa gutunarengatik, asko eskertzen da babes eta geroz eta gehiago izan egoera hau salatzen dugunok gero eta indar gehiago izango dugu.

Asko gustatuko litzaidake besarkada bana eman ahal izatea, baina badakizuen bezala, ez didate Euskal Herrira modu seguru batean joaten uzten. Amalurrak hitz egiterik balu ez dut uste harresiz eta gerraz beterik egon nahiko zuenik.

Nik argi daukat, denak gara desberdinak, baina denok dugu pentsatzen duguna baino gehiago komunean. Guztiok merezi dugu errespetua, denok merezi ditugu eskubide guztiak. Guztiongandik ikasi daiteke, nik zuengandik asko ikasi dut eta espero dut zuek nigandik zerbait ikasi izana.

Zuen artean errespetatu, zaindu eta maitatu.

Fatima.



25. Baliabidea. Ikasleei oparitutako txaparen marrazkia.



9.5. Ikasleen produkzioak.

1. Produkzioa. Egindako bidai baten marrazkien zenbait adibide.


Ikasleek egindako bidaien marrazki guztietan hegazkinak, kotxeak, itsasontzi handiak edo hotelak marraztu zituzten. Fatimaren bidaiaren gutuna irakurtzean nabarmena izan zen kontrastea eta horretaz kontziente izan ziren oso.



2. Produkzioa. LHko 2. mailako ikasleek egindako kamishibaiak.

1. Taldearen kamishibaia.





① Bazen behin Amira izeneko printzesa bat. Behin bere urtebetetzeko
maitagarri batek desio bat eskatzeko aukera eman. Berak
desioa pentsatu bitartean urtebetetzeal ospatzen ari ziren
lagunak hitz eta pitz ibili zireni. Vik soineko polit bat
eskatuko, nukel oihukatut zuen igelak. Vik printzepe polit eta ausarta
nitaz maitemintzea esan zuen txoritxo batek lotaiz gorritzen ari zen
bitartean. - Ez, ez askoz hobee, urrezko eta zilarrezko bitxiak eskatuko nitutake! -
esan zuen igelak gehiago pentsatu ondoren.



1

2) Ba ez bata eta ez bestea nik argi daukat zer nahi
dudan!-esan zuen pozik. Amara printzesak-munduan berna bidaiatu nahi
dit,ahal dudan guztia ikusi eta ezagutu nahi dit!



2

③ Maitagarriak barita hautsi zitzaion eta boterea galdu zuen. Maitagarria fabrikara joan zen barita konpontzera. Eta fabrikakoak barita konpontu zuen. Maitagarriak boterea eman zion eta Amira printzesa konten egon zen.



4) Amira bidaiatzen hasi zen eta Txinam joan zen ~~txinatar~~
hizkuntza ikastera.



41

5) Eskolara goan behar zerean galdu egin
zen eta tximatar hizuntza ezin izan zuen
ikas.



5

6 Mapa bat ikusi zuten lorean eta eskolako bidea agertzen zen. Orduan eskolara joan zen eta hainbat hizkuntza ikasi zuten.



6

7 Hala bazam edo ez bazam sar dadila
kalo bazam eta atera dadila
eskolako plazam.

2. Taldearen kamishibaia.

AMIRA
PRINZESAREN
DESIOA



5

1

Bazen behin, Amira izeneko printzesa bat. Behin bere urtebetetzerako maitagarri batek desio bat eskatzeko aukera eman zion. Berak desioa pentsatu bitartean urtebetetzea ospatzen ari ziren lagunak hitz eta pitz ibili ziren:

- Nik soineko polit bat eskatuko nuke!- oihukatu zuen igelak.
- Nik printzipe polit eta ausarta nitaz maitemintzea- esan zuen txoritxo batek lotsaz gorritzen ari zen bitartean.
- Ez, ez, askoz hobe, urrezko eta zilarrezko bitxiak eskatuko nituzke!- esan zuen igelak gehiago pentsatu ondoren.
- Ba ez bata eta ez bestea, nik argi daukat zer nahi dudan!- esan zuen pozik Amira printzesak- munduan barna bidaiatu nahi dut, ahal dudan guztia ikasi eta ezagutu nahi dut!



①

② Amirak itsasentzi bat harriapatu zuen eta honditu
egin zuen. Amira uretara erori zen eta
sirena bat harriapatu zuen. Sirenak Amira
sirena bihurtu zuen.



2)

3) Gero itraso guttia igarim zeharkatu zen
eta irala lortzen gelditu zen. Irda horretan
Amica pectrona liburutu zen.



3

4

Amirak itsasontzi handi-handi bat berriratu zuen
eta itsasontzian igo zen. Gero itsasontziak berriaz etxera eraman
zuen Amira.



4

5
Buelstatu zeream kutsa bat harapatu
Zuen bere logela ondoan. Gero kutsak
galdetu zion:
- Zein da zure deia?
Nire deia munduan barra bidaiatzea zen baina
jada egin dut.



5

5

6 Amirikhere urtebeterea ospatu
sarean.

Eta hala bazan edo ez bazan
sar dadila halabazan eta
atera dadila I. zuritako plazan.

3. taldearen kamishibaia:



7

7

①

Bazen behin, Amira izeneko printzesa bat. Behin bere urtebetetzerako maitagarri batek desio bat eskatzeko aukera eman zion. Berak desioa pentsatu bitartean urtebetetzea ospatzen ari ziren lagunak hitz eta pitz ibili ziren:

- Nik soineko polit bat eskatuko nukel- oihukatu zuen igelak.
- Nik printzipe polit eta ausarta nitaz maitemintzea- esan zuen txoritxo batek lotsaz gorritzen ari zen bitartean.
- Ez, ez, askoz hobe, urrezko eta zilarrezko bitxiak eskatuko nituzkel- esan zuen igelak gehiago pentsatu ondoren.



17

2) Ba ez bata eta ez bestea, nik argi daukat zere nahi dudana: -
eran zuen gazak Amira printzesa - Munduan baren
bidaiatu nahi dut, nahal dudana guztia ikusi eta esagutu nahi
daut.

Eta arduan maitagarria eran zian:

- Nize derisa mundua ikustea eta gauza berriak ikuszea da.



2

3) Ordun mundua ikurtera jasaz eta bidetara Afrikara zabaldu
lehain bat ilarri zuen. Lehenia berari burubiltzen hari ziraian.
Lehenia printzesa jara egun nahi zuen.



3)

4) Ordvare printesak zizten biziara alde egira zuzentzen biziara lehoia
atsegin etortzen zela kontatu zera



47

5

Baina printzesaren lagunak oso kezkatuta zirenez Amira printzesaren


bila joan ziren. Afrikara iritsi zirenean Amirikusi zuten.



5)

6) Nabalala atena zuten eta lehoia hil egin zuten.





3. Produkzioa. Argentinako Arrecifeseko euskal etxeari bidalitako mezua.

Egun on,

Iruritako eskolako 2.mailako ikasleak gara. Gaur euskaldunak mundu osoan barna bizi direla jakin dugu eta ez bakarrik Euskal Herrian eta galdera hauek egin nahi dizkizuegu:


- Zertaz joan zineten harat?
- Nola joan zineten harat?
- Nori bururatu zitzaion euskal etxea egitea? Ze urtetan sortu zen?
- Zertarako egin zenuten?
- Nor biltzen zarete Euskal etxean?
- Zer egiten duzue euskal etxean? Eskulanak egiten dituzue?
- Zer moduz bizi zarete han? Ongi bizi zarete?
- Desberdin jaten duzue?
- Dirua baduzue?
- Lan egiten duzue? Lan egiten ongi konpontzen zarete? Lan berdinak egiten dituzue denek?
- Denek egiten duzue lo etxe batean?
- Faltan botatzen duzue Euskal Herria?
- Nahiz eta Euskal Herrian ez bizi euskaldunak sentitzen zarete?

- Hizkuntza aunitz ikasi dituzue?
- Lagunak egin dituzue?
- Medikua baduzue?
- Baduzue tabernarik?
- Arropa gu bezalakoa baduzue?

Espero dugu agudo erantzutea.

Esker mile!

4. **Produkzioa. Fatimaren laguntzarekin batera sortutako jolas bilduma.**



SIMBA ETA ANTILOPEA




Nola jolasten da?

Taldeko lagun bat Simba izango da (lehoia) eta bestea antilopea izango da. Gainontzeko lagunak kopuru berdineko lerro paraleloetan kokatuko dira lerro berdinean dauden lagunak bata besteari eskutik helduz. Dinamizatzaileak seinalea egiten duenean, lehoia antilopearen atzetik abiatuko da, honek ihes egiten duen bitartean. Beti ere beste lagunaren artean/inguruan ibili beharko dute. Dinamizatzaileak "aldatu!" esaten duenean, eskutik helduta dauden lagunak 90 graduko buelta egingo dute berriro lerroak sortuz eta lerro berriko kideei eskutik helduko diote. Berriz "aldatu" esaten duenean, berriro hasierako lerroetara bueltatuko dira. Honela, lehoia eta antilopea desorientatu egingo dira. Lehoiak antilopea harrapatzea lortzen duenean rola aldatuko dituzte. Denboraren tarte bat egiten dutenean, beste 2 lagun aukeratu dira lehoia eta antilopea izateko.


Nansoa da?

Zambia




TUNELAKO JAS TERRETA

agun kopuru bakoitia behar da jolasteko. borobil osatu behar dira, bata bestearen barnean. Borobil bateko lagunak este borobilekoei begira egon behar dira eta elkarri eskuetarik helduz, zubiak satuz. ikoterik ez duen laguna, zubietatik pasatuz, borobilari birak ematen hasiko da. lahi duenean, bikote baten zubiaren azpian geldituko da. Hori egiten duenean, ikotekideak ezkereruntz korrika irtengo dira zubi azpitik pasaz. Biek borobilari ira eman eta toki berberera itzuli behar dute. Lehenbizikoa iristen denak skutik helduko dio han dagoen kideari eta azkena iristen dena izango da urrengo txandan borobilean biraka ibiliko dena.




Nongoa da? (Australia)



ARDI GALDUA

Lagun batzuk lurrean zangoak gurutzaturik eseri behar dira borobil bat eginez. Borobilaren kanpo aldean, eserita dauden lagunak baino bat gehiago egon behar dira zutik. Dinamizatzaileak seinalea egiten duenean, zutik dauden lagunak borobilaren inguruan biraka hasi behar dira korrika. Dinamizatzaileak hurrengo seinalea egiten duenean, biraka dabiltzan lagunak eserita dauden lagunaren artean eseriko dira. Tokirik gabe gelditzen den laguna izango da ardi galdua eta dinamizatzaile bihurtuko da.


GUATEMALA




ORKESTRA ZUZENDARIA MUNDUKO JOLASAK

NOLA JOLASTEN DA?

Jokalari guztiak bat izan ezik borobilean jarriko dira lurrean. Borobiletik kanpo geratu den jokalaria urrutiratu egin beharko da besteek diotena ez entzuteko. Bitartean besteek zuzendari bat aukeratu dute. Laguna borobilaren erdian jarriko da orduan eta zuzendaria, musikaren erritmoari jarraituz, dantza pausu ezberdinak edo instrumentu ezberdinak jotzen ariko balitz bezala egingo du, noizbehinka aldatuz. Gainontzekoek zuzendariak egiten duena errepikatu beharko dute, baina disimulatuz. Jolasaren helburua borobiletik aparte geratu den jokalaria zuzendaria nor den asmatzea da. Asmatzen badu zuzendaria izango da borobiletik kanpo geldituko dena hurrengo aldian. Oharra: talde handia bada, borobiletik kanpo pertsona bakarra behar 2 gera daitezke.



EUSKAL HERRIA



EZ irrikegin NOLA JOLASTEN DA?

Jolasean arituko diren lagunek borobil bat osatu behar dute zutik.
Bat jolasaren gidaria izango da. Honek keinu edo mugimendu bat egin behar du eta jarraian, beste kideek banan-banan erreplikatu behar dute.
Kideek ezin dezakete irrikik egin keinua bereaiek imitatu behar duten momentuan. Beste lagunek bitartean irria eragin behar diote.
Kide batek irri egiten duenean, berak egin beharko du hurrengo keinua.



NONGOA DA? SIRIAKOA



KBODDI (PAKISTAN)

Nola jokatzen da?
Bi talde egin behar dira eta zehazki bitan zatitu behar da erdian marea bat eginez edo besteak imaginatuz. Talde bakoitako kide bat zehazki erdika marraztu irribilduta da eta bere helburua kontrako taldeko kideari belarria utzieta izango da, honek bere belarria utzi ezin duela, nahi. Belarrieta hie bat utzitzen dioten laguna beste taldearekin jasatuko da. Lagunari belarria utziteko dukoen lurren eremuan bako taldeko kideak "marraztu ez" esan alio dute eta zehazki esan ibili behar dute belarria utzi arte.

NON JOKATZEN DA? Pakistan



5. Produkzioa. LHko 5. eta 6. mailako ikasleek idatzitako salaketa gutuna.

Iruritan, 2017ko abenduaren 15ean

Munduko pertsona maiteak:

Iruritako eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak gara.

Gure desadostasuna adierazteko eta irtenbide bat bilatzeko idazten dugu.

Izan ere, munduko pertsona guztiek eskubide guztiak izatea nahi dugu eta hau ez da betetzen ari. Orain dela 2 urte Europar Batasunak erabaki bat hartu zuen: herrialde bakoitzak migratzaile kantitate bat hartuko zuela esan zuen. Zoritxarrez 2 urte pasa eta gero ez da bete adibidez Espainiak %11, 4 migratzaile hartu ditu.

Egoera honen aurrean migratzaile gehiago ekartzea, arma gehiago ez saltzea eta eskubide berdinak izatea eskatzen dugu. Gerrarik gabe, harresirik gabe, denok eskubide guztiak izatea.

Gure helburua munduan gertatzen ari den egoera honetaz konturatzea eta munduko gobernuak guztion artean salatzea da.

Espero dugu gutun honen bidez guztiok zerbait ikastea eta mundu libre bat sortzea.

Iruritako eskolako 5. eta 6. maila.

Komunikabideetan 5. eta 6. mailako ikasleek egindako gutuna argitaratuta:

Ahotsan:

The image is a screenshot of the website 'ahotsa'. At the top, there is a navigation bar with the following categories: HASIERA, POLITIKA, SOZIO-EKONOMIA, BIDEOAK, KULTURA, IRITZIA, AGENDA, and ARGAZKIAK. Below the navigation bar, there is a section titled 'EUROPA' with the date '2018-02-14'. The main headline is 'Munduko pertsona maiteak:' followed by the sub-headline 'Iruritako eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak.' The text of the article reads: 'Iruritako eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak gara. Gure desadostasuna adierazteko eta irtenbide bat bilatzeko idazten dugu. Izan ere, munduko pertsona guztiek eskubide guztiak izatea nahi dugu eta hau ez da betetzen ari. Orain dela 2 urte Europar Batasunak erabaki bat hartu zuen: herrialde bakoitzak migratzaile kantitate bat hartuko zuela esan zuen. Zoritxarrez 2 urte pasa eta gero ez da bete adibidez Espainiak %11, 4 migratzaile hartu ditu. Egoera honen aurrean migratzaile gehiago ekartzea, arma gehiago ez saltzea eta eskubide berdinak izatea eskatzen dugu. Gerrarik gabe, harresirik gabe, denok eskubide guztiak izatea.'

On the right side of the screenshot, there is a tweet from 'Sanfermines78gogoan @SF78gogoan' with the text: 'LA OTRA TRANSICIÓN - BESTE TRANTSIZIOA bit.ly/2EwhroI'. Below the tweet, there is a graphic with a raised fist and the text 'LA OTRA TRANSICIÓN - BESTE TRANTSIZIOA'. At the bottom of the graphic, there are logos for 'LA TRANSICIÓN EN LAS ESCUELAS', 'TRANSICIÓN EN LAS ESCUELAS', and 'LA TRANSICIÓN Y SANFERMINES DE 1978 TRANSICIÓN E.L.A.'

Ttipi-ttapa aldizkarian:

Irakurleak mintzo

Gerrarik gabe, harresirik gabe
Iruritako eskolako 5. eta 6. maila

Munduko pertsona maiteak:
Iruritako eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak gara.

Gure desadostasuna adierazteko eta irtenbide bat bilatzeko idazten dugu. Izan ere, munduko pertsona guztiek eskubide guztiak izatea nahi dugu eta hau ez da betetzen ari. Orain dela 2 urte Europar Batasunak erabaki bat hartu zuen: herrialde bakoitzak migratzaile kantitate bat hartuko zuela esan zuen. Zoritarrez 2 urte pasa eta gero ez da bete, adibidez, Espainiak %11,4 migratzaile hartu ditu.

Egoera horren aurrean migratzaile gehiago ekartzea, arma gehiago ez saltzea eta eskubide berak izatea eskatzen dugu. Gerrarik gabe, harresirik gabe, denak eskubide guztiak izatea. Gure helburua munduan gertatzen ari den egoera honetaz konturaztea da eta munduko gobernuak guztion artean salatzea.

Espero dugu gutun honen bidez guztiok zerbait ikastea eta mundu libre bat sortzea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mugak irekitzeko eskaria egin dute Iruritako eskolako ikasleek.

Ikasleak aske hezi nahi ditugu
[Iñaki BELTRAN GALLEGRO](#), [Gorane ARTIEDA](#), [APEZTEGIA](#), [Iñaki SANCHEZ LAFUENTE](#), [Manuel MELLADO BUENO](#), [Kristina FERNANDEZ PEREZ](#) (Mendaur DBHI, Elizondo Lanbide Eskola IIP eta Leharoz BHIko ikastetxeak)

Urtarrilaren 14an Baztango UPNko zinegotzi batek *Diario de Navarra*-n idatzitako *Si se adoctrina* artikulua harira, argi utzi nahi dugu guk ez dugula inor adoctrinatzen. Minga-rria zaigu joko politiko interesatuen baitan sortutako kalapita faltsuetan, geure burua enegarren aldez zikindua ikustea.

Ikasturte hasmentan ikasleei emandako eta gurasoei sinatu eta onartutako programazioan agertu bezala, Leharozko Euskara Departamentuak ikasle talde bati liburu baten irakurketa proposatu zion. Iduri duenez, liburuak ez da artikulua idatzi duenaren eta UPNren gustokoa izan, eta hori aitzakia hartuta alimalekoak erran ditu aipatutako departamentuaren kontra. Manipulazio eta adoctrinamendu bezalako hitzak erabili dituzte arrazoietan eta Euskara eta Literatura mintegiko irakasleen profesionaltasuna zalantzan paratu du. Bertzalde, ez da ahalke izan irakasle batzuen bizitza pribatua epaitzeko eta zenbait ondorio faltsu ateratzeko.

Gure bailaran, nobela beltzaren suspertzea eman da (H)ilbeltzak azken urteetan antolatu dituen ekintzen ondorioz eta oihartzuna Euskal Herri osorotik hedatu da. Oihartzun honen parte izan nahirik, Leharozko Euskara Departamentuak hiru nobela beltz proposatu zizkien ikasleei leitzeko DBHIko maila honetan. Baztango UPNko zinegotzi honek hauetako liburu bat adoctrinatzeke tresna dela adierazi du. Euskara Departamentukideek irakurzaletasuna bul-

katzea dute helburu, eta ez inor adoctrinatzea. DBHI, Elizondo Lanbide Eskola IIP eta Leharoz BHIko ikastetxeak sendo bezain ozen erran nahi dute, ikastetxearen baitan irakasleok hartzen ditugun erabaki pedagogikoak eta lana, lekuz kanpo, auzitan paratzea onartezina dela.

Berako Mendi Eguna
[Xabier, Loro eta Zubiren familiak \(Bera\)](#)

Urtarrilaren 13an 11 urte bete dira mendiak Xabier, Loro eta Zubigurre artetik eraman zituztenetik. Aurten berriro ere, eta 11. aldiz mendia eguna ospatu da Agerra Mendi Taldea eta Manttalaren eskutik. Eta hau eskertu beharrean gaudu. Eskerrik asko urte guzti hauetan beraien oroitzapena bizirik mantentzeagatik, egun hau gurekin partekatzeagatik, mendian, korrika, animatzen eskaladan, proiektzioan...

Beraiek mendia maite zuten eta mendiaren inguruan egun hau besta bihurtu da... eta horrela jarrai dezala.

Bihotz bihotz mila esker.

6. Produkzioa. Pertsona migratzaileei idatzitako elkartasun gutuna.

Iruritan, 2017ko abenduaren 15ean

Kaixo migratzaile maiteak,


Gutun hau idazten dizuegu zuekin gaudela eta zuei lagundu nahi dizuegula esateko. Euskal Herrian ongi etorriak zarete, gogo handiak ditugu zuek ezagutzeko. Gure eskolan lekua duzue. Espero dugu politikoei bizitzen ari zaretena ulertzea eta zuek honera etortzea edo zuen herrialdetan gauzak hobetzea eta bueltatu ahal izatea. Baina oraingoan modu onean.

Hurrengo arte eta ongi eta alai bizi.

Besarkada bero bat,


Iruritako eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak.

7. **Produkzioa.** Janari bilketarekin batera bidalitako zenbait elkartasun txarteltxo.



8. **Produkzioa. Ikasle batek egindako marrazki esanguratsua.**

Bertan Fatima pozik ageri da, itsasontzi polit batean Euskal Herrira iristen.



9. **Produkzioa. Ikasle batek Fatimari idatzitako gutuna.**

OLA FATIMA NI EIDER NAIZ
NIALAITZEN LAGUNA NAIZ.
NAIKONUEN ZUK ETAZURE
FAMILIA ETORRIZIA
IRURITARA PASTU NGI
GABONAK ETA ISPERODUT
NOIZ BAIT KOSTA IRURITA-
TIK GULEKUA INGODATZUGU
GURE ESKOLARA EXORTZEA
AIO?

9.6. Argazkiak.

1. Argazkiak. Kamishibaien erakustaldiaren eguna.



2. Argazkiak. LHko 2. mailako ikasleek egindako lanaren zenbait argazki.

Azpimarratzekoa da Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleek egindako lana. Janari eta arropa eta jostailu biketa egin genuenean parte hartzera gonbidatu zituzten Iruritako eskola eta baita honekin elkarlanean aritzen diren beste eskolak ere. Haiek izan ziren gelaz gela gure nahiaren berri eman zutenak eta bai ikasle, irakasle eta familiak parte hartzera animatu zituztenak etxeetara bidali zen ohar baten bidez.

Bi bilketen erantzun bikaina ikusita, LH 2. mailakoak izan ziren ere eskerrak emateko oharra prestatu zutenak. Bukatzeko, esatekoa da eskolan migratzailearen eguna ospatu genuenean, haiek izan zirela pankartak sortu zituztenak eta gainontzekoei egun horretako ekintzaren berri eman zietenak.

Pertsona migratzaileen eguneko pankartak prestatzen:





Janari, arropa eta jostailu bilketan jasotako erantzun paregabea eskertzeko ateratako argazkiak:





3. Argazkiak. Egindako jolas bildumaren jolasetan aritzeko bildu ginen eguna.





4. Argazkiak. Pertsona migratzaileen eguna.





9.7. Ebaluazioa.

9.7.1. Ebaluaziorako erabilitako galdetegia.

Egia edo gezurra?

1. Pertsona guztien eskubideak betetzen dira.
2. Pertsona beltzaran guztiak pobreak dira.
3. Pertsona guztiongandik ikasi dezakegu zerbait.
4. Euskal Herrian ez dago etorkinentzat lekurik.
5. Euskaldun izateko Euskal Herrian bizi behar zara.
6. Euskaldunak beti gelditu gara gure jaioterrian, besteak dira migratzen dutenak.
7. Pertsona migratzaileek bizi duten egoera ez da gure arazoa, guk ezin dugu ezer egin.

Aukeratu erantzun egokia:

1. Beste pertsona batekin desadostasuna sortuz gero, onena hau da:
 - a) Hitz egitea arazoari irtenbide bat bilatzeko.

- b) Denbora pasatzen uztea, arazoa berez konpon dadin.
- c) Edozer egitea nire iritzia inposatzeko.

2. Gerrak:

- a) ez die eragiten herrialde horietako haurrei.
- b) herrialde horietako haurren eskubideak urratzen ditu.
- c) beharrezkoak dira zenbait gatazka konpontzeko, ez baitago beste modurik.

3. Gure herrira datozen etorkinekin arazorik sor ez dadin:

- a) Beraiek moldatuko dira gure bizimodu eta erlijiora.
- b) Egokiena beraiek elkarrekin bizi da, gurekin nahasi gabe.
- c) Ona litzateke gu geu haien ohiturak ezagutzen saiatuko bagina eta elkar errespetatuko bagenu.

4. Beste kultura, etnia eta erlijio batzuekiko harremana:

- a) Iskanbilatsua izango da ezinbestean.
- b) Aberasgarria da, asko ikasi dezakegu beste etnia eta kulturetatik.
- c) Ezinezkoa da, kultura, etnia eta erlijio desberdinek ez baitute haien arteko harremanik.

5. Ikasi al duzu proiektu honetan zehar?

6. Zure gustokoak izan al dira egindako jarduerak?

7. Nola sentitu zara taldean?

9.7.2. Saioz saioko balorazioa.

9.7.2.1. Jarduera orokorren balorazioa.

Lehen Hezkuntza 2. eta 3. maila.

1. eta 2. jarduera orokorrak:

Azaroak 22,

Oso gustora sentitu naiz momentu guztietan. Oso parte hartzaileak izan dira eta orokorrean hitz egiteko txanda errespetatu dute. Galdera asko egin dituzte eta guk galderak egitean gogotsu erantzun dute. Prestatutakoa haien parte hartzearekin aurrera joan da. Denboraz ongi ibili gara. Asko solastu gara eta hori zen helburuetako bat, beraz, primeran. Dena ulertu dute eta bi ideia orokorrak oso argi gelditu zaizkie:

- Gu Euskal Herrikoak garenez herrialde batetik bestera pasatzeko ez dugu arazorik izaten eta eroso bidaiatzen dugu. Beste batzuek beste herrialde batzuetan sortu

izanagatik ez dute bidaiatzeko hain erraza eta haien bizitzak arriskuan jartzen dituzte. Beraz, pertsona guztiok izan beharko genituzkeen eskubide guztiak ez dira betetzen ari.

- Kulturartekotasunak aberasgarritasuna dakar.

Oso interesatuak eta motibatuak ikusi ditugu Fatimaren inguruan hitz egitean. Haien buruan ez zen sartzen zergatik egon beharra duen han. Milaka galdera eta irtenbide planteatu dituzte: zu Greziara joan bazara zergatik ez duzu ekarri? Kotxez ezin dira pasa? Eta hegazkinez? Eta hegazkina aereportuan hartu beharrean beste leku batean hartzen badute? Normala denez, ulergaitza egiten zaie pertsona hauek bizi duten injustizia, herrialde batean sortu izanagatik miseria hori pasa behar izana.

Bidaiaren marrazkia egiterakoan nahi dutelako bidaiatzen dutela azaldu dute. Bidaian zehar aspertu egiten direla, baina kotxean, tableta eta telebista txikitxoak dituztela filmak ikusteko eta jolastu ahal izateko. Hegazkinak hartzeko ez dutela inoiz arazorik izan eta hartu dituzten itsasontziak handiak zirela, batzuek igerilekua ere bazutela. Gutuna irakurtzean izugarria izan da bidaiaren kontrastea, eta horretaz oso kosziente izan dira.

Askok Iruritan Fatima eta bere familiarendako lekua soberan dagoela esan dute, asko ikasiko zutela elkarrekin.

Oso polita izan da saioa.

Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. maila.

1. eta 2. jarduerak orokorrak:

Azaroak 24,

Oso gustora sentitu naiz. Asko parte hartu dute. Nahiko zekiten gaiaren inguruan eta interesa izugarria izan da. Ikasle hauek ere blokeatuta dauden pertsonak jatekorik duten izan dute kezka, beraz, Zaporeak proiektuarekin elkarlanean aritzeko ideia luzatu eta baiezkota eman dute guztiek. Arropa eta jostailuak ere soberan dituztela esan dute, guk ezer esan gabe, beraz, bigarren bilketa horren ideia haiengandik atera da.

Jaioterriko herrialdetik alde egitearen arrazoi gehienak haiek atera dituzte. Gertuko adibideak ipiniz: “nire familian badago bat Ameriketara joan zena lan bila”.

Bidaiatzeko moduaren inguruan kontrastea nabaria izan da eta kontziente izan dira. Interes handia adierazi dute. Siritik Turkiara nola pasa zen jakin nahi izan dute adibidez, beraz hurrengo gutunean azaltzea pentsatu dut.

Ikasle batek baino gehiagok galdetu du bi saioak pasata ziren eta baietz esatean oso azkar pasa zaizkiela esan dute. Beraz, ez da seinale txarra. Oso pozik atera gara.

Saioan egon diren irakasleek oso interesgarria dela esan dute, beraz, oso kontent alde hortatik ere.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4.maila.

3. jarduera orokorra

Azaroak 28,

Oso gustora sentitu naiz. Irakasleek oso ongi baloratzen dute lana, oso interesgarria dela eta benetan mesedegarria eta beharrezkoa dela esanez.

Ikasleen partetik ere interes handia antzeman daiteke. Elkar entzuten dira eta asko parte hartzen dute.

Panpinen ariketan, nola ez, beltza eta txinatarra agertu dira migratzaile bezala. Ikasleen arrazoen artean hauek izan dira gehien entzun direnak: beltza pobrea delako eta txinatarra txinatar asko etortzen direlako. Triste zegoela ematen zuen panpin bat ere aipatu dute migratzaile posible moduan.

Benetan interesgarria izan da hori esan ostean, nire aitatxi txuria izanda jaioterria utzi eta lan bila joan behar izan zela kontatzean haien ezagunak eta familiakideen berri eman duten momentua. Segituan konturatu dira migratzaile izateak ez duela zer ikusirik larruazalaren kolorearekin, arrokekin...denak izan gaitezkeela migratzaile.

Bereziki pozik gaude ikasle baten kasuarekin: Marruekosetik etorri zen bere aita eta orain arte ezkutuko gai bezala zuen hori. Orain ez dela zertan lotsatu behar ikusi duenean eta zeinen aberasgarria den antzeman duenetik oso pozik hitz egiten du bere aitaren inguruan. Marruekoseko amatxi egun batzuk pasatzera etorri dela esan digu eta eskolara etortzera animatu digu. Arabea ikasten hasi dela esan digu. Oso pozik gaude horregatik eta bere amatxi eta bera ere kontent daudela kontatu digu, berea ere baloratzen hasi da. Hurrengo egunerako guztion izenak arabez idatziak ekarriko dituela esan digu, oso interesgarria izango zen hau.

Egoerak planteatu ditugunean espero genituen erantzunak jaso ditugu. Askotan ikasle askoren erantzuna honako izan da: hau da errespetatua izatea errazago duen pertsona, baina ez dakit zergatik. Irakaslea saio bitartean gurekin egoteak asko erraztu du dinamika klaseko jarrerak atera baitira. Teorian badakigu gure jarrera zein izan beharko zen, baina praktikan?

Behintzat pentsarazi egin diegula pentsatzen dut eta mezu honekin behintzat gelditzea: gure esku dago elkar errespetatzea.

Saioa bukatzeko, Fatimaren jolasaren gutuna irakurri dugu eta liburuxka sortzeko prest daude, beraz, primeran.

Lehen Hezkuntza 5. eta 6. maila

3. jarduera orokorra:

Abenduak 1,

Oso gustora sentitu gara. Oso erantzun positiboa jaso dugu ikasleen aldetik. Hiru saio izan dira eta oso azkar pasa dira.

Bi ikasle oso hiztun egon dira, klasea oztopatzen noizbehinka. Nahi bazuten joateko edo beste gauza batean aritzeko aukera eman diegu eta planteatutako jarduerekin jarraitu nahi izan dute, seinale ona orduan.

Elkarrizketa moduan planteatu dugu saioa eta gai batek bestea bideratu du. Modu honetan, gai pila atera dira, momentuko zalantzak denon artean argituz. Besteak beste, homosexualak ere guraso izan daitezkeela argitu egin dugu.

Neska eta mutikoen artean egiten den bereizketaren artean asko solastu gara. Izandako elkarrizketen artean adibidez honako hau gauzatu da:

Ikasle batek honakoa esan du:

- Nere anaiak dio azazkalak margotzeagatik neska naizela.

Orduan, beste ikasle batek galdetu dio:

- Eta zu zer zara neska ala mutila?

Eta ikasle honek zera erantzun dio:

- Ez neska ez mutila ni pertsona naiz.

Beste ikasle batek ere ondorengoa planteatu du:

- Ez dut ulertzen zergatik txikiak garenean ez dugu mutiko baten beharrik eta zahartzean bai.

Telebistan transmititzen dizkiguten balore eta estereotipoez mintzatu gara ere eta izugarriko sorpresa eraman dut ikasle batek "la que se avecina" telesaian Berta (emakume guztiz sumisoaren papera betetzen duen pertsonaia) pertsonaien artean normalena dela esan duenean. Zorionez guztion artean buelta eman diogu horri.

Hainbat estereotipo apurtzen saiatu gara. Adibidez ijitoen inguruan mintzatzean argi gelditu da denak ez direla lapurrak, behin lapurtu izanak ez zaituela betiko lapur egiten. Ikasgelan lapurreta kontuekin izandako esperientziak atera dira orduan eta honek zenbait ideia argitzeko balio izan digu.

Noski, panpinen ariketarekin hasi da solasaldi hau guztia eta apurtu ditugun estereotipoen artean pertsona migratzaileak edozein izan gaitzkeela eta jakiteko galdetu beharra dagoela argi gelditu da.

Izugarria da gure zalantzen, interesen, beharren...inguruan hitz egiteko dugun beharra eta honetarako hezkuntzan dagoen denbora falta. Hausnarketa benetan interesgarriak egiten

dituzte ikasleek, baina ez zaie hitz egiteko aukerarik ematen. Ikasleek plantetatutako hausnarketa eta emandako lezioak benetan interesgarriak dira.

Salaketa irakurtzean oso haserre jarri dira, hori salatzeko zerbait egiteko gogotsu. Salatzeko gutuna egitearen ideia asko gustatu zaie, beraz, hurrengo saioan prestatutakoarekin aurrera egingo dugu.

Lehen Hezkuntza 2.maila

3. jarduera orokorra:

Abenduak 5 eta 11,

Jarduera orokorren artean panpinen artean migratzailea aukeratu behar izan dutenean esperotakoa atera da: beltza, pobrea, begiak “txinatar moduan” dituena, triste dagoena...Baina batzuk oso pentsakor gelditu dira eta haien zalantza azalarazi dute: ez du zertan ez?

Guztion iritziak entzun eta gero mezua argi gelditu da: galdetu gabe ezin dugu jakin, denok izan gaitezke migratzaile.

Gure familiakideen artean egon diren adibideak azaldu ditugu eta segituan eman dituzte haiek ere adibide gehiago. Etxean hobeki galdetzeko proposatu diegu eta gogoz hartu dute ideia. Pertsona migratzaileen estereotipo negatiboekin bukatzeko lehenbiziko pausu moduan egokia iruditu zaigu guztion artean izan dugun elkarrizketa.

Horrekin lotuta euskal diaspora landu dugu eta Argentinako euskal etxeari mezua idazterakoan interes handia adierazi dute. Primeran egongo zen Skype bitartez adibidez benetako kontaktua egin ahal izatea.

Adinarengatik izango da agian, baina ikasle hauek ez dute sobera aguantatzen solasean. Zerbait gehiago egiteko premia dute. Beraz, egoeren jarduera planteatzeko zalantzatan egon naiz..

Irakaslearekin hitz egin eta saiatzeko izan da aholkua, beraz, hurrengo saio batean (abenduak 11) egoeren jarduera aurrera eraman dugu. Zorionez nahiko ongi jarraitu dute eta gogotsu parte hartu dute. Bukaeran hainbeste hitz egin aspertzen hasi dira, baina guztioi pentsarazi digu zerbait momentu hori arte hitz egindakoak, beraz, horrekin gelditzen gara.

9.7.2.2. Jarduera zehatzen balorazioa.

Lehen Hezkuntza 2. maila.

Proiektuaren lehenengo saioan oso adi egon dira denak. Oso parte hartzaile. Galdera asko sortarazi die egoera honen berri jakiteak, hala nola: gerra nor noren kontra da? Fatimaren lagunak hilak daude? Baina Fatimak euskaraz daki?

Arabearen inguruan solastean berebiziko interesa jarri dute, guztiz berria baitzen hizkuntza honen existentzia. Alderantziz idazten dutela esatean ikasleetako batek haienzako gurea alderantziz izango dela esan du normalean dugun jarrera etnozentrismarekin apurtuz. Ikasle honek egindako hausnarketa honek asko poztu gaitu.

Asko enpatizatu dute Fatimarekin. Harrituta gelditu dira bere eskola erre egin zutela aipatzean. Fatimaren lehenagoko egunerokotasunaren inguruan hitz egitean haien antzekoa zela ikusi ahal izan dute eta ondoren, denak egon dira Fatimaren ipuina jarraitzeko prest, laguntzeko prest. Oso sentazio ona gelditu zaigu.

Proiektuaren 2. saioan ipuina egiten jarraitu dugu. Ipuin bat idazten duten lehenbiziko aldia izan da orduan nahiko konplikatu izan da haienzako. Hala ere, oso ideia politak atera dira. Aurrekoan arabearen inguruan solastu ginenean gurekin alderatuz alderantziz idazten dutela komentatu genuenez haien izena alderantziz idatzi dute Fatimak ulertzeko eta bihotzekin apaindu dute. Izugarria da Fatima ongi sentiarazteko eta elkar ulertzeko haien aldetik egin duten ahalegina. Interes handia dute Fatima gehiago ezagutzeko.

Hurrengo saio batean, behin ipuina bukatuta, kamishibaiaren teknikaren inguruan hitz egin dugunean interes handia adierazi dute. Kamishibaia zabalduetako herrialdeen artean Estatu Batuak agertu denean batek baino gehiagok esan du haien amatxi edo aitaxi bertan egondakoa dela. Beraz, etxean horren inguruan gehiago galdetzea proposatu diegu.

Aurreko egunetan landutakoarekin lotzeko gaitasuna adierazi dute. Ikasle batek adibidez, pasa den egun batean landutako neska eta mutikoen arteko eskubide berdintasunarekin lotu du primeran mundu osoko pertsonak merezi dugun eskubide berdintasuna landu dugunean. Ideia batzuk argi gelditu dira, besteak beste, pertsonak gara denak eta komunean pentsatzen duguna baino gauza gehiago ditugu, hala nola, denok bizi nahi dugu zoriontsu.

Saioan erabilitako "Ni bezalako haurrak" liburua ikasgelan duten maleta bidaiarian sartu dugu eta arrakasta izan du egondako hiru hilabeteetan eskuz esku pasa baita.

Orokorrean, oso gustora egon gara kamishibaiak egiten. Ikasgelan 10 ikasle besterik egoteak asko erraztu eta lagundu du. Ipuinak asmatu eta kamishibaiak egiterakoan, bai istorioa eta bai marrazkiak egiterakoan estereotipoak zalantzan jarri eta hausten saiatu gara modu sotil batean. Zerbait pentsarazi diegula uste dugu, guztion parte hartzea sustatu baitute haien artean eta kamishibaietan aldaketa batzuk egin dituzte (hala nola, mutikoa edo neska den argi ez dagoen maitagarria eta larruazal kolore beltzarako printzesa bat marraztu dute). Baina, hala ere, 2 mutiko zeuden talde bakarraren kamishibaiak beste baina baino askoz bortitzagoa izaten jarraitzen du eta ez dut uste hau kasualitatea denik. Marrazkietan ere printzesa gehienak arrosa kolorez margotu dituzte, denak argalak eta gehienak txuriak. Gutxinaka landu beharreko kontua da hau.

Urtarrilaren 23an kamishibaien aurkezpena egin zuten. Oso pozik gelditu ziren ikasle eta irakasleen partetik haien lana hain baloratua izan zela ikustean. Kamishibaia gogoz egina zutela nabaria zen eta ilusio handiz “bidali” zioten Fatimari kamishibaien kopia.

Tamalez, euskal diaspora lantzean Arrecifesekeo Euskal Etxeari bidalitako mezuari ez digute erantzun, baina euskaldunon historiaren inguruan gehiago jakiteko eta migratzaileekiko ditugun estereotipo eta aurreiritzien kontrako aurrerapausu bat emateko balio izan zuela deritzogu. Izan ere, argi dute orain denok izan gaitzkeela migratzaile. Esperientzia aberasgarria izan zen beraiantzat euskaldunak munduan barna bizi garela jakitea.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan.

Abenduaren 15ean egindako saioan, jarduera orokorretan landutakoaren errepasso bat egin dugu eta ideiak primeran ulertu direlako sentsazioa izan dugu.

Gutuna egiterakoan ez dute denek parte hartu era berean, baina derrigorrezkoa ez zela esan arren denak gelditu nahi izan dira, beraz, seinale ona.

Gutuna egiterako orduan, egoera aldatzearen indarrez daudelako sentsazioa izan dugu guztiz. Gainera, saioetan landutakoa primeran ulertu dutela antzeman izan dugu gutunean atera diren ideientatik.

Astia soberan genuenez, Fatima eta bere egoeran daudenen inguruan hitz egin dugu haien galderei jarraituz gehiago sakonduz. “Atxuerrefuxiatuekin” bideoaren zatitxo bat ikusi dugu orduan haiek eskatuta.

Bizpahiru ikasle bideoan agertzen zen beltza ikusitakoan irri egin dute txiste bat eginez. Egoera hau oso frustrantea izan da, baina errespetua eta giza eskubideak aldarrikatzea eta gero guk ez errespetatzea batera ez datozela argitzeko baliogarria izan da. Batzuei negargurea eman die eta oso momentu hunkigarria izan da. Haien esku egoera honekin bukatzeko gutunean bezala informazio hau hedatu behar dugulako ideia argi gelditu dela uste dugu.

Bideo honek ikasleengan izandako eragina ikusita, hurrengo saio batean, urtarrilaren 18an hain zuzen ere, hainbat bideo ikusi eta haien inguruan hausnartu dugu. Denbora falta izan dugu gaietan behar bezala murgildu ahal izateko, baina gustora egon gara eta berriro ere norberaren jarreraren autokritika egiteko balio izan du.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailan.

Urtarrilaren 16an egindako saioetan Eguberriak tartean egon zirenez jarduera orokorretan landutakoa freskatze aldera komunean jarri genuen oroitzen ginena eta pozik gelditu ginen funtsezko ideiak behintzat argi gelditu zirela eta noski Fatima ahaztua ez zutela ikustean.

Jolas bilduma egitean nahiz eta bi gela elkartu, 19 ikasle izan dira eta taldeetan antolatzean primeran egin dute lan. Denek parte hartu nahi izan dute eta primeran egin dute lan. Fatimaren oparia izanik, asko zaindu dute itxura letra zainduz, apaingarriak jarritz...

Mapa desberdinen inguruan hitz egin genienean interes handia adierazi zuten eta gainontzeko ikasgeletan landutakoa kontatzean benetan ideia ulertua zutela bermatu ahal izan genuen. Denbora aldetik nahiko eskas ibili ginen ez baitzigun jolas guztietan aritzeko astirik eman, beraz, beste saio batean jolastuko ginela adostu genuen. Hurrengo saio honetan, urtarrilaren 18an hain zuzen ere, talde bakoitzak egokitutako jolasa azaldu zuten eta elkarrekin jolastu ginen.

Bukatzeko, urtarrilaren 23ko arratsaldeko azken saioan frontoian bildu ginen eskolako irakasle eta ikasle guztiak. Txokoka antolatu ginen eta guztiok aritu ginen jolasean. Saioa hasi baino lehen nahiko urduri geunden, eskola guztia guk proposatutako jarduera batean aritzeak urduritzen gintuen, baina primeran atera zen eta oso giro polita sortu genuen denon artean. Ikasleek primeran pasa zutela esan zuten eta irakasleek ideia polita izana zela.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. maila:

Abenduak 11,

Oso gustora egon gara. Ipuina oso ongi ulertu dute eta oso adi egon dira. Oso parte hartzaileak egon dira eta Fatimaren inguruan solastu garenean galdera pila egin dituzte, interes handia adierazi dute.

Fatimaren egoeran dauden pertsonak laguntzeko prest daudela adierazi dute segituan holakoak esanez: "hemen lekua dago soberan", "nere etxean badago ere", "erraiozu nahi badu etortzeko".

Ezinezkoa egiten zitzairen Fatimaren Euskal Herrira etorri ahal izan gabe Grezian gelditu behar izatea: "Baina nork ez dio uzten, bere aitak?"

Hain txikiak izanda eta gainera, haiekin lehenago saio gehiago egin izan gabe oso zaila egin da zergatia azaltzea. Nik ez dut Haur Hezkuntzan inolako esperientziarik. Nola moldatu informazioa haien txikiekin lantzeko? Hala ere, ez genituen proiektutik erabat kanpo utzi nahi eta haiei moldatzeko saiakera egin dut.

Sentsazio onarekin atera naiz. Haien mailan, baina mezua ulertu dutela pentsatzen dugu: guztioi gustatzen zaigu laguntzen gaituztenean, denok behar dugu laguntza nozbait eta denak gara beharrezkoak mundu honetan.

Bigarren saioan, abenduaren 14an, oso gustora aritu ginen janari bilketan bidaltzeko elkartasun txartelak apaintzen. Oso interesgarria izan zen hizkuntzen aniztasuna landu genuen momentua, izan ere, txarteltxoak gero eta hizkuntza gehiagotan idatziz gero, pertsona gehiagok ulertuko zutela esatean, ikasgelan geundenen artean euskara, katalana, gaztelera, ingelera eta frantsesera itzuli genuen esaldia.

Txarteltxoak egin eta gero ikasgelaz ikasgela gainontzekoak hurrengo egunean beraiena idaztera animatzera joan zirenean primeran azaldu zuten txartelak norentzako ziren eta zertarako eginak genituen. Proiektuan parte hartu zuten eta oso pozik gelditu ginen.